


Herritarren ahotsak

Transmisioa ikasgelan

Euskara eta Literatura



Gida didaktikoa

BATXI 1 eta 2

Badihardugu Elkarte

Otaola hiribidea, 1
20600 Eibar (Gipuzkoa)
943 12 17 75

Edukia

SARRERA.....	3
HELBURUAK.....	6
EDUKIAK.....	11
Eduki multzoak	11
Gai nagusiak	17
NOIZ ETA NOLA ERABILI	25
PROPOSAMEN PEDAGOGIKOAK.....	31
1.Gaia: Gazteak euskalkian. Euskararen aberastasuna.	31
2.Gaia: Nafarrera (Euskararen aberastasuna).....	39
3.Gaia: Gipuzkera. Garai bateko garraioak (Euskararen aberastasuna).....	48
4.Gaia: Nafar-lapurtera euskalkia (Euskararen aberastasuna)	57
5.Gaia: Literatura modernoaren hastapenak: kostunbrismotik modernitatera (Literatura idatzia)	68
6.Gaia: Literatura: 70eko hamarkada	77
7.Gaia: Idazketa-tailer baterako aholkuak (Literatura idatzia)	86
8.Gaia: Ipuinen transmisioa (Ahozko literatura)	96
9.Gaia: Euskarazko prentsaren garapena (Euskararen normalkuntza)	106
10.Gaia: Iritziak eta argudioak (Ahozko testu-generoak)	113
ESPAZIOEN ANTOLAKETA	124
DENBORALIZAZIOA	125
MATERIALAREN EGILEAK	126
BIBLIOGRAFIA	127

SARRERA

Gure ikasmaterialak Euskal Herriko Ahotsak www.ahotsak.eus proiektuan bildutako ahozko ondarea dauka oinarri gisa. Euskarazko testigantzak, adinekoenak zein gazteenak. Gure asmoa jakintzen eta kontatzeko moduen transmisioa egitea da, ahozko jardunaren bitartez. Eta, bidez batez, belaunaldien arteko hurbilketa egitea, lehenaldia eta oraina lotuz.

“Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan” proiektua 2015ean sortu zen, EIMA 2.0. egitasmoari esker. DBHko **Herritartasunerako Hezkuntza** irakasgairako egin genituen lehen proposamen pedagogikoak:



Ondoren, **Euskara eta Literatura** ikasgaiari heldu genion, eta 2016tik hona DBHko maila guztietarako materia prestatu dugu:



Gida didaktikoa
DBH 1 eta 2



Gida didaktikoa
DBH 2 eta 3



Gida didaktikoa
DBH 3 eta 4

Lanketa guztiak <http://ikasgelan.ahotsak.eus/> webgunean daude erabilgarri, euren gida didaktikoekin (proiektuetan, EIMA 2.0. aukeratuta).

Orain proposatzen duguna Batxilergoako ikasmateriala da, **Batxilergoko 1. eta 2. mailatarako materiala**. Euskara eta Literatura ikasgaiarekin jarraitu dugu, eta **10 proposamen pedagogiko** prestatu ditugu ahozko ondarea jorratzeko. Bost ataletan banatzen dira:

- Euskararen aberastasuna: euskalkiak
- Literatura idatzia
- Ahozko literatura
- Euskararen normalkuntza
- Ahozko testu-generoak

Zer du berezitik gure ikasmaterialak? Ahozkotasuna dauka abiapuntu eta helburu gisa. Curriculumean ahozkotasunari garrantzi handia ematen bazaio ere, askotan idatzizkoa gailentzen

da ikastetxeetan. Ahozotasuna lantzeko ereduak falta dira, eta guk baditugu. Ahozotasunak naturaltasuna esan nahi du, adierazkortasuna, eta agerikoa da gaztetxo askok premia hori dutela, erdarara jotzeko duten joera ikusita. Hizkera formala eta informala, biak lantzeko proposamenak egin ditugu, euskarari freskotasuna eta adierazkortasuna emateko, sormena lantzeko, eta, azken batean, euskararen ahozko erabilera sustatzeko.

Euskalkien balioa nabarmen geratuko da, ikasleen nortasun kolektiboa eta indibiduala garatzeko garaian. Identitateari dagokionez, esan dezakegu ikasmaterialak Curriculumaren euskal dimentsioa lantzeko balio duela, euskal mundu ikuskeraren erakusgarri den heinean.

Herriaren jakinduria, jakintza kolektiboa. Hori da beste ezaugarrietako bat. Eskolako liburuetan presentzia gutxi izaten duen herritarren ahotsa da gure ikasmaterialaren ardatza; herri baten izatearen lekukotasuna, azken batean. Adituena zein herritar xeheena. Gazteena zein adinekoena.

Duela gutxi arte, transmisioa etxeko sukaldean egiten zen. Baina azken belaunaldietan ez, bizimodua goitik behera aldatu baita: teknologia berrien aroan murgilduta bizi gara. Horregatik, guk ere transmisioa egiteko modu berriak aurkitu ditugu. Gure ikasmaterialaren helburua horixe da: herri jakinduria ikastetxetara eramatea, teknologia berriak erabilia eta modu erakargarrian.

Hala, batetik, gure aurrekoen bizipenak, adineko jendearenak, ezagutzera ematen ditugu. Izan ere, gizartearen barne-egitura, balioak, bizimodua, arazoak, pentsaera... gizartearen bilakaeraren ondorio dira; nondik gatozen jakin behar dugu, nora goazen jakiteko. Bestetik, beharrezkoa da gaur egungo gazteen ahotsa ere aintzat hartzea, orain haiek direlako lemazain bihurtu behar dutenak, eta ikasleak gazteekin gehiago identifikatzen direlako. Belaunaldien arteko zubi-lana egiten dugu. Soka beraren katebegiak gara denok.

Ikasmaterial osagarri digitala da gurea, Curriculuma aintzat hartuta sortua; ikasgelan erabiltzeko eta irakasleari begira egina, ez beste nonbaitetik hartua eta egokitua. Irakasleen autonomia errespetatzen du, irakasleek nahierara erabil eta molda ditzaketen proposamenak egiten baititugu. Lizentzia librearekin banatzen dugu eta Euskal Herriko ikastetxe guztietan erabiltzeko modukoa da, interes orokorrekoa. Halaber, erabiltzeko erraza da, intuitiboa, bilaketa mailaren, ikasgaiaren eta gaiaren arabera egin daitekeelako: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/>. Diseinua erakargarria da. Eta berdintasuna aintzat hartzen du, bai gaiak aukeratzean, bai proposamen pedagogikoetan ere.



Sare sozialak eta euskara

euskaraz
bizi
nahi dut

Euskaraz bizi nahi dut



Sehaska-kantak



Irakurzaletasuna eta euskara



Hizkuntza-jarrerak



Elbira Zipitria andereñoa



Maria Dolores Agirre eta antzerkia



Elkarrizketa motak



Nola kontatu ipuin bat?

HELBURUAK

Gure ikasmateriala Batxilergoko 1. eta 2. mailako irakasle eta ikasleei dago zuzendua, eta Euskara eta Literatura irakasgaiarekin dago lotuta.

EIMA 2.0. deialdiaren baldintzei dagokienez, proiektu honek honako baldintzak betetzen ditu:

- Euskara hutsean sortutako ikasmaterial digitala da (4.1. artikulua).
- Creative Commons lizentziapean argitaratzen da (3.1. artikulua).
- Arlo hauetara zuzenduta dago (2. artikulua):
 - Batxilergorako material osagarria da.
 - Curriculumaren euskal dimentsioa lantzeko material osagarria da.
 - Aniztasunari erantzuten dio.

Proiektu honen helburu nagusia ahozkoasuna lantzea da. Berebiziko altxorra daukagu jasota Ahotsak.eus proiektuan. Testigantza horiek euskarazkoak eta ahozkoak dira guztiak. Zer esaten duten eta nola: edukiz nahiz formaz dira baliagarriak. Gure egiten dugu eskola curriculumetan (175/2007 eta 23/2009 Dekretuak) egoera ezberdinetan komunikatzen ikasteari ematen zaion garrantzia, eta baita ere ahozko hizkuntzari buruz esplizituki esaten dena: hizkuntzen irakaskuntzaren helburu gisa izan behar duen lekua eta beste materien garapenerako tresna moduan duen garrantzia.

Ahozkoasuna lantzeko irakasgai guztiak izan daitezke egokiak. Hori bai, *Euskara eta Literatura* iruditzen zaigu aproposena, ahozkoasuna hizkuntzaren irakaskuntzaren barnean dagoelako. Ahozkoasuna ez da behar beste lantzen, gure ustez, eta hori izan da gure ekarpen nagusietako bat: ahozko komunikazioa lantzea.

Batxilergoan lortzea komeni den oinarritzko zehar-konpetentzietako bat honakoa da (127/2016 Dekretua): “Hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazio digitala modu osagarrian erabiltzea, ganoraz eta egoki komunikatu ahal izateko egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan”. Konpetentzia hori *Euskara eta Literatura* ikasgaira eramanez gero, berriz: “Hitzezko eta idatzizko testuak egokiro erabiltzea, bizitzako hainbat alorretako egoeratan, eraginkortasunez eta hizkuntza-aniztasuna errespetatuz” eta, horrekin lotuta, “hitzezko eta idatzizko komunikazio jariokor, autonomo, sortzaile eta eraginkorrak egitea”.

Material honen asmoa ikasleei giltza batzuk ematea da, egoera komunikatibo bakoitzari dagokion testuinguruaz jabetzeko, egoera formalak eta ez formalak bereizteko eta ahozko testu-generoak ezagutu eta erabil dizaten (azalpenak, iritziak eta argudioak batik bat, horiek direlako Batxilergoan gehien landu behar direnak, Curriculum aintzat hartuta).

Ahokotasuna lantzeko aukeraz gainera, gure lehengo eta oraingo gizartea barrutik ezagutzeko hainbat giltza ematen dituzte adinekoen eta gazteen testigantzek. Batetik, hizkera dago: euskalkiak eta euskararen ezaugarriak. Bestetik, kontaktzen dutena: historia, iritziak eta jakintzak, besteak beste. Haien testigantzek hausnarketarako bidea zabaltzeko balio dute, ikasleak euren kabuz ondorio batzuetara hel daitezen, talde-lanaren laguntzaz. Bide batez, nagusien hitzei balioa emateko, denen iritziak entzuteko eta errespetuzko harremanak lantzeko ere balio du.

Ikasleek errealitatea kritikoki epaitzen laguntzen duten balio-printzipioak landuko dituzte. Eta hori era autonomoan, arrazoizkoan eta elkarrizketaren bidez egin dezaten balio dute gure bideoek eta proposatuko ditugun jarduerak. Gure ikasmaterialak pentsarazteko balio du.

Curriculumean jasotako helburuekin bat dator gure ikasmateriala, bai helburu orokorrekin eta baita irakasgaiko helburu zehatzekin ere.

Helburu orokorrei dagokienez, Oinarrizko Hezkuntzaren xedeak betetzen ditu (175/2007 Dekretua):

- a) Ikasleak prestatzea pertsona helduen bizitzari ekiteko; gizarteko herritar aktibo izateko; eta izadiaren zaintzarekiko eta garapen iraunkorrekiko konpromisoa duten pertsonak izateko.*
- b) Ikasleek euskal kulturako eta kultura unibertsaleko oinarrizko elementuak eskura ditzaten lortzea.*
- c) Ikasleekin sentsibilizazio-lana egitea eta haiek gaitzea bizitzan zehar etengabe ikasteko gai izan daitezen.*

Oinarrizko hezkuntzaren helburu orokorrak, 175/2007 Dekretuan zehazten direnak, ere helburutzat hartu ditugu: arduraz bizitzen ikastea, ikasten eta pentsatzen ikastea, komunikatzen ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, ikaslearen giza alderdiak garatzen ikastea eta egiten eta ekiten ikastea. Helburu horietako azpiatal guztiak izan ditugu kontuan, eta bereziki hauek:

- “Ikasten eta ikasten pentsatzen ikastea” ataletik:*
- a) Modu koherentean eta kritikoan pentsatzen ikastea, eta ohiturak hartzea diziplina, esfortzua, erantzukizuna eta lan eta ikasketa indibidualerako eta taldekakorako teknikak lantzeko, hala, ikasketarekin lotutako eginkizunak eraginkortasunez egiteko eta norberaren garapenerako bitartekoak eskuratzeko. Horrek guztiak bultzatu egin behar du nork bere buruan konfiantza izatea eta ikaslearen sen kritikoa, ekimena, jakin-mina, interesa eta sormena.*

“Komunikatzen ikastea” ataletik:

a) Zuzen, egoki, autonomiaz eta sormenez ulertzea eta adieraztea euskarazko ahozko eta idatzizko testuak eta mezuak, eta horiek erabiltzea komunikatzeko, norberaren pentsamenduak antolatzeko, errealitatea interpretatzeko eta hitz egiteko bete behar diren prozesuei buruzko gogoeta egiteko. Literatura irakurtzeari, lantzeari eta aztertzeari ekitea. Hizkuntzetarako Europako Marko Komuneke B2 maila izango da esparru horretako erreferentzia.

c) Ikaslearen bizi-inguruneke errealitate soziolinguistikoa ikuspegi kritikoaz interpretatzea, eta hizkuntzak sortzeko eta garatzeko eta hizkuntzen arteko harremanak finkatzeko faktoreak zein diren jakitea. Hizkuntzen aniztasuna errespetatzea eta aniztasun hori herrien eta gizabanakoen aberastasun eta eskubidetzat hartzea, interesa eta errespetuzko jarrerak izateko eskubide horren erabilerarekiko eta hizkuntza-normalizazioko prozesuekiko.

d) Informazioko teknologiak eta komunikabideak erabiltzea ikasteko eta jakintza berriak eskuratzeko prozesuan, betiere, hartutako eta sortutako mezuekiko ikuspegi kritikoa izanda.

f) Hitzeko hizkuntza eta arte-, matematika- eta zientzia-hizkuntzak interpretatzea eta modu aktiboan eta kritikoan erabiltzea, komunikazio-ekintza zehatzak egiteko, azalpenak eta arrazoiak emateko, eta norberaren, gizartearen eta izadiaren errealitatea egoki irudikatzen.

“Elkarrekin bizitzen ikastea” ataletik:

f) Euskal herritartzat izatea norberaren burua, kultura askotariko ingurunean, eta balioa ematea euskal hizkuntza eta kulturari edota norberak berezko eta erreferentziazko dituen; hala, ikasleak, identitate anizkunei erreparatuta, nortasun propio bat eraiki behar du, modu inklusiboan. Horrek guztiak erreferentziazko marko komun bat eraikitzen bide eman behar du, pertsonen arteko diferentziak errespetatu eta bizikidetzat erraztuko duena.

g) Euskal Herriko kulturaren eta historiaren oinarriko alderdiak eta arte eta kultura ondarea ezagutzea, balioestea eta errespetatzea, eta xede horiek betetzea gainerako kultura eta gizarteekiko. Kultura eta sozietateen funtzionamenduko mekanismoak eta balioak aztertzea, batik bat, herritarren eskubideei eta betebeharrei dagozkienak, haiek ikuspegi kritikoaz aintzat hartzeko eta haiekiko iritzi eta irizpide pertsonalak izateko.

Bidenabar, UNESCOren «XXI. menderako ikastea» programak (1996) etorkizuneko hezkuntzarako finkatutako lau oinarriak gure egin ditugu: ezagutzen ikastea, egiten ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea eta izaten ikastea.

Batxilergoko helburuak hauexek dira (127/2016 Dekretua):

- a) *Kulturaren elementuak eskuratzen sakontzea, dimentsio guztiak orekatuta, euskaldunetik unibertsalera.*
- b) *Ikasitakoa erabiltzea, modu kontzientean eta integratuan, bizitzaren arlo guztietako egoerak eta problemak konpontzeko eta hobetzeko aukera berriak sortuz, pertsona maila guztietan garatu ahal izan dadin.*
- c) *Ikasleak helduarorako eta bizitza oso baterako prestatzea, gizabanako diren aldetik; bizikidetza harmoniatsua garatzearekin eta gizarte justu eta zuzenago bat eraikitzearekin konprometituak; eta natura zaintzearekin eta garapen jasangarriarekin konprometituak.*
- d) *Goragoko ikasketak egiteko nahiz lanean hasteko prestatzea, berme osoz, eta bizitzan zehar etengabe ikasteko eta prestatzeko motibatzea.*

Helburu didaktiko zehatzagoei begira, esan Batxilergoan «*Euskara eta Literatura*» irakasgaiak hainbat gaitasun lortzea duela helburu. Horietako asko gure ikasmaterialaren bidez lor daitezkeela uste dugu. Honakoak lirateke:

1. Ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko diskurtsoak ulertzea, gizartearen eta kulturaren hainbat esparrutakoak, batik bat ikaskuntzaren eta hedabideen arlokoak, bakoitzaren komunikazio-berezitasunak kontuan hartuz eta haien edukia modu kritikoan interpretatuz, hainbat komunikazio-egoerari ganoraz aurre egiteko.
2. Modu txukun, koherente eta zuzenean adieraztea eta interaktuatzea, ahoz nahiz idatziz, batez ere ikaskuntzaren eta hedabideen arloan, errespetuz, elkarlanean eta espiritu kritikoarekin, hainbat komunikazio-egoerari eta helbururi ganoraz aurre egiteko.
3. Hizkuntzaren osagaiei buruz gogoeta egitea, eta kontzeptu nahiz prozedura egokiak erabiltzea testuak hobeto ulertu, aztertu, iruzkindu eta sortzeko, eta ikasitakoa hobeto transferitu ahal izateko hizkuntzen artean.
4. Literatura-testu erreferentzialak irakurtzen gozatzea, modu autonomoan, beste mundu eta kultura batzuk ulertzeko eta sentsibilitate estetikoan aurrera egiteko.
5. Euskal literaturaren aldi, obra eta egile nagusiak ezagutzea, literatura-testuak hobeto ulertzeko, informazio-iturri analogikoak nahiz digitalak erabiliz, modu kritikoan.
6. Literatura-lanak modu kritikoan interpretatzea eta balioestea, haien arte-izaeraren elementuak identifikatuz eta lan horiek kultura-tradizioarekin lotuz, haien bidez proiektio indibiduala eta kolektiboa ezagutzeko, eta norberaren kultura-nortasuna eraikitzeko.

7. Euskal Autonomia Erkidegoko elebitasuna aztertzea eta interpretatzea, soziolinguistikako ezagueren bidez, era horretan hizkuntzekiko jarrera enpatikoak eta asertiboak sustatzeko, eta euskara erabiltzeko.
8. Eleaniztasuna nahiz kultura-aniztasuna aztertzea eta interpretatzea, soziolinguistikako ezagueren bidez, haiekiko errespetua eta jarrera positiboa izateko.
9. IKTak autonomiaz, modu kritikoan eta etikoan erabiltzea, informazioa eskuratu, hautatu eta prozesatzeko, eta gizarte- eta kultura-bizitzan komunikatzeko eta kooperatzeko.
10. Norberaren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea, beste hizkuntza eta ikasgai batzuetan ikasitako komunikazio-ezaguerak eta -estrategiak transferitzeko, eta autorregulazioa sustatzeko eta gero eta autonomia gehiagoz ikasteko konfiantzarekin.

EDUKIAK

Euskara eta Literatura irakasgairako Batxilergoko 1. eta 2. mailetarako zehaztutako eduki ia guztiakin dator bat gure ikasmateriala, eta bereziki segidan datozenekin:

11

EDUKI MULTZOAK

1.eduki multzoa: Ikasgai eta ikasturte guztien eduki komunak

Oinarrizko zehar-kompetentziak garatzeko behar diren edukiak dira hauek, etapa osoan zehar landu eta ebaluatu beharrekoak. Batetik, ikasleek informazioa, ideiak eta proiektuak behar bezala kudeatzea: informazioa identifikatu, lortu, gorde, berreskuratu, ebaluatu, ulertu, aztertu, azaldu... Ideiak sortu, hautatu, adierazi... Proiektuak planifikatu eta bidegarri bihurtu... Eta, bestetik, euren burua (gorputza, emozioak, alderdi kognitiboa, jokabide morala, motibazioa eta gogo-indarra) erregulatzea. Ahozko komunikazioarekin eta komunikazioarekin lotutakoak landu ditugu batik bat:

- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziaztea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea pertsonekin (enpatia eta asertibitatea).

2.eduki multzoa: Diskurtsoen aniztasuna: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea

Ahozko komunikazioa da gure arretagunea. Ahozko komunikazioarekin lotutako hizkuntza-trebetasunak nahiko baztertuta egon dira eskola-sisteman. Eta beharrezkoa da sistema horrek duen garrantzia azpimarratzea, bai ikasleen komunikazio-gaitasuna oso-osorik gauzatzeko, bai ikasgelan harremanetan jarduteko eta esanahia negoziatzeko; horiek, hain zuzen, funtsezkoak dira eremu guztietan ezagutzaren eraikitze-prozesuan eragiten duten hizkuntza-trebetasun kognitiboak

garatzeko. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko egoera soziolinguistikoa dela eta, eskolak euskararen ahozko komunikazioa indartu behar du, gizartean duen erabilera areagotzeko eta normalizazio-prozesua bultzatzeko.

- Ahozko nahiz ikus-entzunezko testu formalak aztertzea eta haien ezaugarriak ematea, komunikazio-egoeraren arabera: (1) batik bat ikaskuntzaren arloko azalpen-testuak / (2) batik bat hedabideen eta ikaskuntzaren arloko argudio- eta pertsuasio-testuak.
- Ahozko nahiz ikus-entzunezko testuen gaia eta egitura identifikatzea (2. mailan baita erregistroa ere), (1) batik bat ikaskuntzaren arloko azalpen-testuena / (2) batik bat hedabideen eta ikaskuntzaren arloko argudio- eta pertsuasio-testuenak.
- Ahozko testu formalak sortzea –(1) batik bat ikaskuntzaren arloko azalpen-testuak / (2) batik bat hedabideen eta ikaskuntzaren arloko argudio- eta pertsuasio-testuak–, plangintza egin ondoren eta komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatu ondoren.
- Parte-hartze aktiboa eta kritikoa izatea, arau soziokomunikatiboak errespetatuz, (1) ikaskuntzaren arloko elkarrizketetan nahiz eztabaidetan; (2) gai akademikoei, eguneroko gaiei eta lanaren munduko gaiei buruzko elkarrizketa eta eztabaidetan.
- (2) Bakarrizketak eta elkarrizketak diren ahozko testuak sortzeko orduan, argudio-estrategiak ganoraz erabiltzea.
- Ikus-entzunezkoak eta IKTak erabiltzea, modu autonomo eta kritikoan, haien bidez ahozko testu formalak hobeto ulertu eta sortzeko.
- Ahozko testuen ulermena eta sormena arautzeko estrategiak erabiltzea, modu kontzientean.
- Autoebaluazio- eta koebaluazio-estrategiak erabiltzea, modu autonomoan, ahozko erabilerak hobetzeko.
- Edozein hizkuntzatan garatutako ezaguera linguistiko formalak aktibatzea, beste hizkuntzetako ahozko testuak hobeto ulertu eta sortzeko.
- (1) Ahozko diskurtsoen aniztasuna.
- Ahozko erabilera formalen ezaugarriak, (1) batik bat ikaskuntzaren arlokoenak / (2) batik bat hedabideekin lotutako argudio-testuenak.

- (2) Pertsuasio-mezuekiko gogoeta eta jarrera kritikoa, batik bat hedabideetakoak.
- Ahoskera eta intonazio egokiz hitz egiteko interesa, ahozko harremanaren arauak errespetatuz.

3.eduki multzoa: Diskurtsoen aniztasuna: irakurtzea eta idaztea

Ahokotasuna da gure ikasmaterialarekin landu duguna, baina, horretarako, idaztea eta irakurtzea ezinbestean egin beharreko lanak izango dira. Izan ere, ahozko testuak aurrez idatzitakoak izaten dira ia beti. Egitura eta ezaugarri jakinak izaten dituzte, eta aurrez prestatu behar dira. Gainera, edozein gairi buruz dokumentatzeko, beharrezkoa da irakurtzea eta hainbat iturritatik edatea, apunteak hartzea, eskemak egitea... Idatzizko testuak ondo ezagutzea komeni da, ahozkoak kontrolatzeko; elkarren osagarriak dira. Idatzizko komunikazioa zehar-lerroa da gure ikasmaterialean. Horrenbestez, Curriculumeko 3. eduki multzoko atal guztiak izan ditugu kontuan. Hori bai, idatzitakoa gero ahoz emateko garaiari berebiziko arreta jarrita.

4.eduki multzoa: Hizkuntzari buruzko gogoeta

Hizkuntzari buruz hausnartzea oso garrantzitsua da komunikazioaren ezaugarriez jabetzeko eta testuinguru bakoitzean ondo komunikatzen ikasteko. Multzo honetan doaz sistema linguistikoarekin lotutako prozedurak, kontzeptuak eta jarrerak, hizkuntza hobeto ulertzeko beharrezkoak. Izan ere, hizkuntza- eta komunikazio-gaitasunak sendotuko badira, hizkuntza erabiltzeaz gain gogoeta egin behar da hari buruz, eta gogoeta hori nahiko sistematizatua da etapa honetan. Multzo honetako edukiak beste multzoetako edukiekin batera landu behar dira beti.

- Hainbat komunikazio-egoeratarara egokitutako eta ikasgelan landutako testuetan agertzen diren hizkuntza formen erabilera eta esanahia aztertzea eta horri buruz hausnartzea.
- Hainbat eratako unitate linguistikoaren forma eta funtzioa ezagutzea eta aztertzea.
- Ezaguera linguistikoak sistematizatzea eta ganoraz erabiltzea, testuak hobeto ulertu eta sortzeko.
- Hizkuntzari buruz gogoeta egiteko terminologia zuzen erabiltzea.
- Hizkuntzari buruz edozein hizkuntzatan ikasitakoa erabiltzea besteei buruz gogoeta egiteko, eta kalko nahiz transferentzia negatiboak saihesteko.

- Testuinguruaren maila:
 - Azalpen-testuen adierazpen-markak.
 - (1) Azalpen-testuen modalizazio-prozedurak.
 - (2) Iritzi-testuetan objektibotasuna eta subjektibotasuna adierazteko prozedura linguistikoak.
 - (1) Informazioa ulergarriago egiteko prozedurak: birformulatzea, adibideak ematea...
 - (2) Inoren diskurtsoa tartekatzeko prozedura linguistikoak eta paralinguistikoak.
 - Perpausaren modalitatea, (1) batik bat azalpen-testuena / (2) batik bat Iritzi-testuena.
 - Elementu deiktikoak.
 - Erregistroa.

- Diskurtoaren maila:
 - Testuaren koherentzia. Erreferentzia-markoak. (2) Baita ere: auresuposizioak, inferentziak.
 - (1) Azalpen-testuen egiturak.
 - (1) Azalpen-testuen / (2) Iritzi-testuen kohesio-elementuak: lokailuak, markagailuak, erreferentziakidetasun-elementuak, aditz-denborak...
 - Argudio-estrategiak.
 - Iritzi-testuen egiturak.

- Maila morfosintaktikoa:
 - Perpausaren egitura sintaktikoa eta semantikoa, (1) batez ere azalpen-testuenak / (2) batez ere iritzi-testuenak.
 - (1) Azalpen-testuetako / (2) Iritzi-testuetako enuntziatu konplexuen motak.
 - (1) Katetoria gramatikalen ezaugarriak eta funtzioa.

- Maila lexiko-semantikoa:
 - Arau gramatikalak, ortografikoak eta ortotipografikoak.
 - Hizkuntzari buruzko gogoeta norberaren idazlanak erregulatzeko bidetzat hartzea, bai eta ikasteko autonomia hobetzeko bidetzat ere.
 - Arau linguistikoei esker erabiltzaileen arteko komunikazioa errazten dela ohartzea.
 - (1) Azalpen-testuen / argudio-testuen ezaugarri lexikoak.
 - (2) Hitzak eratzeko tresnak.
 - (2) Harreman semantikoak. Denotazioa eta konnotazioa.

5. eduki multzoa: Literatura-diskurtsoa

Idatzizko zein ahozko literatura lantzeko proposamenak egin ditugu gure ikasmaterialean. Literaturaren testuinguruak, formak eta edukiak batzen ditu multzo honek. Euskal Literaturaren XX. mendeko idazle eta lan esanguratsuenak ezagutarazteko bidea egin dugu gure materialarekin. Literatura Garaikidea, ahaztu gabe, noski, literaturako formen eta gaien bilakaera aurreko mendeetako bilakaerarekin lotu behar dela. Ipuin tradizionalen transmisioa ere jorratu dugu.

- Euskal Literaturaren hasieratik XX. mendera arteko lanik esanguratsuenak.
- Hainbat genero eta arotako lan eta pasarte esanguratsuak irakurtzea eta entzutea, banaka nahiz taldean.
- Testu eta pasarte esanguratsuak irakurriz, entzunez eta ikusiz ezagutzea Literaturan errepikatzen diren gaiak, eta denboran zehar izan duten bilakaera.
- Literatura-testuak aztertzea, kontuan hartuz genero bakoitzaren egitura eta adierazkortasun-baliabideak.
- Literatura-lanak konparatzea zineman, musikan eta abarretan izan dituzten moldaerekin, antzekotasunak eta desberdintasunak aztertuz.
- Literatura-testuen azterketa kritikoa egitea, hainbat ikuspuntutatik: testuingurua, mugimenduak, generoak, gaien trataera, genero ikuspegia...
- Literatura-testuen zentzuari buruzko eztabaidetan eta elkarrizketetan parte hartzea.
- Literatura-testuen azterketa eta interpretazioa islatzen duten ahozko nahiz idatzizko lanak egitea, plangintza bati jarraituz.
- Literatura fenomeno komunikatibo eta estetikatzat hartzea, (2) norberaren proiektiotzat, eta errealitate historikoaren eta sozialaren islatzat.
- (1) Literatura komunikazio- eta estetika-fenomenotzat hartzea, norberaren proiektiotzat, eta errealitate historikoaren eta sozialaren islatzat.
- Literatura aberastasun pertsonal eta kulturaltzat hartzea, gozamen-iturritzat eta errealitatea ulertzeko modutzat.

6. eduki multzoa: Hizkuntzaren alderdi soziala

Hauxe da, 2. eduki multzoarekin batera, gehien landu duguna. Hizkuntza bakoitzak mundu ikuskera bat dakar eta bere dimentsio soziala dauka. Hizkuntza guztien aberastasuna da aintzat hartzekoa eta hizkuntzen aldaerak ere bai, hizkuntzen bizitasunaren eta aldakortasunaren adierazle direlako. Euskararen dimentsio sozialaz jabetzeko, hainbat proposamen egin ditugu guk. Euskararen aberastasunaz konturatzeko, batetik; horretarako euskalkien bizitasunari erreparatu diogu. Bestetik, euskararen historia aztertu dugu, normalkuntza-prozesuari lotuta: euskarazko hedabideen sorrera eta garapena.

- Euskalki eta dialekto nagusiak identifikatzea eta aztertzea, ahoko nahiz idatzizko testuen bidez. Ezaugarriak ezagutzea.
- Jarrera linguistikoak eta harreman sozialak identifikatzea eta haiei buruzko gogoeta egitea, banaka nahiz taldean.
- Hizkuntzen arteko ukipen-fenomenoak aztertzea (2) eta haiei buruz hausnartzea.
- Mundu garaikideko eleaniztasuna nahiz kultura-aniztasuna ontzat jotzea eta aztertzea, eta hartaz gogoeta egitea; arreta berezia jarriz Euskal Herriaren egoeran. Soziolinguistikako kontzeptuak.
- (1) EAEko egungo egoera soziolinguistikoa aztertzea, eta hartaz eta denboran zehar izan duen bilakaeraz gogoeta egitea.
- (1) Euskal Herriaren egoera soziolinguistikoa.
- (2) Hizkuntzaren normalkuntza-prozesuak.
- (2) Hizkuntzak garatzeko, sustatzeko eta normaltzeko erakundeak.
- (2) Hizkuntzen aldaera soziokulturalak. Hizkuntza estandarra. Arau linguistikoa.
- Pertsonak beren artean erlazionatzeko bidetzat hartzea hizkuntzak, bai eta komunitate baten nortasun-ikurtzat ere.
- Eskolako eta gizarteko hainbat esparrutan euskara erabiltzeko joera proaktiboa.
- Errealitatea eraiki eta islatzean hizkuntza ez-sexista erabiltzearen garrantziaz hausnartzea.
- Aurreiritzi linguistikoekiko jarrera kritikoa.

Euskara eta Literatura ikasgaiarekin lotutako **10 fitxa pedagogiko** berri prestatu ditugu Batxilergoko 1. eta 2. mailetarako, adinekoen zein gazteen testigantzak oinarri hartuta. **Proposamen horiek bost gai nagusitan banatuta daude, eta atal bakoitzak bere fitxa didaktikoak ditu.**

GAI NAGUSIAK

17

A. EUSKARAREN ABERASTASUNA

Euskalkiak landu ditugu atal honetan. Euskalkiek eta euskara batuak elkarren osagarri izan behar dute, eta, horretarako, beharrezkoa da biak ezagutu eta balioestea, eta bien erabilera sustatzea. Herri-hizkerek naturaltasuna eta adierazkortasuna ematen diote hizkuntzari. Euskalkiekin lotutako lau bideo prestatu ditugu, gazteen zein adinekoen testigantzekin.

Gaiak:

- Gazteak euskalkian
- Nafarrera
- Erdialdeko euskalkia: gipuzkera
- Nafar-lapurtera

B. LITERATURA IDATZIA

XX. mendeko euskal literatura da atal honetako bi bideoren gaia. Literatura idatzia jorratu dugu, baina abiapuntu moduan idazle eta adituen testigantzak erabilita. Hainbat idazle eta aditu elkarrizketatu ditugu, literaturaren historia haien ahotik ezagutzeko. XX. mendeko idazle nagusien berri izateko modu polita da. Hori bai, gaur egungo literatura aztertze bidea ere eskaini dugu; baita ikasleak idazle-lanetan jartzekoa ere. Izan ere, idazleei euren idazketa-teknikei buruz galdetu diegu eta informazio baliagarri horrekin osatu dugu bideoetako bat.

Gaiak:

- Literatura modernoaren hastapenak: kostunbrismotik modernitatera
- Literatura: 70eko hamarkada
- Idazketa tailer baterako aholkuak

C. AHOZKO LITERATURA

Ahoz aho eta belaunaldiz belaunaldi iritsi zaigun ondarea da atal honetan landu duguna. Ipuinen mundua ezagutuko dugu: ipuin tradizionalak (ahoz aho transmitituak) zein gaur egungoak (ahoz kontatzeko idatzitakoak bereziki). Tradizioa ezagutzeaz gainera, tradizio hori biziberritzea ere bada asmoa, eta, ahozkotasanari lotuta, sormena bultzatzea.

Gaiak:

- Ipuinen transmisioa

D. EUSKARAREN NORMALKUNTZA

Euskara normalkuntza-prozesuan dagoen hizkuntza bat da, hizkuntza gutxitua. Euskararen historian gorabehera handiak izan dira. Esanguratsuak izan diren hainbat gertaera ezagutu eta aztertze bidea eman digu atal honetarako prestatu dugun bideoak: euskarazko prentsaren historia aztertu dugu, protagonistei eta adituei jasotako testigantzen bitartez. Alderdi soziolinguistikoa lantzeko ere balio du.

Gaiak:

- Euskarazko prentsaren garapena

E. AHOZKO TESTU-GENEROAK

Ahozko komunikazioa lantzeko, ahozko testu-generoak ezagutu beharra dago. Ahozko eredu beharra nabarmena da hezkuntzan, ikasmaterialak idatzizkoan oso oinarrituta daudelako, eta Ahotsak.eus proiektuan hainbat testu-generoren adibideak ditugu, jardun naturalaren emaitza direnak. Batxilergoko 2. mailan iritziak eta argudioak lantzen dira, eta horixe da jorratu dugun gaia. Eredu batzuk aukeratu ditugu. Haiek oinarri hartuta, ikasleak testu-generoen ezaugarriak zein testuinguruak aztertze eta identifikatzeko gai izatea eta beraiek testu-generoak sortzeko gai izatea nahiko genuke.

Gaiak:

- Iritziak eta argudioak

Ikus ditzagun fitxa didaktikoak banan-banan, bakoitzarekin zer landu daitekeen:

1. Gazteak euskalkian (Euskararen aberastasuna)

Euskalki nagusien erakusleiho txiki bat da prestatu dugun bideoa. Bost euskalkitako adibideak batu ditugu: euskalki horietako hainbat aldaera, gazteen ahotan. Gazteek eta helduek ez dute berdin hitz egiten: zein dira gazteek gorde dituzten eta darabiltzaten hitz eta esalmolde bereziak? Euskara batuaren eraginik igartzen al da beren hizkeran? Eta erdarena (gartzelania eta frantsesa)? Euskalkien ezaugarriak ezagutzeko eta euskalkien aberastasunaz jabetzeko balio du, eta baita Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa ezagutzeko ere. Euskalkiak aztertzeke, ezaugarriak identifikatzeko eta adibide gehiago bilatzeko proposamenak egin ditugu. Baita euskalkietako hitzekin jolasteko aukerak eman ere.



- Lantzen diren kontzeptuak: euskalkiak, dialektoak, aldaerak, mendebaldeko euskara (bizkaiera), erdialdeko euskara (gipuzkera), nafar-lapurtera, nafarrera, zuberera, ahozkotak
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Euskarari buruz hausnartzeko interesa
 - Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Herri-hizkerak ezagutu, erabili eta balioesteko gogo
 - Euskalkien aberastasunaz jabetu eta haien erabilera sustatzeko nahia

2. Nafarrera (Euskararen aberastasuna)

Nafarrera bost euskalki nagusietako bat da. Bere barnean daude Nafarroako hizkerarik gehienak, bazter batetik bestera alde nabaria dagoen arren. Adibide egokienak aukeratu ditugu, euskalki horren ezaugarrien erakusle diren bideo-pasarteak, gazteenak zein adinekoenak (euskaraz alfabetatu gabeak, euskara ondoen gorde dutenak dira, eta kasu batzuetan, beren herrietako euskalkidun azken hiztunak). Nafarrera aztertzeke, ezaugarriak identifikatzeko eta adibide gehiago bilatzeko proposamenak egin ditugu.



- Lantzen diren kontzeptuak: euskalkiak, dialektoak, aldaerak, mendebaldeko euskara (bizkaiera), erdialdeko euskara (gipuzkera), nafar-lapurtera, nafarrera, zuberera, ahozkotasuna
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Euskarari buruz hausnartzeko interesa
 - Denen iritzia arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Herri-hizkerak ezagutu, erabili eta balioesteko gogoia
 - Euskalkien aberastasunaz jabetu eta haien erabilera sustatzeko nahia

3. Gipuzkera. Garai bateko garraioak. (Euskararen aberastasuna)

Erdialdeko euskalkia, ‘gipuzkera’ izenez ere ezaguna, Gipuzkoan hitz egiten da bereziki, baina baita Nafarroako herri bakan batzuetan ere; hori bai, ez Gipuzkoa osoan: zenbait herritan mendebaldeko euskara (‘bizkaiera’) darabilte. Erdialdeko euskara esangura handikoa gertatu da euskararen ibilbidean, bertan oinarritu delako, gehienbat, euskara batua. Adibide egokienak aukeratu ditugu, euskalki horren aldaerak ezagutzera emateko: ezaugarri nagusien erakusle diren bideo-pasarteak hautatu ditugu, adinekoenak —euskaraz alfabetatu gabeak, euskalkia ondoen gorde dutenak direlako—. Garai bateko garraioei buruz dihardute guztiek ere; hala, bidenabar, gai hori jorratzeko aukera ere izango dute ikasleek. Zein dira gipuzkeraren eta euskara batuaren arteko desberdintasunak? Gipuzkera aztertzeko, ezaugarriak identifikatzeko eta adibide gehiago bilatzeko proposamenak ere egin ditugu.

- Lantzen diren kontzeptuak: euskalkiak, dialektoak, aldaerak, mendebaldeko euskara (bizkaiera), erdialdeko euskara (gipuzkera), nafar-lapurtera, nafarrera, zuberera, ahozkotasuna
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Euskarari buruz hausnartzeko interesa
 - Denen iritzia arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Herri-hizkerak ezagutu, erabili eta balioesteko gogoia
 - Euskalkien aberastasunaz jabetu eta haien erabilera sustatzeko nahia



4. Nafar-lapurtera euskalkia (Euskararen aberastasuna)

Historian zehar Lapurdiko eta Nafarroa Behereko hizkerak bereizi egin diren arren, haien arteko aldea txikia da egun eta multzo berean sartu ohi dira: nafar-lapurtera. Adibide egokienak aukeratu

ditugu, euskalki horren ezaugarrien erakusle diren bideo-pasarteak, bereziki adinekoenak (euskaraz alfabetatu gabeak, euskara ondoen gorde dutenak direlako). Nafar-lapurtera aztertzeke, ezaugarriak identifikatzeko eta adibide gehiago bilatzeko proposamenak egin ditugu.

- Lantzen diren kontzeptuak: euskalkiak, dialektoak, aldaerak, mendebaldeko euskara (bizkaiera), erdialdeko euskara (gipuzkera), nafar-lapurtera, nafarrera, zuberera, ahozkotatua
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Euskarari buruz hausnartzeko interesa
 - Denen iritzia arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Herri-hizkerak ezagutu, erabili eta balioesteko gogoia
 - Euskalkien aberastasunaz jabetu eta haien erabilera sustatzeko nahia



5. Literatura modernoaren hastapenak: kostunbrismotik modernitatera (Literatura idatzia)



Euskal literaturaren XX. mendeko bilakaera ezagutzeko eta ulertzeko bidea ematen du prestatu dugun bideoak. Nolako zen gerra aurreko literatura? Zeintzuk izan ziren euskarazko literatura modernizatu zuten lehen literatura-lanak? Zer ezaugarri zituzten? Nolakoak ziren sasoi hartako kultura-giroa eta euskararen egoera? Bereziki 60ko hamarkadan ipini dugu begirada. Garai hori ongi ezagutzen duten idazle eta adituak elkarrizketatu ditugu, eta haien testigantzak izan dira bideoaren bizkarrezurra. Idazleen eta literatura-adituen ahotsak jaso ditugu (Ramon Saizarbitoria, Arantxa Urretabizkaia, Harkaitz Cano etab.). Orduko eta gaur egungo literatura-lanak irakurri eta aztertzeke proposamenak egin ditugu, eta baita sormen-lanak bultzatu ere.

- Lantzen diren kontzeptuak: kostunbrismoa, modernotasuna, poesia soziala, eleberria, euskal literatura, kultura-mugimendua
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Denen iritzia arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Garai bateko bizimodua eta kultura ezagutzeko interesa
 - Literatura-ondarea ezagutu, erabili eta balioesteko gogoia
 - Irakurtzeko zaletasuna
 - Idazteko eta literatura-lanak sortzeko irrika

6. Literatura: 70eko hamarkada (Literatura idatzia)

Euskal Literaturaren XX. mendeko bilakaera ezagutzeko balio du prestatu dugun bideo honek ere. Aurrekoaren jarraipena da. Bereziki 70eko hamarkadan ipini dugu arreta. Euskarazko literatura modernizatu zuten lehen lanen ostean, zer idazle eta lan plazaratu ziren? Zer berritasun ekarri zuten? Nolakoa zen kultura-giroa? Garai hori ongi ezagutzen duten idazle eta adituak elkarrizketatu ditugu eta idazle ezagunen ahotsak jaso (Harkaitz Cano, Bernardo Atxaga, Arantxa Urretabizkaia...). Orduko eta gaur egungo literatura-lanak irakurri eta aztertzeke proposamenak egin ditugu, eta baita sormen-lanak bultzatu ere.



- Landu diren kontzeptuak: kostunbrismoa, modernitatea, poesia, eleberria, euskal literatura, haur eta gazte literatura, literatura-banda, kultura-mugimendua
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Garai bateko bizimodua eta kultura ezagutzeko interesa
 - Literatura-ondarea ezagutu, erabili eta balioesteko gogoia
 - Irakurtzeko zaletasuna
 - Idazteko eta literatura-lanak sortzeko irrika

7. Idazketa-tailer baterako aholkuak (Literatura idatzia)

Nola sortu istorio bat? Nondik hasi orri zuriaren aurrean gaudenean? Idazle bakoitzak bere teknikak eta inspirazio-iturriak ditu. Idazteko teknikei buruzkoa da prestatutako bideoa. Hainbat idazleren testigantzak batu ditugu (aurreko bi bideoetan azaltzen diren idazleenak, besteak beste). Aholkuak eskatu dizkiegu, idazle hasiberrientzat. Hainbat idazleren lanak ezagutzeko eta irakurketa bultzatzeko balio du, eta, nola ez, ikasleek beren lan txikiak sortzeko ere bai.

- Lantzen diren kontzeptuak: kostunbrismoa, modernitatea, poesia, eleberria, euskal literatura, haur eta gazte literatura, literatura-banda, kultura-mugimendua
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Literatura-ondarea ezagutu, erabili eta balioesteko gogoia
 - Irakurtzeko zaletasuna
 - Idazteko eta literatura-lanak sortzeko irrika



8. Ipuinen transmisioa (Ahozko literatura)

Ahozko literatura ahoz aho transmititzen dena da. Ipuin eta kondaira asko hala iritsi dira gureganaino. Ipuinen mundu miragarrian barneratu gara bideo honen bitartez, eta transmisio-moduak aztertu ditugu. Ahotsak.eus proiektuan adinekoen ahotik jasotako ipuinen artean bi aukeratu, eta bi ipuin-kontalariri eman dizkiegu, euren bertsioa egin dezaten. Ipuin horiek kontatzen grabatu ditugu. Hala, ipuin beraren hiru bertsio ditugu aztergai. Idatzitako ipuin guztiak ez dira egokiak ahoz kontatzeko (ahozko literatura vs literatura idatzia); bereizketa hori ere jorratu dugu. Ipuinen irakurketa ozena eta ipuin-kontakteta: ikasleei bi moldeen ezaugarriak ezagutzeko eta lantzeko bidea eskaini nahi diegu.



Ipuinen transmisioa

- Lantzen diren kontzeptuak: ipuina, istorioa, kondaira, transmisioa, irakurketa ozena, ipuin-kontakteta, ipuin-kontalaria, ahozkotasuna, ahozko literatura
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Garai bateko bizimodua eta kultura ezagutzeko interesa
 - Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Ahozko jarduna ezagutu, erabili eta balioesteko gogoia
 - Ipuinak eta istorioak entzuteko nahia
 - Fikziozko istorioak sortzeko eta kontatzeko irrika

9. Euskarazko prentsaren garapena (Euskararen normalkuntza)

Euskarazko prentsaren sorreraz eta garapenaz dihardugu bideo honetan, esparru horretan euskararen normalizazio-prozesuan eman diren urratsez, hain zuzen ere. Horretarako, hedabideetan aitzindari izan diren hainbat pertsona elkarrizketatu ditugu, mundu hori bertatik bertara ezagutzen dutenak. Begirada historiko horrek nondik gatozen ikusteko balio digu, euskararen egoeraren bilakaera ezagutzeko (alderdi soziolinguistikoa, besteak beste). Gainera, prentsako testu tipologia eta bakoitzaren komunikazio-berezitasunak ezagutzeko bidea ematen du. Ikasleak prentsako testu-moldeak sortzera ere bultzatuko ditugu. Batxilergoko 2. mailan lantzeko aproposa.



Prentsaren garapena

- Lantzen diren kontzeptuak: hedabidea, komunikabidea, prentsa, ikus-entzunezkoa, komunikazio-egoera
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Garai bateko bizimodua eta kultura ezagutzeko interesa
 - Euskararen historia ezagutzeko gogoia, hedabideen jarduna bereziki
 - Hedabideetarako testu eta diskurtsoak landu eta sortzeko irrika
 - Euskara zaindu eta sustatzeko grina

10. Iritziak eta argudioak (Ahozko testu-generoak)



Jean-Michel Adam-en arabera (1987), narrazioa, deskribapena, argudioa, azalpena eta instrukzioa dira ahozko testu-generoak. Argudiozko testuen barruan, berriz, iritzia dago. Argudioak eta iritziak aztertzen ditugu bideo honen bitartez: zer ezaugarri dituzten eta zer formula erabiltzen diren. Horretarako, Ahotsak.eus proiekturako elkarrizketatutako gazteen testigantzak erabili ditugu: haien iritzi eta argudioak. Batxilergoko 2. mailan lantzeko aproposa da, hedabideen arloko argudio-testuak jorratzeko. Iritzia ahoz (eztabaida formalak) zein idatziz (iritzi-artikuluak) emateko proposamenak egin ditugu. Nork bere

iritzia defendatzeko argudioak garatzea, eta gainerakoen iritziak ulertu eta errespetatzea, eztabaida formalen bidez batez ere.

- Lantzen diren kontzeptuak: elkarrizketa, eztabaida, argudio-testua, iritzi-artikuluak, testu-generoa, bizikidetzak, ahozkotasuna, hedabideak, negoziaketa, adostasuna, desadostasuna
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Denen iritziak arretaz entzun eta errespetatzeko borondatea
 - Elkarrizketarako eta bizikidetzarako jarrera
 - Ahozko eta idatzizko testu-generoak ezagutu eta lantzeko gogoia
 - Nork bere iritzia defendatzeko argudioak garatzeko irrika

NOIZ ETA NOLA ERABILI

- *NOIZ erabili:*

Euskara eta Literatura irakasgaia ematerakoan erabiliko da ikasmaterial hau, Batxilergoko 1. eta 2. mailatan. Fitxa batzuetan bai, baina gehienetan ez dugu zehaztuko bideo bakoitza Batxilergoko zein mailatan erabili, kasuan kasu eta ikastetxex ikastetxe aldatu egingo baita hori. Irakasleak erabakiko du.

- *NOLA erabili:*

Irakasleak Interneten dauka ikasmateriala, lizentzia librearekin erabilgarri. <http://ikasgelan.ahotsak.eus/> atarian aurkituko du, **Gaiak** atalean, hain zuzen. Euskal Herriko ikastetxe orok du erabiltzeko aukera. Asko dira bideo-fitxak, gero eta gehiago. Horregatik, bost ataletan banatuta dagoen bilaketa-sistema bat garatu dugu, bakoitzak interesatzen zaiona errazago aurki dezan:

- Motak
- Mailak
- Gaiak
- Ikasgaiak
- Proiektuak

Erabiltzaileak, bere interesen arabera, laukitxoetan (bakarrean edo nahi bestetan) klik egiteko aukera dauka. Adibidez:

- “EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan” (proiektua)
- Euskara eta Literatura (ikasgaia)
- Ahozko testu-generoak (gaia)


-Motak. Bi motatako bideo-fitxak daude: 1. Fitxa didaktikoak; 2. Kantak eta jolasak. Ikasmaterialekoak fitxa didaktikoak dira.

-Proiektuak. Hainbat proiektutarako prestatutako bideo-fitxak ditugu.

“EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan” proiektua aukeratuz gero, proiektu horretarako prestatu ditugun lanketa guztiak agertuko zaizkigu.

-Ikasgaiak. Irakasgaien zerrendan, nahi duena aukera dezake irakasleak. Adibidez, “Herritartasunerako Hezkuntza”n klik eginez gero, irakasgai horrekin lotutako fitxa guztiak agertuko zaizkio: 20 fitxa.

-Gaiak. Gaien zerrendan, gai bat aukera dezake irakasleak. “Genero berdintasuna” aukeratuz gero, adibidez, gai horrekin lotutako fitxak agertuko zaizkio: 16 fitxa.



-Mailak. Etapa bakoitzean zer fitxa dauden ikusteko aukera ere badauka irakasleak. Adibidez, DBHrako edo Batxilergorako zer fitxa didaktiko dauden.

Webgunean eginiko bilaketa ororen emaitza ikus-entzunezko bat izango da beti. Eta hantxe izango du irakasleak beharrezko informazio guztia: bideoa, laburpena, proposamen didaktikoa, informazio osagarria... Adibiderako, ikus fitxa hau: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/euskararen-transmisioaren-etena>

Bideoa eta proposamenak ikusita, irakasleak erabakiko du nola erabili: proposatzen diren jarduerak bere egin, beste batzuk prestatu edo zer lanketa egin nahi duen eta zenbat denbora eskaini gai horri. Unean uneko egoerari, mailari eta ikasle-taldeari egokituta hartuko ditu erabakiak, ikasleekin adostasunak bilatuta.

Nahi izanez gero, irakasleek zein ikasleek ikus-entzunezkoak euren ordenagailuetara jaisteko aukera dute. Gainera, ikus-entzunezkoek transkripzioa daukatenez, testua modu errazean lortzeko aukera dago, inprimatu eta ikasleei emateko moduan.

Irakasleek eta ikasleek materialari buruzko iritzia emateko eta ekarpenak egiteko aukera dute webgunean bertan uneoro. Ikasmateriala erabilia sortutako ekoizpenak partekatzeak aukera ere bai. Hala, aldaketak egiten eta materiala hobetzen joango gara etengabe. Interaktiboa izango da.

PROPOSAMEN PEDAGOGIKOAK: planteamendu didaktikoa

Gure fitxa didaktikoak ez dira Sekuentzia Didaktikoak, baina Sekuentzia Didaktikoen izaera eta metodologia kontuan hartuta prestatu ditugu (Dolz & Schneuwly 1997); horrenbestez, SDak sortzeko bidea ematen dute. Sekuentzia Didaktikoak helburu konkretu eta erreal bati erantzuteko jarduera-multzoak dira. Guk bideoekin lotutako jarduerak proposatzen ditugu eta baita helburu konkretuak ere (ahozko ekoizpenak batik bat, hainbat bitarteko erabiliz eta azken helburuetarako hainbat euskarri erabiliz); eta ebaluazio-irizpideak ere bai. Bidenabar, materiala eta ikaste-prozesua esanguratsuak izatea bermatzen dugu. Irakaslearen esku dago jarduera horiek harikaldtu, gailan sakondu eta egokia iruditzen zaion ekoizpen erreal batekin amaitzea. Gure proposamen didaktikoak irekiak dira, eta irakasleak nahi bezala molda ditzake.

Landuko diren jarduerak egitura kooperatiboak erabiliz gauzatzea proposatzen dugu (Kagan 1999). Ikasten ari diren berdinen arteko interakzioa sustatzen da, benetako ideien elkartrukea eta eztabaida. Adimen kritikoa, objektibotasuna eta hausnarketa diskurtsiboa garatzen dira, taldelanean. Ikasketa kooperatiboaren printzipioak:

- Elkardependentzia positiboa.
- Aurrez aurreko interakzioa.
- Taldearen egitura/antolaketa kooperatiboa.
- Bakoitzaren, taldearen eta prozesuaren ebaluazioa.

Fitxa pedagogikoen oinarria testigantzez osatutako hamar bideo dira. Batxilergoko 1. eta 2. mailetan *Euskara eta Literatura* irakasgaiari lantzen diren edukiei erreparatuta osatutako ikus-entzunezko multzoa. Bideo horiek bereziki Ahotsak.eus dute oinarrian; gazteen zein adinekoen testigantzak.

Bideoak **“Proposamen pedagogikoa”** izeneko atala du beti. Atal nagusia hori da, eta bertan bideoarekin lotutako jarduera-ereduak proposatzen dira. Bestalde, fitxa pedagogikoan informazio gehiago ere izan daiteke (irakasleentzat egokia eta baliagarria izango dela ikusiz gero jartzen duguna): testua, informazio osagarria, lotura interesgarriak, argazkiak...

Ikus ditzagun zehaztasun gehiagorik fitxako atalak:

A- “Proposamen Pedagogikoa” atala:

Ikasleek garatu beharreko oinarriko gaitasunekin lotuta egongo dira proposamen pedagogikoak. Ikasleen autonomia, sormena, ikerketa, lan kooperatiboa eta ikasten ikasteko estrategiak

bultzatuko dituzte. Proposamen pedagogiko guztietan, lehenengo eta behin, hauxe jartzen dugu: proposamen horrekin ikasleengan zein jarrera sustatzea dugun helburu. Adibidez, Euskararen transmisioaren etena fitxan hauek datoz:

- *Garai bateko bizimodua eta kultura ezagutzeko interesa*
- *Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa.*
- *Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea*
- *Ahozko ondarea ezagutu eta balioesteko gogoa*
- *Bizikidetzarako eta elkarlanerako asmoa*
- *Euskara zaindu eta sustatzeko grina*

Jarduera proposamenak bideoarekin lotuta daude, eta **hiru alditan** banatuta. Aldi bakoitzerako jarduera batzuk proposatuko ditugu:

1. Bideoa ikusi aurretik egitekoak:

- Aurre-ezagutzak aktibatu
- Erreferentziak eman
- Iritziak jaso (galderak, jolasak, dinamikak)
- Hipotesiak egin

2. Bideoa ikusi bitartean egitekoak:

- Aurre-ezagutzak konparatu
- Ulermenarekin lotutako zalantzak argitu eta hiztegia landu

3. Bideoa ikusi ondoren egitekoak:

- Ulermena ziurtatu
- Iragana eta oraina konparatu (galderak, jolasak, dinamikak)
- Gaur egungo egoerari begiratu. Hausnarketa eragin (galderak, jolasak, dinamikak)
- **Azken ekoizpena:** hainbat ekoizpen proposatzen ditugu aukeran. Hamaika azpi-ataletan sailkatu ditugu ekoizpen proposamenak:

“Testigantza bila”. Ahotsak.eus webgunean testigantza gehiago bilatzea, adibidez herrikoak, gai horri buruz gehiago jakiteko eta gertuago sentitzeko.

“Zu zeu elkarrizketatzaile”. Ikasleek elkarrizketak egitea, etxeko eta gertuko egoera ezagutzeko. Bideoz grabatu, eta ondoren hainbat modutara aurkez daiteke, ikastetxean zein herrian zabaltzeko.

“Hitzen arrastoan”. Testigantzen barrunbeak aztertzea, alderdi linguistikoa bereziki, eta hitz aproposak aukeratuz nahi duguna deskribatzea, azaltzea...

“Historia egiten”. Ikerketa eginez, historiara begiratzea, gai horrek izan duen garapena ezagutzeko aukera izateko.

“Gaur egunera begira”. Gaur egungo egoerari begiratzea, atzokoa eta gaurkoa alderatu ahal izateko.

“Mundu zabalean”. Mundura begira jartzea, beste toki batzuetan zer gertatzen den jakiteko eta gaia bere osotasunean ulertzeko.

“Eman iritzia”. Gai horri buruz hausnartzea, nor bere iritzia eraikitzeko.

“Ika-mika”. Norberak bere iritzia defendatzeko argudioak garatzea, eta gainerakoen iritzia ulertu eta errespetatzea, eztabaida formalen bidez batez ere.

“Sormena lagun”. Irudimena lantzeko ariketak, sormena bultzatzen dutenak, artearen bidetik (ilustrazioa, komikia...) eta *brainstorming* edo ideia ekaitzak eta lehiaketak sustatuz.

“Bestearen azalean”. Besteen azalean jartzea, rol jokoen bidez, azalpenak emanez edo antzerkia eginez enpatia lantzeko.

“Jolasten”. Jolasa erabiliko da, eskulanak eta beste, jolastuz ikasteko.

- **Ekoizpena burutu eta partekatu.** Azken ekoizpenean ahozotasuna lantzea da gure erronka. Ahozkoari ematea garrantzia. Horrenbestez, ahozko jardueraren bat egingo dute ikasleek, gelakideei beraien lanaren emaitza ezagutarazteko (azalpena, antzezlanak, eztabaida, iritzia ematea, ikarkurketa ozena, ipuin-kontaketa...), nahiz eta egindako

lanaren oinarria sarri idatzizkoa izan. Jarduerak laburrak dira eta askotan bideoz grabatzea proposatzen dugu (ondo egindakoez eta hobetu beharrekoek jabetzeko, eta etorkizuneko beste ekoizpen batzuekin alderatzeko). Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea komeni da.


- **Grabazioak ikusi eta ebaluatu.**

Ebaluazio-irizpideak. Fitxa guztietan jartzen ditugu, ikasleak ebaluatzeko eta ikasleen autoebaluaziorako irizpideak.

B- Gainerako atalak:

Atal hauek ere badituzte fitxek:

- **Testua.** Grabazioaren edukia, idatziz, ulermena errazteko. Irakasleak testua inprima dezake, eta ikasleei banatu, bideoa hobeto ulertzeko lagungarria gertatuko zaiela iruditzen bazaio.
- **Testuingurua.** Gaiari kokatzeko balio duen informazioa, jakingarriak: testuingurua, historia, azalpenak... Eta gaiarekin lotutako beste bideo batzuen loturak: Ahotsak.eus webgunekoak, Ikasgelan webgunekoak zein Interneteko bestelako material interesgarriari buruzko erreferentziak.
- **Argazkiak.** Ikasmaterialeko proposamenek hala eskatzen dutenean, argazkiak ere jartzen ditugu fitxetan. Adibiderako, ikus [Bertsolaritzaren garapena](#) fitxa.



PROPOSAMEN PEDAGOGIKOAK

1. Gaiak: Gazteak euskalkian. Euskararen aberastasuna.

Helbidea: <https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/gazteak-euskalkian>

The screenshot shows the website interface for 'ahotsak IKASGELAN'. At the top, there are navigation tabs: 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Materiala', and 'Euskalkitegia'. The main heading is 'Gazteak euskalkian'. Below the heading, there is a video player showing two young women talking. To the right of the video player, there is a metadata box with the following information:

- Maiak:** Batxilergoa
- Proiektuak:** EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
- Ikasgaiak:** Euskara eta literatura
- Gaiak:** Euskara

At the bottom of the metadata box, there are two lines of text: '0 puntu 5 izarreko maximoik' and '0 iritzi guztira'.

Proposamen pedagogikoa

Bideoa ikusi aurretik:

1. Gaiaren aurkezpena egingo dugu. Gazteak eta euskalkiak izango da hizpidea, aurre-ezagutzak aktibatzen. Gisa honetako galderak egin ditzakegu:

- Zer euskalki ezagutzen dituzue? Zer iritzi duzue euskalki bakoitzari buruz? Zuentzat zein da zailena ulertzeko?
- Euskalkirik baldin baduzue, nolakoa iruditzen zaizue? (Zaila/erraza, polita/itsusia...).
- Zer harreman duzue beste euskalki batzuetako hiztunekin? Elkar ulertzeko arazorik bai?
- Gazteek eta adinekoek berdin hitz egiten al dute? Zuen ustez, zer alde daude?

Euskalkien gaineko aurreiritzi eta usteei buruz hausnartzeko, bideo labur hau ikus dezakegu: [Euskalkiei buruzko iritziak](#).

Nongoa da euskararik onena bideoan agertzen direnentzat? Beraiek nongoak dira? Zuen ustez, garbi hitz eaiten al dute?

32

[Euskalkitegia jokoan](#) arituz, ikasleak euskalkiekin zer moduz moldatzen diren ikus dezakegu. Ea zenbat asmatzen dituzten!

Bideoa ikusi bitartean:

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Ikasleek euren arreta erakarri duten pasarteak gogoan har ditzatela.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Adibidez, ulertzeko zailak diren euskalkietako hitzak: *trufatu* (zub. iseka egin, burla egin), *biherra* (bizk. lana), *aitzineko* (naf. aurreko), *arrunt* (naf. oso), *gasna* (zub. gazta), *atxemaiten* (naf-lap. igartzen, nabaritzen)...
4. Bideoa behar adina aldiz ikusi, informazio guztia barneratzeko.

Bideoa ikusi ondoren:

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu, denok elkarrekin. Hona hemen horretarako balio dezaketzen galdera batzuk:

- Testigantza guztiak ondo ulertu dituzue? Gustatu zaizue nola hitz egiten duten?
- Zer euskalki dira euskara batutik gehien aldentzen direnak? Zertan igartzen da?
- Zer testigantza izan dira ulertzeko zailenak? Zergatik? Aipatu ezaugarri batzuk.
- Euskalkidunak bazarete: zer euskalki edo azpieuskalki da zuena? Aipatu ezaugarri batzuk.
- Gai aldetik, ba al dago interesgarria iruditu zaizuen testigantzarik? (Adibidez, Iparralde-Hegoalde harremana). Gai horri buruzko iritziak partekatu.
- Aldatzen al duzue zuen hizkera beste euskalki batzuetakoek errazago ulertzeko?
- Gazteek ba al dute euskalkiak erabiltzeko joerarik?

Euskalkiari eutsi ala moldatu bideo-pasartean, norberaren euskara moldatzeaz dihardute. Beste honetan, berriz, Iparraldeko gazteen hizkeraz (iturria: eitb): Etxepare Lizeoko ikasleen euskara.

3. Jolas bat egingo dugu, euskalkien arteko diferentziaz ohartzeko eta euskalkien aberastasunaz jabetzeko. Euskalkietako hitzak izango dira lehengai, tokian tokiko aldaerak, sinonimoak. Hona hemen adibiderako hitz batzuk:



ONDO	
TXIMELETA	
TRIKU	
KORRIKA	
POLIKI	

Taldetxoka banatu, eta lehiaketa bat egin daiteke, ea zer taldek topatzen dituen kontzeptu bera adierazteko hitz desberdin gehien. Hori bai, denbora mugatua izango da eta ezingo dute Internet erabili!

Bideo hau ere ikus daiteke, girotzeko (jatorria: Eitb): [Nola esaten da 'ligatu' Maulen, Bilbon eta Azpeitian?](#)

- 4. Azken ekoizpena.** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Lau adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezkoko bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.

- *"Hitzen arrastoan"*. Bideoan agertzen diren euskalkietako ezaugarriak sakonago erreparatuko diegu orain. Testua banatuko diegu ikasleei (ikus "Testua" atalean), eta euskalkien ezaugarriak aztertuko dituzte. Talde txikietan egingo dute lan, eta ondoren partekatu, ahoz; talde bakoitzak idazkaria eta bozeramailea izendatuko ditu.
- Euskalki bakoitzaren oinarriko bereizgarrietako batzuk ikus ditzakegu lehenengo (inprimatuta ematea da aukera bat), lana errazteko: [Euskalkien ezaugarriak](#). Euskalkien mapan euskalkien mugak begiratu, eta bideoan agertzen diren herriak Euskal Herriko mapan kokatzea ere ondo legoke, non dauden eta zer eragin izan ditzaketan ikusteko.

Ondoren, taula hau baliagarria gerta dakieke. Bideoa behin baino gehiagotan ikustea komeni da, hitzei ez ezik fonetikari ere erreparatzeko:

	LEXIKOA: HITZ BEREZIAK	ADITZA ETA MORFOLOGIA	FONETIKA: AHOSKERA (z>s, ts, tz, ü, r)	ERDAREN ERAGINA (gazt/fr)
GIPUZKERA Tolosa Zarautz Hondarribia				
BIZKAIERA Markina-Xemein Elgoibar Muxika				
NAFARRERA Baztan Doneztebe Etxalar				
NAFAR- LAPURTERA Aiherra Donapaleu Itsasu				
ZUBERERA Zalgize-Donztebe				

Erdaren (gaztelania, frantsesa) eragina ez ezik (adib. makulu-hitzak: *bueno, bon, mais, pues...*), euskara batuaren eragina ere azter daiteke (adibidez, Elgoibarko euskararen ez da *geneukan* aditza erabiltzen).

Beste aukera bat, euskalkien ezaugarriei jabetzeko: euskalkietako testuak euskara batuan jartzea.


Euskalki berezietan gehiago sakondu nahi izanez gero, ikus [Zuberera](#) eta [Mendebaldeko euskara: bizkaiera](#) bideoak ere.

- *"Testigantza bila"*. [Ahotsak.eus](#) webgunean euskalki guztietako testigantzak dauzkagu jasota, Euskal Herriko makina bat txokotakoak. Ikasleek testigantza bana bilatuko dute webgunean, banaka edo 2-3 laguneko taldeetan. Minutu bat aztertu, eta euskalkiaren ezaugarriak identifikatuko dituzte aurreko taula baliatuz. Aukera bat: posible denean, bideoan agertu diren gazteen herriak aukeratzea eta bertako adinekoen testigantzak, gero gazteenekin alderatu ahal izateko (aurreko taula baliatuz). Izan ere, adinekoek euskalkia hobeto gorde ohi dute (sarri gazteek hizkeran euskara batuaren eragin handiagoa izaten dute).



Bukatutakoan, ikaskideei egindako lanaren berri emango diete, ahoz. Lehenengo, bideo-pasarte hori zergatik aukeratu duten azaldu dezakete; gero, bideoa ipini, ikasgelan entzun, eta identifikatu dituzten ezaugarriak zerrendatu ditzakete. Edukiari buruz ere iritzi-trukea egin daiteke gelan, interesgarria baldin bada.

- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Kazetari-lanetan jardungo dute ikasleek. Elkarrizketa bat egitea izango da helburua. 2-3 laguneko taldetxoetan egin dezakete. Euskalkiak jasotzea izango da helburua. Herriko euskalkia izan daiteke edo ikasleei ondo datorkien beste tokiren batekoa.

- 
- NOR elkarrizketatu? Euskalkian ondo moldatu behar du (adinekoen artean, aukera gehiago)
 - ZER jaso? Hizkera jasotzea da helburua, baina edukia ere pentsatu: gelan erabaki eta galdetegia prestatu (Adib. Lehengo eta oraingo euskara, umetako jolasak, antzinako ogibideak, herria nolakoa zen...).

Elkarrizketa bideoan grabatzea proposatzen dugu (ikus [jarraibide orokorrak](#)). Ondoren, hainbat lanketa egin daitezke grabazio horrekin:

- 1. Jasotakoa aztertu.** Grabazioaren zatitxo bat aukeratu, eta jasotako euskalkiaren ezaugarriak aztertu. Ondoren, gelakideekin partekatu.
- 2. Bideo-erreportaje labur bat** prestatu, grabatutako irudiekin (horretarako, editatzeko programaren bat erabiltzen erakutsiko diegu, adibideak emanez). Bideo-erreportajea sareratu.
- 3. Elkarrizketa idatziz jarri**, egunkari digital edo blog baterako (titulua, azpititulua, sarrera, galde-erantzunak, argazkia, azgazki-oina...)

Ondo legoke grabazioak gero [Ahotsak.eus](#)-era bideratzea, ahozko ondarearen artxibora (adibiderako, ikus Donostiako [San Ignazio ikastetxeko ikasleen proiektua](#)).

Egindako lana gelakideei aurkeztea eta azalpenak ematea izango da betiere azken pausua.



- *“Bestearen azalean”*. Besteren larruan sartzeko ariketa izango da honakoa: norberarena ez den euskalki bat aukeratu (herri bat ere aukeratu daiteke), eta euskalki horretako hitzak erabiliz testu ala esketx labur bat sortzea izango da erronka. Euskalkien “imitazioak” egitea, alegia.


Binaka presta ditzakete testuak/esketxak. Ikaskideen aurrean ahoz esan edo antzestu. Ikaskideek zer euskalki den asmatu beharko dute.

Girotzeko, ikus [Euskalkiak eta umorea](#) bideoa.

5. **Ekoizpena partekatzea.** Azken ekoizpenaren emaitza ahoz ematea lehenetsiko da, emaitza dena delakoa dela ere: azalpena, aurkezpena, antzezlanak, bideoz jasotako adierazpena... eta, ahal dela, bideokamerarekin grabatzea, ahozko jardunen bilakaera ikusteko. Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tarteak izango da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea komeni da, eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea. Irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: [ahozkoaren ezaugarriak](#) eta [baliabideak](#).

2. Gaiak: Nafarrera (Euskararen aberastasuna)

Helbidea: <https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/nafarrera>



Proposamen pedagogikoa

Bideoa ikusi aurretik:

1. Gaiaren aurkezpena egingo du irakasleak. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.

- Zer dakizue nafarrera izenez ezagutzen den euskalkiari buruz? Zer ezaugarri ditu?
- Nafar bat imitatu nahi izanez gero, zer hitz erabiliko zenituzkete? (Erran, bertze, arras, aunitz...). Saiatu imitatzen!
- Zer iritzi duzue nafar euskarari buruz? (Ulerterraza/ulertzeko zaila, polita/itsusia...).

Bideoa ikusi bitartean:

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen. Bideoak bi zati ditu; osorik ikusiko dugu, eta zatika ere bai ondoren.
2. Ikasleek euren arreta erakarri duten pasarteak gogoan har ditzatela.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Adibidez, *faten* (joaten), *solastu* (hitz egin), *arras* (oso, zeharo), *arrunt* (oso, zeharo), *aunditz/aunitz* (asko), *aitatxi* (aitona), *amatxi* (amona), *elekatzea* (hitz egitea), *hondarre(ra)ko* (bukaerako)...

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin gehien ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren:

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu, denok elkarrekin. Hona hemen horretarako balio dezaketen galdera batzuk:

- Ulertzeko arazorik izan al duzue? Berdin hitz egiten al dute bideoko guztiek?
- Zer-nolako harremana duzue beste euskalki batzuekin? Kontatu zuen esperientziak.
- Euskalkia galtzen joan da Nafarroako toki batzuetan. Bideoan agertzen diren batzuk euren herrietako azken hiztun zaharrak dira, gazteek batua ikasi baitute. Zein da euskalkien egoera Nafarroan gaur egun?
- Zuen ustez, batuak zenbat eragiten die euskalkiei? Euskalkiak aldatzen ari al dira? Hala baldin bada, hori zer da, ona ala txarra? Abantailak eta desabantailak aipatu.

3. **Tarteko hizkerak**, euskalki-nahasketak, ohikoak dira euskalkien mugako herrietan eta ez da erraza izaten euskalki batean edo bestean sailkatzea, bietatik jasotzen baitituzte ezaugarriak. Zenbait herritako hizkeran nabaria izaten da zein aldetarako joera izan duten historikoki, baina joera hori ere aldatu egin daiteke denborarekin eta horrek hizkeran aldaketak ekar ditzake.

Nafarroako herri batzuek nafar-lapurteraren ezaugarri nabariak dituzte (Zugarramurdik, Urdazubik eta Luzaidek, adibidez). Nafar euskarak badu antzekotasunik nafar-lapurterarekin, lexikoan adibidez (*Nafar-lapurtera* bideoa ere ikus daiteke).

Nafarroako beste zenbait herrik, ostera, erdialdeko euskararen (gipuzkeraren) ezaugarri ugari dituzte (ikus *sortaldeko azpieuskalkiko herriak*):

- Leitzaldekoa (adibiderako, *Goizuetako Ahotsak*)
- Larraungoa: Araitz-Betelu ingurua (adibidez, *Larraungo Ahotsak*)
- Basaburukoa
- Imozkoa

Gipuzkoan, berriz, *Bidasoako herrietako* hizkerak nafarreraren eta nafar-lapurteraren eragina dute (adibiderako, ikus *Hondarribiko Ahotsak*). Tarteko euskalkizat hartzen dira horiek ere.

Ikus dezagun mapetan (Koldo Zuazoren mapak dira; gehiago jakiteko, ikus Zuazoren *euskalkiak.eus* webgunea ere):

Nafarreraren mapa



Irudia: [Wikipedia](#)

Gipuzkeraren mapa




Irudia: [Wikipedia](#)

4. **Azken ekoizpena.** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Lau adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezeko bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.

- *“Hitzen arrastoan”*. Nafar euskalkiaren ezaugarriei erreparatuko diegu. Testua banatuko diegu ikasleei (ikus “Testua” atalean), eta euskalki horren ezaugarriak aztertuko dituzte. Talde txikietan egingo dute lan, eta ondoren partekatu. Nafar euskararen ezaugarrietako batzuk ikus ditzakegu lehenengo, lana errazteko: ikus *nafar euskararen ezaugarriak Ahotsak-en*. Ondoren, taula hau ere baliagarria gerta dakieke:

		NAFARRERAZ	Nola da euskara batuan?
Lexikoa	Euskalkiko hitzak		
	Aldaerak		
Aditza eta morfologia			
Fonetika (bideoa berriz entzun)			
Sintaxia			

“Lexikoa” atalean, hitzak eta aldaerak bereiztea komeni da:



3-4 ikasleko taldeetan ipinita, ikasleak taulan ahalik eta hitz gehien jartzen saiatuko dira. Eskuz beteko dute taula.

Talde bakoitzean bozeramailea eta idazkaria izendatuko dituzte, eta ordenagailu bat izango dute (Wifi konexioarekin). Irakasleak gdoc bat sortuko du taula huts batekin, eta dokumentu horretan aldaketak egiteko baimena emango die taldeetako idazkariei.

Taldeek lana amaitzen dutenean, guztien lana bateratuko da: talde bakoitzeko bozeramailea jasotako hitzak esaten joango da, eta idazkariak gdocs-en partekatutako taulan apuntatuko ditu. Pantaila handian ipini daiteke gdocs-eko taula hori, denek ikusi ahal izateko.

Ondoren, lexikoan jarriko dugu arreta. Berriro ere taldeka jarrita, taulako hitzen sinonimoak topatuko dituzte, ahalik eta gehien (adibidez: arrunt = arras, oso, zeharo, guztiz, txit). Eta aldaeren kasuan ere berdin: ahal den aldaera gehien (forma guztiak onartuko dira aldaeratzat (adibidez: zenbait, zonbait, zonbeit, zomeit, zumait...)). Horretarako, Ahotsak-eko [Corpusa](#) eta [Orotariko euskal hiztegia](#) baliagarri gerta litezke.

Zer egin batutako hitzekin? Lexikoarekin eta aldaerekin dominoko fitxak sortu ditzakete: fitxa pila bat prestatu eta gero jolastu!



- *“Testigantza bila”*. Ahotsak.eus webgunean hainbat testigantza daude nafar euskalkian.

Ikasleek testigantza bana bilatu beharko dute webgunean, banaka edo binaka. Minutu bat aztertu, eta euskalkiaren ezaugarriak identifikatuko dituzte. Aurreko taula erabil dezakete horretarako.

Ez da komeni ikasle guztiek herri berak aukeratzea eta errepikatzea. Nola egin aukeraketa? Zer herri hautatu argi ez dutenentzat, aukera bat da Nafarroako [herrien zerrendara](#) joatea eta bideoa/audioa igota duten herriak zein diren begiratzea. Ikurra agertzen da horrelakoetan.

Ekialdeko nafarra aparteko beste euskalki bat zen. Duela gutxi desagertu da: lehenengo erronkaria desagertu zen (1991) eta ondoren zaraitzua. Hori bai, azken hiztunen grabazio batzuk ditugu Ahotsak.eus atarian. Nahi izanez gero, posible da erronkaria eta zaraitzua aukeratzea (audio grabazio zaharrak).

Tarteko euskalkiren bat ere aukeratu daiteke, nafarreraren eta beste euskalkiren baten nahasketa dena (adibidez, Hondarribikoa, Aranokoa...). Beraz, ikasleek Nafarroako edo nafar eragineko edozein euskara aukeratu dezakete.

Bukatutakoan, ikaskideei egindako lanaren berri emango diete, ahoz. Lehenengo, bideo pasarte hori zergatik aukeratu duten eta hiztuna nor den, nongoa -herria mapan kokatu-, adina, biografiako daturen bat... azalduko dute. Gero, bideo/audio pasarte ipini, ikasgelan ikusi/entzun, eta identifikatu dituzten ezaugarriak zerrendatuko dituzte. Bukatzeko, iritzia emango dute jorratutako euskalkiaz -hizkuntzalaritzaren ikuspegitik-, hiztunari buruz, lan-prozesuari buruz... Ikasle bakoitzak erabaki dezala.

ESKEMA POSIBLE BAT

- *Aukeratutako herria*
- *Hiztunaren datuak (izen-abizenak, adina, biografia)*
- *Pasarte hori aukeratzeko arrazoia*
- *Hiztunak kontatzen duena (edukia)*
- *Kontatzeko modua: hizkeraren ezaugarriak (lexikoa, aldaerak, sintaxia, fonetika...)*
- *Iritzia*

- *"Historia egiten"*. Ikerketa eginez, historiara begiratzea da proposamena. Nafarroako euskararen eta euskalkien historia ikertuko dugu, eta bide batez baita Nafarroako historia ere.

Lehenengo lana: taldeka ipini (4-5 lagun), eta gai bat aukeratzea. Hona hemen aukera batzuk (posible da ikasleek beste batzuk proposatzea ere: adibidez, Nafarroako herri jakin bateko euskararen historia).

GAI POSIBLEAK

1. *Euskararen galera Nafarroan, mendez mende: mapa batean kokatuta*
2. *Galeraren zergatiak. Ikerketarako abiapuntu moduan Transmisioaren etena eta Euskararen zapalkuntza bideoak ikus ditzakete.*
3. *Nafarroako eta Iparraldeko euskararen arteko lotura, Nafarroako historiaren ondorio. (Nafarroako erresuma, Albreteko Joana erregina, Joanes Leizarraga...)*
4. *Erronkarieraren ezaugarriak eta historia. Azken hiztunak, berreskuratzeko asmoak, adibideren bat...*
5. *Zaraitzueraren historia eta ezaugarriak. Gartxot, Itzaltzuko bardoa (komikia eta pelikula)*
6. *Euskararen gaur egungo egoera Nafarroan: zonifikazioa, eremu "mistoa", ofizialtasun aldarrikapenak...*
7. *Nafarroan euskara berreskuratzeko egindako ekimenak (euskara elkarleen eta ikastolen lana... herri/zonalde bat aukeratu daiteke; adibiderako, Altsasu).*

Dokumentazio bideak: Internet, liburuak, hedabideak... Elkarrizketak egitea ere posible da (adibidez, adituei edo euskara berreskuratzeko lanetan dabilzanei).

Talde guztiek ahozko aurkezpenak egingo dituzte, ikaskideei egindako ikerketaren berri emateko (adibidez *Genially* bezalako programaren bat erabilia; argazkiak edo bideoak erabiltzea komenigarria litzateke, bisualagoa izateko). Iritzi-trukea egingo da aurkezpen bakoitzaren ostean.

- *"Bestearen azalean"*. Beste ariketa posible bat ikasleak antzezle bihurtzea da, eta elkarrizketatuen azalean jartzea. Ahotsak-eko elkarrizketa bat antzeztea izango litzake erronka. Binaka edo 3-4 laguneko taldeetan egin dezakete: ikasle bat edo bi elkarrizketatzaile rolean eta beste bat edo bi lekuko rolean. 5-10 minutuko antzezpentxoak izango lirateke.

Aurretik prestatuko dute gidoia: galderak eta erantzunak. Hitzunak nafarreraz mintzatuko dira eta, horrenbestez, testua euskalki horretan prestatuko dute. Pertsonaiak karakterizatu (kazetariak, adinekoak...), eta entseatu egingo dute. Ondoren, elkarrizketaren antzezpena egingo dute, ikaskideen aurrean.

Ahotsak-en egiten duten moduan, elkarrizketa grabatu egin daiteke eta gero antzezpentxo guztiak gelan ikusi beste egun batean (norbere burua ikusita ere asko ikasten da).

5. **Ekoizpena partekatzea.** Ahozko aurkezpena/azalpena/antzezpena egingo dute ikasleek, gelakideei euren lanaren emaitzak ezagutarazteko. Horiek bidez grabatzea interesgarria izan daiteke, irakasleak ez ezik ikasleek beraiek ere baloratu ahal izateko. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea komeni da, eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea. Irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: *ahozkoaren ezaugarriak* eta *baliabideak*.

3. *Gaia:* Gipuzkera. Garai bateko garraioak. (Euskararen aberastasuna)

Helbidea: <https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/gipuzkera-garraioak>

The screenshot shows the 'ahotsak IKASGELAN' website interface. At the top, there is a navigation bar with 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Materiala', and 'Euskalkitegia'. Below this, the main heading is 'Garai bateko garraioak (gipuzkeraz)'. A video player is embedded, showing a man speaking. To the right of the video, a sidebar contains the following information:

- Maiak: Batxilergoa
- Proiektuak: EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
- Ikasgaiak: Euskara eta literatura
- Gaiak: Garraioak
- 0 puntu 5 izarreko maximotik
- 0 iritzi guztira

Proposamen pedagogikoa

Bideoa ikusi aurretik:

1. Gaiaren aurkezpena egingo dugu. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.

- Zer dakizue erdialdeko euskarari edo gipuzkerari buruz? Non hitz egiten da? Zer ezaugarri ditu?
- Gipuzkera imitatu nahi izanez gero, zer hitz erabiliko zenituzkete? Baduzue erreferentziarik? Saiatu imitatzen!
- Zer iritzi duzue gipuzkerari buruz? (Ulerterraza/ulertzeko zaila, polita/itsusia...).

Ikusiko dugun bideoa gipuzkeraz da, eta sasoi bateko garraioei buruzkoa, gure aitona-amonek ezagututako garraioen ingurukoa, hain zuzen.

Zer garraio uste duzue agertuko direla? Zeintzuk ezaqutzen dituzue? Bota!

Bideoa ikusi bitartean:

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak konparatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen. Bideoak bi zati ditu; osorik ikusiko dugu, eta zatika ere bai ondoren.
2. Ikasleek euren arreta erakarri duten pasarteak gogoan har ditzatela.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Adibidez, *kamiyo* (bidea), *kale-xextua/buru-xextua* (buru gainean eramaten zuten otarre zabala), *laboriak* (eskulanak), *ebiya* (euria), *dilijentzixe* (diligentzia: pertsonak garraiatzeko zalgurdi berezia), *saihetsetikan* (ertzetik), '*jardinera*' (tranbia berezi bat, irekia)...

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin gehien ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren:

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu, denok elkarrekin. Hona hemen horretarako balio dezaketen galdera batzuk:

- Ulertzeko arazorik izan al duzue?
- Zer ezaugarri ditu gipuzkerak?
- Hizkera aldetik, zer nabarmenduko zenukete? Berdin hitz egiten al dute bideoko guztiek? (Batziek 'zaldiya', 'ebiya', 'kamiya'... azkoitiarrak eta zumaiarrak 'dijentzixa/e').
- Zertan dira desberdinak gipuzkera eta batua? Erreparatu diezue aditz-formei?
- Ezagutzen al zenituzten bideoan aipatzen dituzten garraioak? Kontatu zuek garai bateko garraioei buruz entzundakoak.
- Zer iruditu zaizkizue bideoan kontatutako anekdotak?

- 3.** Erdialdeko euskalkia bereziki Gipuzkoan hitz egiten da: horregatik da ezaguna *gipuzkera* izenez. Hori bai, Gipuzkoako herri batzuetan mendebaldeko euskalkia edo bizkaiera hitz egiten dute (Deba ibarreko herrietan; ikus bizkaierako [sortaldeko azpieuskalkia](#)).

Tarteko hizkerak ohikoak izaten dira euskalkien mugetako herrietan eta ez da erraza izaten hizkera horiek euskalki batean edo bestean sailkatzea, bietatik jasotzen baitituzte ezaugarriak. Nafarroako zenbait herritako hizkerak, esaterako, gipuzkeraren ezaugarriak dituzte (ikus gipuzkeraren [sortaldeko azpieuskalkiko herriak](#)). Hori dela eta, tarteko hizkeratzat hartzen dira, euskalki-nahasketa dutelako.

Gipuzkoako Bidasoako herrietako hizkerak, berriz, nafarreraren eta nafar-lapurteraren eragina dute (adibiderako, ikus [Hondarribiko Ahotsak](#)). Tarteko hizkeratzat hartzen dira horiek ere.

Ikus dezagun mapan tarteko hizkerak zein diren eta Gipuzkoako zer eskualde ez dauden kokatuta gipuzkeraren barruan (Koldo Zuazoren mapa da; gehiago jakiteko, ikus Zuazoren [euskalkiak.eus](#) webgunea ere).

Gipuzkeraren mapa



Irudia: [Wikipedia](#)

4. Azken ekoizpena. Hainbat ekoizpen gara daitezke. Lau adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezko bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.

- *"Hitzen arrastoa"*. Gipuzkeraren ezaugarriak erreparatuko diegu. Testua banatuko diegu ikasleei (ikus "Testua" atalean), eta euskalki horren ezaugarriak aztertuko dituzte. Talde txikietan egingo dute lan, eta ondoren partekatu. Gipuzkeraren ezaugarrietako batzuk ikus ditzakegu lehenengo, lana errazteko: ikus [gipuzkeraren ezaugarriak Ahotsak](#)-en. Ondoren, taula hau ere baliagarria gerta dakieke:

		GIPUZKERAZ	Nola da euskara batuan?
Lexikoa	Euskalkiko hitzak		
	Aldaerak		
Aditza eta morfologia			
Fonetika (bideoa berriz entzun)			
Syntaxia			

“Lexikoa” atalean, hitzak eta aldaerak bereiztea komeni da:

- **Lexikoa: hitzak.** Euskalki baten erabiltzen den hitz berezia, beste euskalkietan jatorri desberdineko beste hitz batekin adierazten dena. Adibidez: abade / apaiz.
- **Aldaerak.** Euskalki batetik bestera hitz batek hartzen dituen forma desberdinak. Adibidez: apaiz/apez, zombait/zenbait.

3-4 ikasleko taldeetan ipinita, ikasleak taulan ahalik eta hitz gehien jartzen saiatuko dira. Eskuz beteko dute taula.

Talde bakoitzean bozeramailea eta idazkaria izendatuko dituzte, eta ordenagailu bat izango dute (Wifi konexioarekin). Irakasleak gdoc bat sortuko du taula huts batekin, eta dokumentu horretan aldaketak egiteko baimena emango die taldeetako idazkariei.

Taldeek lana amaitzen dutenean, guztien lana bateratuko da: talde bakoitzeko bozeramailea jasotako hitzak esaten joango da, eta idazkariak gdocs-en partekatutako taulan apuntatuko ditu. Pantaila handian ipini daiteke gdocs-eko taula hori, denek ikusi ahal izateko.

Ondoren, lexikoan jarriko dugu arreta. Berriro ere taldeka jarrita, taulako hitzen sinonimoak topatuko dituzte, ahalik eta gehien (adibidez: arrunt = arras, oso, zeharo, guztiz, txit). Eta aldaeren kasuan ere berdin: ahal den aldaera gehien (forma guztiak onartuko dira aldaeratzat (adibidez: zenbait, zorbait, zorbait, zomeit, zumait....)). Horretarako, Ahotsak-eko [Corpusa](#) eta [Orotariko euskal hiztegia](#) baliagarri gerta litezke.

Zer egin batutako hitzekin? Lexiko eta aldaerekin karta-jolasa sortu dezakete: hitz bikoteen zerrenda bat egin dezake talde bakoitzak eta, ondoren, hitz bakoitzarekin karta bana sortu. Kartoi-mehea erabili dezakete horretarako. Posible da bikote bakoitzak marrazki bera izatea.



Nola jolastu? Karta guztiak buruz behera ipini, eta jokalaria bakoitzak bi kartari emango die buelta. Jasotako kartek bikotea osatzen badute, beretzat hartuko ditu eta, bestela, berriz lehengo lekuan utzi beharko ditu. Orduan, hurrengo jokalaria txanda izango da. Helburua ahalik eta bikote gehien eskuratzea izango da.

Bikoteen ordeztasun hiruak osatu nahi badituzte (3 sinonimo/aldaera) ere posible da, baldin eta guztiak kopuru berekoak badira (denak hirukoteak). Kasu horretan, karta-jolasa beste bat izango litzateke, familien kartekin egiten dena gutxi gorabehera: karta guztiak banatu, eta galdetzen joan, txandaka: "Badaukazu 'Zorbait'?". Baldin badauka, eman egingo dio. Ez badauka, hurrengoaren txanda da. Ahalik eta familia gehien lortzea izango da helburua.

- *"Testigantza bila"*. [Ahotsak.eus](#) webgunean testigantza mordo daude gipuzkeraz. Ikasleek testigantza bana bilatu beharko dute webgunean, banaka edo binaka. Minutu bat aztertu, eta euskalkiaren ezaugarriak identifikatuko dituzte. Aurreko taula erabil dezakete horretarako.

Ez da komeni ikasle guztiek herri berak aukeratzea eta errepikatzea. Nola egin aukeraketa? Zer herri hautatu argi ez dutenentzat, aukera bat da Gipuzkoako herrien zerrendara joatea eta bideoa igota duten herriak zein diren begiratzea. Ikurra agertzen da horrelakoetan.

Tarteko hizkeraren bat ere aukeratu daiteke, nafarreraren edo bizkaieraren eragina duena (adibidez, Lezokoa, Elgoibarkoa...). Kasu horretan, gipuzkeraren ezaugarriak identifikatu beharko dituzte.

Bukatutakoan, ikaskideei egindako lanaren berri emango diete, ahoz. Lehenengo, bideo pasarte hori zergatik aukeratu duten eta hiztuna nor den, nongoa -herria mapan kokatu-, adina, biografiako daturen bat... azalduko dute. Gero, bideo pasartea ipini, ikasgelan ikusi/entzun, eta identifikatu dituzten ezaugarriak zerrendatuko dituzte. Bukatzeko, iritzia emango dute jorratutako euskalkiaz -hizkuntzalaritzaren ikuspegitik-, hiztunari buruz, lan-prozesuari buruz... Ikasle bakoitzak erabaki dezala.

ESKEMA POSIBLE BAT

- *Aukeratutako herria*
- *Hiztunaren datuak (izen-abizenak, adina, biografia)*
- *Pasarte hori aukeratzeko arrazoia*
- *Hiztunak kontatzen duena (edukia)*
- *Kontatzeko modua: hizkeraren ezaugarriak (lexikoa, aldaerak, sintaxia, fonetika...)*
- *Iritzia*




- *"Jolasten"*. Euskalkiak lantzeko, garraioekin lotutako jolas bat egin dezakegu, hiru taldetan banatuta:



1. Zalgurdian doazenak
(binaka, bat bestea
eramaten: bat zaldia eta
atzekoa gurdia)

2. Astoan doazenak
(binaka, bata bestearen
gainera igota: bat astoa
eta bestea astazaina)

3. Tranbiak (banaka; pertxa
daukate, eta pertxarik
gabe gelditu egiten dira).



Jolasteko modua eta arauak ikasleek beraiek asmatuko dituzte; talde bakoitzak bereak (harrapaketa-jolasa, lasterketa, adimen-jolasa... nahi dutena izan daiteke). Jolastu egingo dute, eta hala jolasa ebaluatzeko eta hobetzeko aukera izango dute. Ondoren, jolasaren ezaugarriak eta arauak idatziz ipiniko dituzte, euskalki batean (talde bakoitzak bat aukeratu dezala, beste taldeetakoei esan gabe; ezin da norberaren euskalkia izan, graziarik ez lukeelako izango).

Beste taldeetako kideei euren jolasa nola den azalduko diete, ahoz. Inportantea izango da euskalki horretako ahalik eta hitz gehien erabiltzea, eta ezaugarriak nabarmentzea. Izan ere, beste taldeek zer euskalki den asmatu beharko dute. Ez hori bakarrik: jolasaren ezaugarriak-arauak errepikatu beharko dituzte, berriro esan, baina ez edozein eratarik: beraiek aukeratutako euskalkia erabiliko dute.

Euskalkiak asmatzen trebeak baldin badira, denek jolastuko dute hiru jolasetan. Ariketa honen helburua euskalkiak lantzea, irudimena martxan jartzea eta ondo pasatzea da. Ariketa egitera kanpora ateratzea edo areto handi batera joatea komeniko litzateke.

- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Ikasleak kazetari bihurtuko dira, 2-3 pertsonako taldeak osatuta (zozketa bidez erabaki daiteke). Herritarrek herriko euskalkiari eta gainerako euskalkiei buruz zer iritzi duten jakitea izango da helburua (bertako euskalkirik ez badago, euskalkiei buruzko iritzia jaso). Herriko adinekoei zein gazteei galdetu dakieke. Lehenengo, galdetegi txiki bat prestatuko dute denek elkarrekin, talde guztiak gauza bera galdetzeko. Elkarrizketak bidez egitea komeni da, gero ikaskideekin partekatuzko, eta elkarrizketatuarekin argazki bat ateratzea ere ondo legoke. Grabazioaz gainera, elkarrizketatuaren datu batzuk ere jasoko dituzte: izen-abizenak, jaioteguna, biografia laburra.

Elkarrizketak egin aurretik, jarraibide orokor batzuk ematea ere komeni da. Lana egindakoan, talde bakoitzeko kideek aurkezpen txiki bat egingo dute, grabazioa erakustearekin batera, prozesua azaltzeko (elkarrizketatuaren biografia laburra, elkarrizketaren zergatia eta abar).

Ondoren, hainbat lanketa egin daitezke grabazio horiekin:

- a. **Bideo-erreportaje labur bat** prestatu grabatutako irudiekin (horretarako, editatzeko programaren bat erabiltzen erakutsiko diegu, adibideak emanez; adibidez, Virtualdub edo Openshot). Bideo-erreportajea sarean zintzilikatu.
- b. **Elkarrizketa idatziz jarri**, egunkari digital edo blog baterako (titulua, azpititulua, sarrera, galde-erantzunak, argazkia, azgazki-oina...)
- c. **Ikus-entzunezko bakarra osatu**: jasotako testigantza guztiekin ikus-entzunezko bat prestatu, gero herrian ezagutarazteko. Argazkiak, marrazkiak eta musika ere sar ditzakete.

Ondo legoke grabazioak Ahotsak.eus-era bideratzea, ahozko ondarearen artxibora (adibiderako, ikus Donostiako San Ignazio ikastetxeko ikasleen proiektua).

5. **ekoizpena partekatzea**. Ahozko aurkezpena/azalpena egingo dute ikasleek, gelakideei euren lanaren emaitzak ezagutarazteko. Horiek bideoz grabatzea interesgarria izan daiteke, irakasleak ez ezik ikasleek beraiek ere baloratu ahal izateko. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea komeni da, eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea. Irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: ahozkoaren ezaugarriak eta baliabideak.

4. Gaiā: Nafar-lapurtera euskalkia (Euskararen aberastasuna)

Helbidea: <https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/nafar-lapurtera>

The screenshot shows the website interface with a navigation bar containing 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Materiala', and 'Euskalkitegia'. The main content area is titled 'Nafar-lapurtera' and includes a video player. A purple arrow points to the video title 'Nafar-lapurtera'. A purple box highlights the metadata on the right side of the video player, which includes:

- Mailak: Batxilergoa
- Proiektuak: EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
- Ikasgaiak: Euskara eta literatura
- Gaiak: Euskara
- 0 puntu 5 izarreko maximotoz
- 0 initziz guztira

57

Proposamen pedagogikoa

Bideoa ikusi aurretik:

1. Gaiaren aurkezpena egingo du irakasleak. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.

-Zer dakizue Ipar Euskal Herriko euskalkiei buruz? Zenbat euskalki daude (nafar-lapurtera eta zuberera) eta non hitz egiten dira?

-Nafar-lapurterak zer ezaugarri ditu? Ezaguna da zuentzat? Baduzue entzuteko aukerarik?

-Iparraldeko hiztun bat imitatu nahi izanez gero, zer doinu eta zer hitz erabiliko zenituzkete? (Bon, untsa, jin...) Saiatu imitatzen! Erreferentziak falta zaizkizue?

-Zer iritzi duzue nafar-lapurterari buruz? (Ulerterraza/ulertzeko zaila, polita/itsusia...).

Bideoa ikusi bitartean:

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak konparatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen. Bideoak bi zati ditu; osorik ikusiko dugu, eta zatika ere bai ondoren.
2. Ikasleek euren arreta erakarri duten pasarteak gogoan har ditzatela.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Adibidez, *kaskoinez* (gaskoieraz; hizkuntza horretan), *bolanjeria* (okindegia), *nehor* (inor), *katixima* (haurrentzako kristau-hezibidea, katekesia), *untsa* (ondo), *doaika* (doike, duda gabe), *punizione/punitu* (zigorra/zigortu), *ukan* (eduki), *kadira* (aulkia), *bon* (beno, tira, frantsesez), *usaia* (ohitura), *jin* (etorri), *kazeta* (egunkaria), *ainitzetan/anitz* (askotan/asko), *atxiki* (gorde, mantendu), *deus* (ezer), *behinpin* (behinik behin, behintzat), *finitu* (bukatu), betu (behatu, zaindu), *ipularra/soropila* (belardia), *enetako/ene irudiko* (niretzat/nire ustez), *arrunt/biziki* (oso, zeharo)...

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin gehien ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren:

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu, denok elkarrekin. Hona hemen horretarako balio dezaketen galdera batzuk:

- Izan al duzue ulertzeko arazorik? Berdin hitz egiten al dute bideoko guztiek? (*Euskalkiak: ezin elkar ulertu* bideoa ere ikus daiteke)
- Harremanik ba al duzue Iparraldeko hiztunekin? Kontatu zuen esperientziak.
- Euskaraz hitz egiteagatik "punitu", zigortu egiten zituztela diote batzuek. Entzun al duzue halakorik lehenago? (*Euskararen kontrako neurriak* bideoa ere ikus daiteke)
- Euskararen galera ere aipatzen dute. Zein da euskararen egoera Iparraldean gaur egun? Hizkuntza ofiziala al da? Ehuneko zenbatek hitz egiten du euskaraz Lapurdin, Nafarroa-Beherean eta Zuberoan? Non hitz egiten da gehien? Zer adinetakoak dira? (*estatistikak* begiratu ditzakete)

- Euskara batuaren beharra ere aipatzen da bideoan, elkar ulertzeko komenigarria dela denok euskara estandar bat ezagutzea. Zer iritzia duzue zuek? Batuak eraginik ba al du tokian tokiko euskalkietan?
- Euskara onaren fama duten herriak Hazparne, Garazi eta Sara direla diote bideoan... Zuentzat nongoa da euskara ona, garbia, polita...? Eta nongoa txarra, ulergaitza, itsusia...? (Ez dago euskara onik/txarrik; ikus Euskalkiei buruzko iritziak bideoa)

3. Iparraldeko euskalkiak. Historian zehar Lapurdiko eta Nafarroa Behereko hizkerak bereizi egin diren arren, haien arteko aldea txikia da egun eta multzo berean sartu ohi dira: nafar-lapurtera. Zuberoan, berriz, zuberera mintzatzen da.

Aipagarria da euskara batua sortzeko lapurtera klasikoa (“Axular”) eta gipuzkera hartu zituztela oinarri moduan. Lapurdiko herri batzuetako hizkerak gipuzkeraren eragina du. Tarteko hizkerak ohikoak izaten dira euskalkien mugetako herrietan eta ez da erraza izaten hizkera horiek euskalki batean edo bestean sailkatzea, bietatik jasotzen baitituzte ezaugarriak.


Miren eta Gorka Artetxe anai-arrebek gipuzkeraz eta lapurteraz hitz egiten dute, narutaltasunez darabiltzate bi erregistroak, eta elkarrizketatzaileak batetik bestera aldatzera gonbidatzen ditu bideo-pasarte hauetan:

- Gipuzkeraz. Hizkera moldatzeko saiakerak
- Nafar-lapurteraz. Gorka lapurteraz eta Miren lapurteraz

Bideo-pasarteak ikusi, eta hizkerak konpara ditzakegu:

- Doinua, hitzak... asko aldatzen al dira? Egin zerrendatxo bat!
- Zuei erraza egiten al zaizue erregistroz aldatzea? Berdin hitz egiten al duzue inguruan dituzuen guztiekin?

Nafarroa Behereko herri batzuetako hizkeran (Amikuze aldean) eta Bardoze herri lapurtarrear, berriz, nabaria da zubereraren eragina.



Zuen ustez antzekoak al dira zuberera eta nafar-lapurtera? Zer desberdintasun dituzte? (Zuberera bideoa ikus daiteke edo Ahotsak-eko pasarte bat ipini zubereraz; adibiderako, Hoqui anai-arreben hauxe).

Nafarroako herri batzuetan, ostera, nafar-lapurteraren ezaugarriak aurki daitezke (Zugarramurdi, Urdazubi eta Luzaide herrietan, adibidez).

Nafar-lapurterak badu antzekotasunik nafar euskararekin, lexikoan adibidez (Nafarrera bideoa ere ikus daiteke). Berdinak edo antzekoak diren hitzak topatu ditzakete ikasleek, taldetxoetan jarrita. Zerrenda bana egin, eta ondoren bateratu.

Ikus dezagun mapetan (Koldo Zuazoren mapak dira; gehiago jakiteko, ikus Zuazoren Euskalkiak.eus webgunea ere):

Nafar-lapurteraren mapa



Zubereraren mapa



Irudia: [Wikipedia](#)

4. **Azken ekoizpena.** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Lau adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezeko bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.

- *"Hitzen arrastoan"*. Nafar-lapurtera euskalkiaren ezaugarriak erreparatuko diegu. Testua banatuko diegu ikasleei (ikus "Testua" atalean), eta euskalki horren ezaugarriak aztertuko dituzte. Talde txikietan egingo dute lan eta, ondoren, partekatu. Nafar-lapurteraren ezaugarrietako batzuk ikus ditzakegu lehenengo, lana errazteko: ikus [nafar-lapurteraren ezaugarriak](#) Ahotsak-en. Ondoren, taula hau ere baliagarria gerta dakieke:

NAFAR-LAPURTERAZ Nola da euskara batuan?			
Lexikoa	Euskalkiko hitzak		
	Aldaerak		
Aditza eta morfologia			
Fonetika (bideoa berriz entzun)			
Sintaxia			

“Lexikoa” atalean, hitzak eta aldaerak bereiztea komeni da.

- **Lexikoa: hitzak.** Euskalki baten erabiltzen den hitz berezia, beste euskalkietan jatorri desberdineko beste hitz batekin adierazten dena. Adibidez: abade / apaiz.
- **Aldaerak.** Euskalki batetik bestera hitz batek hartzen dituen forma desberdinak. Adibidez: apaiz/apez, zombait/zenbait.

3-4 ikasleko taldeetan ipinita, ikasleak taulan ahalik eta hitz gehien jartzen saiatuko dira. Eskuz beteko dute taula.

Talde bakoitzean bozeramailea eta idazkaria izendatuko dituzte, eta ordenagailu bat izango dute (Wifi konexioarekin). Irakasleak gdoc bat sortuko du taula huts batekin, eta dokumentu horretan aldaketak egiteko baimena emango die idazkariei.

Taldeek amaitzen dutenean, guztien lana bateratuko da: talde bakoitzeko bozeramailea jasotako hitzak esaten joango da, eta idazkariak gdocs-en partekatutako taulan apuntatuko ditu. Pantaila handian ipin daiteke gdocs-eko taula hori, denek ikusi ahal izateko.

Ondoren, lexikoan jarriko dugu arreta. Berriro ere taldeka jarrita, taulako hitzen sinonimoak topatuko dituzte, ahalik eta gehien (adibidez: arrunt = arras, oso, zeharo, guztiz, txit). Eta aldaeren kasuan ere berdin: ahal den aldaera gehien. Forma guztiak onartuko dira aldaeratzat (adibidez: zenbait, zorbait, zorbait, zomeit, zumait....). Horretarako, Ahotsak-eko Corpusa eta Orotariko euskal hiztegia baliagarri gerta litezke.

Zer egin batutako hitzekin? Zerrenda bat osatu dezakete, batzuk aukeratu —ikasle adina, adibidez—, eta orritxo batean ipini bakoitza. Ikasle bakoitzak orritxo bat (hitz bat) hartuko du, eta sinonimo bila ibiliko da gelan, parekoa aurkitu arte. Osatutako bikote edo taldetxo bakoitzak bere izena aukeratuko du, eta, horretarako, egokitu zaien hitza edo sinonimoak erabiliko dituzte (adibidez, Arrunt-arruntak, Punituak...). Beren burua aurkeztuko dute ikaskideen aurrean, aukeratu duten izena esanda, eta zergatia azalduko dute.

Sortutako taldeek azken ekoizpena elkarrekin egin dezakete; oso handiak baldin badira, bitan bana daitezke.

• *“Testigantza bila”*. Ahotsak.eus webgunean hainbat testigantza daude nafar-lapurteraz.

Ikasleek testigantza bana bilatu beharko dute webgunean, banaka edo binaka. Minutu bat aztertu, eta euskalkiaren ezaugarriak identifikatuko dituzte. Aurreko taula erabil dezakete horretarako.

Ez da komeni ikasle guztiek herri berak aukeratzea eta errepikatzea. Nola egin aukeraketa? Zer herri hautatu argi ez dutenentzat, aukera bat da Lapurdiko eta Nafarroa Behereko herrien zerrendara joatea eta bideoa igota duten herriak zein diren begiratzea. Ikurra agertzen da horrelakoetan.

Amaitutakoan, ikaskideei egindako lanaren berri emango diete, ahoz. Lehenengo, bideo pasarte hori zergatik aukeratu duten eta hitzuna nor den, nongoa -herria mapan kokatu-, adina, biografiako daturen bat... azalduko dute. Gero, bideo/audio pasarte ipini, ikasgelan

ikusi/entzun, eta identifikatu dituzten ezaugarriak zerrendatuko dituzte. Bukatzeko, iritzia emango dute jorratutako euskalkiaz -hizkuntzalaritzaren ikuspegitik-, hiztunari buruz, lan-prozesuari buruz... Ikasle bakoitzak erabaki dezala.

ESKEMA POSIBLE BAT

- *Aukeratutako herria*
- *Hiztunaren datuak (izen-abizenak, adina, biografia)*
- *Pasarte hori aukeratzeko arrazoia*
- *Hiztunak kontatzen duena (edukia)*
- *Kontatzeko modua. Hizkeraren ezaugarriak: lexikoa, aldaerak, sintaxia, fonetika...*
- *Iritzia*

- *"Bestearen azalean".* Besteen azalean jartzeko ordua da, antzerkia eginez enpatia lantzeko. Bi-hiru pertsonaren artean nafar-lapurteraz antzerki-esketx txikiak sortzea proposatuko zaie ikasleei. Nahikoa izango da bakoitzak pare bat esaldi esatea. Gaia: librea. Antzeztutako txiste bat ere izan daiteke. Bide-lerro posibleak:


- Istoriotxoaren/anedkotaren nondik norakoak erabaki
- Pertsonaien izaera eta jarrerak zehaztu
- Gidoitxoa idatzi: gertaerak eta elkarrizketak. Lehenengo, euskara batuan egin dezakete testua, eta gero, aurretik ateratako ezaugarriekin testua nafar-lapurteraz ipintzen saiatu, edo behintzat euskalki horren ukitua ematen.
- Rolak banatu
- Entseatu
- Ikaskideen aurrean antzeztu

Tonua exajeratzen saia daitezke. Hori bai, asmoa ez da euskalki hori lotsagarri uztea, inondik inora. Arrisku hori ikusiz gero, euskalki guztiekin egin daiteke ariketa, euskalki guztien ezaugarriak nabarmen utziz. Umorea da jarduera honen helburua, ondo pasatuz ikastea. Ikus [*Euskalkiak eta umorea*](#) bideoa ere, euskalkiek jolaserako eman dezaketen aukeraz gehiago jakiteko.

- *"Ika-mika"*. Euskalkiak/batua eztabaidak soka luzea du. Batuaren sorrera gatazkatsua izan zen, zaila: hiztun batzuk baztertuta sentitu ziren (batutik urrutien dauden euskalkietako hiztunak batik bat). *Euskara batua eta euskalkiak* bideoa ikus daiteke.

Gaur egun inork ez ditu zalantzan jartzen euskara batuaren balioak eta funtzioak. Euskara batua eta euskalkiak elkarren osagarri direla ere badiogu: euskalkiek batua aberasten dutela. Alabaina, batzuetan oreka ez da erraza. Ez dakigu euskalkietako hitzak batuan txertatzen; zein erabil daitezke, batuan gabiltzanean?

Euskalkiak indarra galtzen ari dira herri batzuetan... egunetik egunera hitzak eta egiturak desagertzen dira, eta aditz-forma okerrak ugaldtu. Eta fenomeno hori ez dute denek berdinean bizi. Batzuek euskalkiei eusteko ahalegina egin behar dela diote, aberastasun hori ez galtzeko, euskara gero eta pobreakoa delako. Besteek, prozesu naturala dela eta ez dagoela ezer egin beharrik euskalkiak mantentzeko: batua zabaltzea dela inportanteena. Horregatik, batzuek eskoletan tokian tokiko euskalkia erakutsi beharko litzatekeela uste dute, batuarekin batera. Besteek, berriz, ezetz diote, euskalkiak ahozkorako direla, kaleko hizkera informala, eta ez dutela tokirik eremu formaletan, eskolan eta hedabideetan, adibidez.



- Zerbait egiten al da eta egitea komeni al da euskalkiak mantentzeko? Euskalkiak galduko balira, zer? Inportako lizuke?
- Zerbait egin behar bada, zer?
- Eskoletan, hedabideetan... zer leku izan beharko lukete euskalkiek?

Ikus bideo hau: *Euskalkiak hezkuntzan eta hedabideetan.*

Ikasleek eztabaidatu egingo dute, bi taldetan banatuta: batzuk euskalkiak babestearen eta biziberritzearen alde egongo dira eta besteek ez dute beharrezkoa ikusiko. Eztabaidatzen hasi aurretik, talde bakoitzak argudioak pentsatu, zerrendatu, adostu eta partekatuko ditu.

Adibiderako, ikus taula hau:


ARGUDIOAK	
EREMU FORMALEAN EUSKALKIAK SOBERAN	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Euskara estandarra izateak elkar ulertzea ahalbidetzen du, eta euskalkiek ez. ▪ Batuak euskarazko literatura, hedabideak, hezkuntza... posible egin ditu. Euskalkiek ez dute lekurik hor, salbuespenak salbuespen. ▪ Euskalkiek ahozkorako bai, baina hizkuntza araturako ez dute balio. Nola idatzi euskalkietan? ▪ Euskalkiei balioa emateak euskalkirik ez dutenak bigarren mailako euskaldun sentitzea ekarri dezake, gutxiago sentitzea. ▪ Euskaltegietan lehentasuna euskara bultzatzea da, eta errazena batua erakustea: euskalkiek zaildu egiten dute euskara ikastea. ▪ Euskalkiak etxean eta kalean transmititu dira beti, ahoz, eta horrela segitzea da naturalena. ▪ ...
EUSKALKIAK EREMU GUZTIETAN BEHARREZKO	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Euskalkiak eskoletan erakutsi/erabili beharko lirateke (batuarekin batera, tokian tokikoa), ikasleen euskara aberasteko. ▪ Eskoletan hizkera informala (gazte hizkera) eta ahozkotasuna lantzea beharrezkoa da (bestela, erdaretara jotzen da) eta euskalkiek aukera hori ematen dute. ▪ Hedabideetan euskalkiak gehiago entzunez gero, errazagoa izango litzateke euskalki diferenteak ulertzea eta baloratzea. ▪ Euskalkiak gaitzetsi/baztertu egin dira, eta hiztun asko konplexuz beteta daude: euren euskara ez dela ona uste dute. Hori aldatzea komeni da. ▪ Euskalkiek nortasun-marka (bestela, denak berdin) eta naturaltasuna ematen dute; batua artifiziala gerta daiteke batzuetan. ▪ Aniztasuna eta aberastasuna: jolaserako aukera ematen dute (sinonimia, hitz-jokoak, doinuak...), eremu informaletan zein formaletan. ▪ ...

Nork bere iritziak defendatzeko, argudioak eta azalpenak erabiliko dituzte ikasleek. Besteen iritziak entzun eta adostasunetara iristea komeniko litzateke: ez da lehia bat, eta ez dago galtzailerik edo irabazlerik. Eztabaida formalen ezaugarriak azalduko ditu irakasleak: nola argudiatu, zer formula edo testu-antolatzaile erabiltzen diren, eta abar (ikus [sekuentzia didaktiko hau](#), bereziki 84-85 orrialdeak).

5. **Ekoizpena partekatzea.** Ahozko aurkezpena/azalpena/eztabaida egingo dute ikasleek. Horiek bideoz grabatzea interesgarria izan daiteke, irakasleak ez ezik ikasleek beraiek ere baloratu ahal izateko. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea komeni da, eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea. Irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: *ahozkoaren ezaugarriak* eta *baliabideak*.

5. Gaia: Literatura modernoaren hastapenak: kostunbrismotik modernitatera (Literatura idatzia)

Helbidea: <https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/literatura-moderno-a-hastapenak>



Proposamen pedagogikoa

Bideoa ikusi aurretik:

1. Gaiaren aurkezpena egin: euskal literatura modernizatu zuten lanak izango ditugu hizpide. Aurre-ezagutzak aktibatzeke, gisa honetako galderak egin ditzakegu:

- Zer da literatura modernoa zuentzat? Zer ezaugarri ditu?
- Gauza bera al dira modernismoa eta modernotasuna?
- Zein dira euskal literatura modernoko lehen lanak? Bota izenak eta izenburuak.
- Nolakoa zen euskal literatura gerraurrean?
- Gerraostean, frankismoan, zentsura egon zen. Zer dakizue horri buruz?
- Zuentzat inportantea al da irakurtzen duzuen literatura modernoa izatea? Zergatik?

Bideoa ikusi bitartean:

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak konparatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Ikasleek euren arreta erakarri duten pasarteak gogoan har ditzatela.
3. Ezagutzen ez dituzten hitzak, izenak edo erreferentziak apuntatu. Adibidez, Nabokov-en *Lolita* aipatzen da, Verlaine, Mallarmé, Ruben Darío, Telesforo Monzon, "Orixe", frantses sinbolistak, existentzialismoa, modernismoa...

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin gehien ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren:

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- Ezagutzen al zenituzten bideoan aipatzen diren idazleak eta lanak?
- Zein dira ezagunenak zuentzat? Irakurri dituzue?
- Gai aldetik (suizidioa, abortua, pederastia...) modernoak iruditzen al zaizkizue?
- Zein izango lirateke gai modernoak gaur egun? (Sare sozialak, COVID-19a...)?

“Teknika berriak” aipatzen dituzte bideoan, ordura arte erabili gabekoak. Denboraren kronologia haustea edo denboran saltoak egitea izango litzateke horietako bat. Literaturan ohikoa da denboran saltoak egitea (elipsia), denbora luzatzea eta baita laburtzea ere (sintesia). Ikus Harkaitz Canok horri buruz dioena: *Elipsia eta sintesia* (00:40-01:40). Eta iritzi-trukea egin.

Literatura modernoa hiru ezaugarriekin lotzen du Marijo Olaziregi iraskale eta kritikariak:

- a) Giro urbanoarekin, metropoliarekin.
- b) Ni-aren adierazpidearekin, barne-gatazkekin.
- c) Formarekin: kontatzeko moduarekin.

- Ados al zaudete?
- Izan al daitezke "modernoak" duela 60 urte sortutako lanak? Noiz arte? Betiko? "Modernotasuna"ren kontzeptua ez al da aldatzen?
- Zer da "modernismoa" literaturan? Eta artean? Iker ezazue!

Bideoan ez datoz 50-60 hamarkadetako literatura-lan guztiak. Forma aldetik aldaketa ekarri zuten mugarri batzuk aipatzen dira soilik. Olaziregik beste autore eta lan batzuk ere aipatzen ditu pasarte honetan, lehen nobela poliziakoa barne: *Ohiturazko prosa nagusi*. Poeten artean, Xabier Lete ere nabarmentzekoa da. Ez Dok Amairuko kideetako bat izan zen.

3. Primo de Riveraren diktadura amaitu zenean, II. Errepublikan (1931-1936), Euskal Pizkundea deitua gertatu zen: loraldi bat euskal kulturaren (literatura-lanak, antzezlanak, lehenengo ikastolak...).


Aipagarria da sasoi horretan euskara estandarizatu gabe zegoela eta Sabino Aranak eta hark bultzatutako garbizaletasunak eragin handia izan zuten orduko idatzietan. Olaziregik neologismoz (adibidez, telefonoa: *urrutizkiña*) betetako euskara horri buruz dioena: *Euskara trinkoa* (01:08-02:23).

1936ko gerrak goitik behera aldatu zuen guztia. Etena ekarri zuen, eta zapalkuntza: euskaraz argitaratzeko debekua, besteak beste. Euskal kulturaren bigarren loraldia 60ko hamarkadan gertatu zen (Ez Dok Amairu, euskalduntze-alfabetatzea, argitaletxeak...).

Horrekin lotuta, bideo hauek ikusi eta komentatu daitezke:

- [Euskal kantagintza berria](#)
- [Antzerkia: tradizioa vs modernotasuna](#)

4. Azken ekoizpena. Hainbat ekoizpen gara daitezke. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezeko bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.



- *"Hitzen arrastoa"*. Bideoan aipatzen diren literatura-lanak hobeto ezagutuko ditugu, irakurri gabe ezin baita jakin nolakoak diren.

Gure proposamena **10 liburu** eskuratzea da, eta bakoitzetik zatitxo bat irakurri eta aztertzea. Orrialde bat edo poema bat izan daiteke. Irakasleak egin dezake aukeraketa, eta ikasleei testuak banatu.



Ikasle guztiek irakurriko dituzte proposatutako testu-zatiak. Ondoren, binaka ipini eta bikote bakoitzak testu bat azter dezake (zozketa egin). Horretarako, taula hau baliagarria gerta dakieke:

Gaia: zeri buruzkoa da?	
Lekua eta garaia: non, noiz... gertatzen da?	
Denbora: orainaldian ala lehenaldian? Ordena: kronologikoa ala saltoak denboran?	
Pertsonaia(k): izaera, ezaugarriak...	
Narratzailea: 1. pertsonan, 2. pertsonan ala 3. pertsonan? Orojakilea, protagonista ala lekukoa?	
Estiloa: sotila ala barrokoa? Esaldi laburrak ala luzeak? Nolako hitzak darabiltza?	

Egindako azterketatxoa eta ateratako ondorioak ikaskideekin partekatzeko, ahoz emango dituzte azalpenak.

Gehiago irakurtzeko gogoz geratu denak hortxe ditu liburuak. Irakurtzera gonbidatu! *Egunero hasten delako* liburuak, esaterako, ez du gaurkotasunik galdu, ez gai aldetik ezta idazkerari dagokionez ere. Irakurtzera animatzen baldin badira, egun batean literatura-tertulia egin daiteke.

Jon Miranderen *Haur besoetakoa* Vladimir Nabokov-en *Lolita* (1955) lanarekin konparatzen dute, baina bideoan iritzi kontrajarriak daude. Aukera bat: bi liburuak irakurri, eta iritzi-trukea egitea. 50eko eta 60ko hamarkadetan nazioartean sona izan zuten beste liburu batzuk irakurtzea ere proposatu dezakegu. Hona hemen banaka batzuk (zerrenda luzea egin daiteke, noski):



Zekale artean harrapaka, J.D. Salinger (1951)
Godoten esperoan, Samuel Beckett (1952)
Eraztunaren elkarte, J. R. R. Tolkien (1954)
Eulien ugazaba, W. Golding (1954)
Lolita, Vladimir Nabokov (1955)
El almuerzo desnudo, William S. Burroughs (1959)
El tambor de hojalata, Günter Grass (1959)
Matar a un ruiseñor, Harper Lee (1960)
Koronelari ez dio inork idazten, Gabriel García Márquez (1961)
Laranja mekanikoa, Anthony Burgess (1962)
Rayuela, Julio Cortázar (1963)
Odol hotzean, Truman Capote (1966)
2001: Una odisea en el espacio, Arthur C. Clarke (1968)


Bideoan aipatzen diren beste idazle batzuen lanak ere ekar ditzakegu gelara, lehenagokoak: Verlaine, Mallarmé, Ruben Darío, Jean-Paul Sartre, Simone de Beauvoir... eta baita irakurritako lanek gogorazten dizkiguten beste liburu batzuk ere (adibidez, Gustave Flauberten *Madame Bovary*). Onena, irakurketa-promosamenak ikasleen interesen arabera moldatzea.

- *"Gaur egunera begira"*. Literaturaren eta musikaren artean lotura handia dago. Poema eta testu asko abesti bihurtu dira. Are gehiago: askotan ez dugu jakiten egilea zein den.

“Nire aitaren etxea” poema irakurri eta iritzi-trukea egin:

*Nire aitaren etxea
defendituko dut.
Otsoen kontra,
sikatearen kontra,
lukurreriaren kontra,
justiziaren kontra,
defenditu
eginen dut
nire aitaren etxea.
Galduko ditut
aziendak,
soloak,
pinudiak;
galduko ditut
korrituak,
errenteak,
interesak,
baina nire aitaren etxea defendituko dut.
Harmak kenduko dizkidate,
eta eskuarekin defendituko dut
nire aitaren etxea;
eskuak ebakiko dizkidate,
eta besoarekin defendituko dut
nire aitaren etxea;
besorik gabe,
sorbaldik gabe,
bularrik gabe
utziko naute,
eta arimarekin defendituko dut
nire aitaren etxea.
Ni hilen naiz,
nire arima galduko da,
nire askazia galduko da,
baina nire aitaren etxeak
iraunen du
zutik.*

Ondoren, entzun “Nire aitaren etxea” olerkiaren bertsio musikatu hauetako batzuk:



Harkaitz Canok Oskorri musika taldearen bitartez ezagutu zituen Gabriel Aresti idazlearen lanak: *Aresti, Oskorriren bidez.*

Joxean Artzeren eta Xabier Leteren poemekin ere gauza bera gertatzen da. Mikel Laboak kantatutako letra asko Artzerenak eta Leterenak dira: *Txorria txori* (hainbat bertsio ditu, *bertsio flamenkoa* tartean) eta *Izarren hautsa* ezagunak, adibidez.

Ikasleentzako proposamena: euskal idazle batek idatzitako letra duen abesti bat topatzea (bakarka ala binaka egin daiteke), eta, ahal dela, abesti horren historia ere bai. Ikerketatxoaren emaitza gelakideekin partekatuko dute, ahozko aurkezpen txiki bat eginez. Hona hemen aurkezpenean erabil dezaketen eskematxoa:

- Abestiaren izenburua esan
- Letraren egilea nor den
- Abeslaria nor den
- Abestiaren historia (noiz sortua, gaia, testuingurua, musikariak idazlearekin zuen harremana...)
- Abestia entzun
- Iritzia eman eta iritzi-trukea egin

- *"Sormena lagun"*. Egin dezagun liburu-objektu-disko bat, *Isturitzetik Tolosan barru* inspirazio-iturri moduan hartuta. Gaur egun askoz errazagoa da 60ko hamarkadan baino. Ez dira alferrik 60 urte igaro! Aurrerapen asko izan dira: letra tipoak, edizio-programak, online autoeditatzeko aukerak...

Ikasle bakoitzak testutxo bat sor dezake: narrazio labur bat, poema bat... Gai bat aukeratzea lagungarria gerta daiteke, batasuna emango dio proiektuari.

Ikus [*Idazketa tailer baterako aholkuak*](#) bideoa eta proposamenak ('*Jolasten*' eta '*Sormena lagun*' atalak bereziki), sormena aktibatzeke beharra izanez gero.

- Gaia/objektua/ikurra/sentimendua... aukeratu.
- Sormen librea: ikasle bakoitzak bere lana (testua, marrazkia...) sortu.
- Sormen-lanak partekatu. Testuen kasuan, irakurketa ozena egin.
- Dena elkartu, eta erabaki: letra tipoak aukeratu, tamaina, diseinua (marrazkiak egin ditzakete)... eta lanak banatu.
- Liburua osatu: maketatu eta inprimatu. PDF moduan ere zabaldu daiteke, modu digitalean.
- Grabaziorako: testuak grabatu eta audioari musika ipini (bideoa baldin bada, irudiak ere bai).

5. **Ekoizpena partekatzea.** Azken ekoizpenaren emaitza ahoz ematea lehenetsiko da, emaitza dena delakoa dela ere: ikus-entzunezkoa, ipuin-kontaketa, audio-ipuina... eta, ahal dela, bideokamerarekin grabatzea, ahozko jardunen bilakaera ikusteko. Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tartea izango da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea komeni da. Irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: [*ahozkoaren ezaugarriak*](#) eta [*baliabideak*](#).

6. Gaiak: Literatura: 70eko hamarkada

Helbidea: <https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/literatura-70eko-hamarkada>

The screenshot shows the website interface with a navigation bar containing 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Materiala', and 'Euskalkitegia'. The main heading is 'Literatura: 70eko hamarkada'. Below it, there is a video player with a play button and a metadata box. The metadata box contains the following information:

Mailak:	Baxilergoa
Proiektuak:	EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
Ikasgaiak:	Euskara eta literatura
Gaiak:	Euskara, Literatura
	0 puntu 5 izarreko maximitik
	0 iritzi guztira

Proposamen pedagogikoa

Bideoa ikusi aurretik:

1. Gaiaren aurkezpena egin: 70eko hamarkadako euskal literatura-lanak. Bideo hau ikusi aurretik, Literatura modernoaren hastapenei buruzko bideoa (60ko hamarkada) ikustea gomendatzen dugu, jarraipena ematen baitio. Aurre-egutzak aktibatzeke, gisa honetako galderak egin ditzakegu:

- 70eko hamarkada entzuten duzuenean, zer datorkizue gogora? Zer gertatu zen? Zer giro zegoen Euskal Herrian (frankismoaren amaiera, aldaketa sasoi)?
- Ezagutzen dituzue garai horretako literatura-aldizkariak?
- Zer dakizue Pott bandaz?
- Garai hartako lan batzuk aipatzerik bai?

Bideoa ikusi bitartean:

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak konparatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Ikasleek euren arreta erakarri duten pasarteak gogoan har ditzatela.
3. Ezagutzen ez dituzten terminoak, izenak edo erreferentziak apuntatu. Adibidez, Arantxa Urretabizkaiak Lur argitaletxeko ekipoa Ramon, Ibon, Aresti eta Kintana aipatzen ditu, izen-abizenak osorik esan gabe. Atzerriko hainbat autore aipatzen dira, eta baita Freud-en psikoanalisi ere. Terminologia: “ortodoxia kulturala”, “adierazkortasunaren krisia”, “krudelkeriaren antzerkia”, “modernismoaren kanona”, “espresionistak”, “kosmopolita”, “snob”, “performatibitatea”...

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin gehien ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren:

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:


- Harkaitz Canok dio euskal literatura 'anomalía' bat dela, ez genukeela existitu beharko. Ados al zaudete?
- Zer iruditzen zaizue “elur erori berrian ibiltzea”? Zuen ustez, euskal literaturan oraindik egon al daiteke zapaldu gabeko lur-eremurik?
- Lur argitaletxea mugarri bat izan zen euskarazko lanen hedapenean. Zergatik?
- Ezagutzen al zenituzten bideoan aipatzen diren idazleak eta lanak?
- Zein dira ezagunenak zuentzat? Irakurri dituzue? Irakurritakoak komentatu...

Sasoi bateko literatura-aldizkariak on-line daude, Armiarma proiektuan: Ustela, Pott... baita lehenagokoak eta ondorengoak ere. Aukera bat: testu batzuk aukeratu eta gelan irakurtzea.

Pott Banda eredu moduan hartuta, 90eko hamarkadan Lubaki Banda sortu zuen idazle gazte talde batek. Harkaitz Canoren azalpenak: Lubaki bandaren sorrera eta Pott bandaren klona.

- Gaur egun ba al dago literatura-bandarik?
- Zer ezaugarri izan beharko lituzke modernoa izateko? Zer aldatu da ordutik hona?

Bernardo Atxagaren *Ziutateaz* lana iluna dela diote bideoan, eta Atxagak berak sufrimendu handiko garaia izan zela aitortzen du. Zer gertatu zitzaion? Soldaduska garaiko amesgaiztoen jatorria zein izan zen hobeto azaltzen du bideo honetan. 'Krudelkeriaren antzerkiarekin' izan dezakeen lotura ere azter daiteke. Ikus Atxagak *Etiopia* liburuaz dioena ere: Etiopia lana (00:55). Ruper Ordorika abeslariak (Pott bandako kidea) *Etiopia*-ko poemen bertsio musikatua egin zuen, liburu bera baino ezagunagoa bihurtuko zena: Hautsi da anphora. Atxagak disko horri buruz dioena: Ruperren lanaz.



Olaziregik “adierazkortasunaren krisia” eta Samuel Beckett idazlea ([absurdoaren antzerkia](#)) aipatzen ditu, *Ene Jesus* eta *Etiopia* lanei buruz ari delarik. Hizkuntzaren krisia, adierazkortasunaren porrota... Samuel Beckett buruzko azalpen hau komenta daiteke:

“Egile irlandarrak idaztearen, hitz egitearen, inpotentzia irudikatu zuen Molloy edo Malone bezalako pertsonaia atormentatuekin. Bi Mundu Gerrak ezagutu ostean, bizitzaren absurdoa bera, alderik ilunena... testuratu zuen Beckettek. Horregatik dira haren fikziozko unibertsoak hain urratuak, hain hitsak... esperantza ororen hutsaltasuna bizi ondoren, literaturak berak geure buruaz hitz egiteko ere balio ez digulako” (iturria: [Wikipedia](#))

Zergatik *Panpox* lanean Urretabizkaiak Sigmund Freuden psikoanalisiari kritika egiten diola dio Marijo Olaziregik: “Eduki, ez eduki”...

- Zer dio Freudek? Ezagutzen al duzue haren “zakilaren inbidia”ren teoria?
- Zer kritikatu dio feminismoak Freudi?

Urretabizkaiaren *Zergatik Panpox* Virginia Woolf idazlearen *Miss Dalloway* lanarekin konparatu izan dute. Hona hemen Olaziregik horri buruz dioena: “[Zergatik Panpox](#)” lanaz (02:48tik aurrera).

Bideoan “idazle espresionistak” ere aipatzen dira. [Espresionismoa](#) zer den ere aipa daiteke, eta adibideak ipini (pintura, literatura, zinema...).

3. 60ko eta 70eko hamarkadak aldaketa-sasoia izan ziren alde askotatik. Frankismoa amaitzen ari zen, diktadura lasaitzen zihoan, askatasunerako bideak irekitzen... 60ko hamarkadan euskal kulturaren berpizte bat gertatu zen (Ez Dok Amairu, euskalduntze-alfabetatzea, antzerkia...), eta eztanda horrek 70eko hamarkadan izan zuen segida (1975. urtean hil zen Franco, eta lehenengo hauteskunde demokratikoak izan ziren: Eusko Jaurlaritza sortu zenean, euskal kultura diru-laguntza publikoak izaten hasi zen. Orduan sortu zen, besteak beste, EITB).

Bi hamarkada horietako giroa hobeto ulertzeko, bideo hauek ikusi eta komentatu daitezke:

- [Euskal kantaqintza berria](#)
- [Antzerkia: tradizioa vs modernotasuna](#)
- [Prentsaren qarapena](#)

4. Azken ekoizpena. Hainbat ekoizpen gara daitezke. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezko bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.

- *“Hitzen arrastoan”*. Bideoan aipatzen diren literatura-lanak hobeto ezagutuko ditugu, irakurri gabe ezin baita jakin nolakoak diren.

Gure proposamena 10 liburu eskuratzea da, eta bakoitzetik zatitxo bat irakurri eta aztertzea. Orrialde bat edo testu zatitxo bat izan daiteke. Irakasleak egin dezake aukeraketa, eta ikasleei testuak banatu.



Bideoan 70eko hamarkadako liburu bakan batzuk baino ez datoz, eta posible da zerrendan beste liburu batzuk sartzea ere (ikus "Testuingurua" atala). Nahi izanez gero, Pott bandako hiru kideren liburu hauek ere sar daitezke, geroagokoak izan arren:

- *Narrazioak*, Joseba Sarrionandia (1983)
- *Dudular*, Joxemari Iturralde (1983)
- *Obabakoak*, Bernardo Atxaga (1988)

Ikasle guztiek irakurriko dituzte proposatutako testu-zatiak, eta iritzi-trukea egin daiteke. Ondoren, binaka ipini eta bikote bakoitzak liburu bat azter dezake (zozketa egin daiteke, edo nahi dutena irakur dezatela, irakurgaia errepikatu arren). Liburua irakurri ostean, azterketa egiteko, taula hau baliagarria gerta dakieke:



Gaia: zeri buruzkoa da?	
Lekua eta garaia: non, noiz... gertatzen da?	
Denbora: orainaldian ala lehenaldian? Ordena: kronologikoa ala saltoak denboran?	
Pertsonaia(k): izaera, ezaugarriak...	
Narratzailea: 1. pertsonan, 2. pertsonan ala 3. pertsonan? Orojakilea, protagonista ala lekukoa?	
Estiloa: sotila ala barrokoa? Esaldi laburrak ala luzeak? Nolako hitzak darabiltza?	


Egindako azterketa eta ateratako ondorioak ikaskideekin partekatzeko, ahozko azalpenak egingo dituzte. Liburuari buruzko oinarritzko datuak eman ditzakete (izenburua, egilea, data) eta ondoren liburuaren ezaugarriak azaldu (gaia, pertsonaiak eta nola dagoen idatzita).

Gehiago irakurtzeko gogoz geratu denak hortxe ditu liburuak. Irakurtzera gonbidatu! Ikasle guztiek liburu bat irakurtzeko konpromisoa har dezakete, eta ondoren literatura solasaldia egin (gainera, nahi izanez gero, egilearekin harremanetan jar daitezke, galderak egiteko; gure klasikoak bizirik egotearen abantaila baliatu dezakete).

Bideoan aipatzen diren beste idazle batzuen lanak ere ekar ditzakegu gelara: Gabriel García Márquez, Juan Rulfo, Thomas Bernhard, Franz Kafka eta Annie Leclerc. Eta 70eko hamarkadan nazioartean sona izan zuten beste liburu batzuk irakurtzea ere proposatu dezakegu. Adibiderako: Patricia Highsmith idazlearen *Ripley trebea*.

- *“Sormena lagun”*. Ikasle bakoitzak testutxo bat sor dezake: narrazio labur bat, poema bat... Abiapuntu moduan, Mirari Sagarzazu marrazkilaria-aren lau komiki-tira izango ditugu:






- a. Komiki-tira aukeratu (onena gela lau taldetan banatu, eta talde bakoitzeko kide guztiek tira bera lantzea izango litzateke; komiki-tirak inprimatuta banatu)
- b. Istorio bat asmatu eta komiki-tiretan esaldiak idatzi, bakarka
- c. Komiki-tiran inspiratutako narrazioa, poema, testutxoa... idatzi, bakarka (emaitzak ez dauka marrazkietan agertzen den istorioari buruz izan beharrik, baina gutxieneko lotura bat izatea komenigarria litzateke; adibidez, pertsonaia, lekua...).
- d. Sormen-lanak partekatu, taldean (4 taldetan banatuta: komiki-tira bera landu duten guztiak elkarrekin)
- e. Sormen-lanak elkartu eta forma eman, taldean (komiki-tira bera landu duten guztiak, 4 talde): irakurketa ozenerako testuak aukeratu, testu berriak sortu...
- f. Irakurketa ozena egin, taldeka (4 taldeek, irakurgaiak guztien artean banatuta), ikaskideen aurrean.

Ondoren, hainbat lanketa egin daitezke. Testuak maketatu, osatutako komiki-tiretako bana aukeratuta, eta literatura-aldizkaria presta dezakete. Grabazioa ere izan daiteke, irudiz lagundutakoa (irakurketak grabatu egin daitezke). Talde bakoitzak erabaki dezala proiektu artistikoari zer forma eman eta nola zabaldu. Aukera bat: 4 taldeen lanak elkartzea (antzeko bidea egin baldin badute).

- *“Eman iritzia”*. Ikasleak *booktuber* bilakatuko dira. Euskarazko liburuei buruzko iritzia emango dute, *Youtube*-n zintzilikatzeko egingo dituzten bideo laburren bitartez (minutu eta erdi artekoak). Zer egin behar dute?




Ikusi [Booktuberboom](#) lehiaketarako prestatutako bideo batzuk. Adibiderako: [Sara izeneko qizona](#), [Atlas sentimentala](#), [Beti oporretan](#), [Behi euskaldun baten memoriak](#), [Bilbao-New York-Bilbao](#), [Gose jokoak](#), [Nola heldu naiz ni honaino](#).

5. **Ekoizpena partekatzea.** Azken ekoizpenaren emaitza ahoz ematea lehenetsiko da, emaitza dena delakoa dela ere: ikus-entzunezkoa, ipuin-kontakteta, audio-narrazioak... eta, ahal dela, bideokamerarekin grabatzea, ahozko jardunen bilakaera ikusteko. Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tarte izango da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea komeni da. Irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: [ahozkoaren ezaugarriak](#) eta [baliabideak](#).

7. Gaia: Idazketa-tailer baterako aholkuak (Literatura idatzia)

Helbidea: <https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/idazketa-tailerra>



Proposamen pedagogikoa

Bideoa ikusi aurretik:

1. Gaiaren aurkezpena egin, eta ikasleek idazketari buruz duten pertzepzioa ezaugutuko dugu. Aurre-ezagutzak aktibatzen, gisa honetako galderak egin ditzakegu:

- Gustatzen al zaizue ipuinak, istorioak, poemak... sortzea, asmatzea? Baduzue idazteko zaletasunik?
- Zaila ala erraza iruditzen zaizue?
- Nola sortu istorio bat? Nondik hasi orri zuriaren aurrean gaudenean?
- Ezagutzen duzue teknikarik? Baduzue inspirazio-iturririk?
- Irakurzaileak al zarete?

Bideoa ikusi bitartean:

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak konparatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Ikasleek euren arreta erakarri duten pasarteak gogoan har ditzatela.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Adibidez, Yolanda Arrietak Rodari aipatzen du (Gianni Rodari idazle italiar bat zen, gaztetxoekin hainbat idazketa-teknika erabili zituena).

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin gehien ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren:

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- Gustatu al zaizue bideoa?
- Ezagutzen al dituzue bideoan agertu diren idazleak? Eta haien lanak? Komentatu eta irakurgaiak proposatu.
- Zer iritzi duzue 'kopiatzeari' eta 'lapurtzeari' buruz? 'Kopiatzen' onak al zarete?
- Zer iruditu zaizkizue proposatu dituzten ariketak? Zer egingo zenukete gustura?
- Zuen ustez, idazlea 'sortu' ala 'egin' egiten da? Ikasi al daiteke idazten ala idazleak berezko dohaina izan behar du?

Idazteko, irakurtzea inportantea da. Bideoan ere badiote. Irakurtzen al duzue gaur egungo gazteok? [Euskara eta irakurzaletasuna](#) bideoa ikus daiteke. Joseba Sarrionandiaren *Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako* (2010, Xangorin) eta *Hitzen ondoeza* (1997, Txalaparta) liburuak, adibidez, oso egokiak dira sormena lantzeko eta literaturaren funtzioen inguruan gogoeta egiteko. Irakurri “Haur literatura” eta “Irakurtzea” sarrerak, *Hitzen ondoeza* liburutik:



Sarrionandiaren ustez, zer da irakurtzea? Bat al zatozte?

“Dena dago asmatuta”: aspaldiko esaera da. Harkaitz Canok ere horixe dio: “berriro kontatzea” dela literatura. Ikus bideoa: [Dena asmatuta dago](#) (00:25-01:30). Iritzi-trukea egin:

- Dena asmatuta baldin badago, zertarako berriro kontatu?
- “Kontatzearen plazera” aipatzen dute batzuek... 'berrasmatzean' emozioak pizten al dira?

3. **Azken ekoizpena.** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Bost adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezeko bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.
- **“Jolasten”.** Idazketa-laboretegia ipiniko dugu martxan, jolastuz sortzeko. Horretarako, bideoan proposatzen dituzten ariketa batzuk egin ditzakegu, bakarka zein talde txikietan jarrita.

Bakarka:

- a. **Idazketa automatikoa.** Ariketa azkarrak (3 minutu ariketa bakoitzarekin, kronometratuta):
 - Binomio fantastikoa: zer ikusirik ez duten bi hitz lotu (hitzak ikasleek proposatu ditzakete, momentuan bertan)
 - Esaldiak lotu (liburu bat ireki leku desberdinetatik eta hiru esaldi aukeratu)
 - Emozioak deskribatu: emozio hori pertsona bat balitz, nolakoa izango litzateke? Bat aukeratu eta idazten hasi: haserrea, tristura, poza, enbidia...
 - Bi leku desberdinetako pertsonaiak elkartu, eta elkarrizketa bat sortu. Adibidez, extralurtarra eta lurtarra, eskimala eta hawaiarra, aingerua eta deabrua...
 - X banintz. Mutila banintz, zaharra banintz, umea banintz, zu banintz...
- b. **Estiloak imitatu.** Adibidez, Danele Sarriugarteren *Erraiak*.
- c. **Besteen lanak eraldatu.** Ipuinei/olerkiei hasiera/bukaera aldatu. Gustuko poema bat edo abesti bat aukeratu, eta aldatzen joan. Adibidez, Pako Aristiren [poema hau](#) edo [beste hau](#) (hona hemen hainbat [poesia-liburu sarean](#), Susa argitaletxean).

Egindako lantxoak irakurri egingo dituzte, ikaskideekin partekatu. Modu dinamikoan egingo da irakurketa ere, ti-ta.

Taldeka:

Bideoan bi proposamen egiten ditu Uxue Alberdi idazleak. Bietako bat aukeratu, eta sormen kolektiboa oinarri duen lana egin dezakete ikasleek. Ondo legoke gela bitan banatu, eta talde bakoitzak bat aukeratzea. Hala, bi sormen-prozesu paralelo egongo lirake, eta aberasgarria izango litzateke.

Ikasleek pentsatuko eta gidatuko dute sormen-prozesua. Zer egin nahi duten erabakiko dute lehenengo, eta, ondoren, lanak banatu.

- a. **Poza.** 8 pozen partez 8 beldur, 8 tristura mota, 8 haserre mota... 8 animalirekin lotuta. Sentimendua aukeratu, eta sentimendu horrekin lotutako 8 animaliak, guztien artean. Ondoren, lana banatu: batzuek bertsoak sortu ditzakete, beste batzuek marrazkiak egin, besteek ahotsa jarri, besteek editatu... Emaidza eskuz egindako liburu ilustratua izan daiteke, baina baita ikus-entzunezkoa ere.
- b. **X hil da.** Obsesioen zerrenda osatu, guztien artean: 10 obsesio. Eta guztien artean grabaketa bat egin, gero musika jarri... marrazkiak eginez gero, ikus-entzunezkoa edo liburu ilustratua izan daiteke.

Bukaeran, egindako lana beste taldeko ikaskideei erakutsiko diete, ahozko azalpen sortzaile baten bidez.

- *“Hitzen arrastoa”*. Estrategia desberdina darabilten ipuinak aztertzea da proposamen honen oinarria. Lehenengo irakurraldian askotan ez gara jabetzen nola dagoen idatzita: gustatu zaigun ala ez, hori bakarrik dakigu normalean. Pauso bat gehiago emango dugu: gustatu baldin bazaigu, fijatu gaitezen nola dagoen idatzita.

Hona hemen euskal idazleen ipuin batzuk (zerrenda luzea egin daiteke; irakasleek eta ikasleek osatu dezakete zerrenda hau):

Ipuinaren izenburua	Liburua eta egilea
<u>“Regina”</u>	<i>Azukrea belazeetan</i> , Inazio Mujika Iraola (1987, Erein)
<u>“Niregandik espero zena”</u>	<i>Bihotz handiegia</i> , Eider Rodriguez (2017, Susa)
<u>“22 ebaki”</u>	<i>16 ipuin amodiozko</i> , Xabier Mendiguren Elizegi (2002, Susa)
<u>“Aulkien historiako une estelarrak”</u>	<i>Neguko zirkua</i> , Harkaitz Cano (2005, Susa)
<u>“Miramar”</u>	<i>Hezurren erretura</i> , Miren Agur Meabe (2019, Susa)
<u>“Preludioa”</u>	<i>Euli-giro</i> , Uxue Alberdi (2013, Susa)
<u>“Post tenebras spero lucem”</u>	<i>Obabakoak</i> , Bernardo Atxaga (1988, Erein)
<u>“Patitotik datozen usainak”</u>	<i>Ez naiz ni</i> , Karmele Jaio (2012, Elkar)
<u>“Estazioko begiradak”</u>	<i>Narrazio guztiak</i> , Joseba Sarrionandia (2011, Elkar)
<u>“Belauniko”</u>	<i>Umeek gezurra esaten dutenetik</i> , Uxue Apaolaza (2005, Erein)
<u>“Hiltzailearena”</u>	<i>Euskal ipuinen antologia bat</i> , Jon Mirande (Iñaki Aldekoa. 2011, Alberdania)
<u>“Sekretua”</u>	<i>Honetara ezkerro</i> , Arantxa Iturbe (2017, Susa)

10 ipuin aukeratu (ez daukate zerrendakoak izan beharrik), eta guztiak irakur ditzakete. Gelan bertan egin daiteke, ozenki, baina, bakarka irakurrita, mamia hobeto barneratuko dute seguruenez. Ondoren, bozketa egin, eta gustuko 5 ipuin aukeratuko dituzte, ahal dela idazkera aldetik desberdinak. Ondoren, binaka ipini eta bikote bakoitzak ipuin bat aztertuko du.

Ipuinaren estrategia nondik norakoa den jakiteko, taula hau betetzea baliagarria gerta dakieke beharbada:

Lekua eta denbora	
Pertsonaia(k)	
Egitura -Hasiera -Gertaerak: arazoak, ekintzak, konponbideak... -Bukaera	
Denbora: orainaldia ala lehenaldia? Ordena: kronologikoa ala saltoak denboran?	
Narratzailea: 1. pertsonan, 2. pertsonan ala 3. pertsonan? Orojakilea, protagonista ala lekukoa?	
Ekintzen narrazioa, azalpenak, deskribapenak eta elkarrizketak identifikatu (testu-generoak)	
Estiloa: sotila ala barrokoa? Esaldi laburrak ala luzeak, darabiltzan hitzak, testu korapilatsuak edo irakurterrazak...	

Egindako lanaren ondorioak ikaskideekin partekatuko dituzte, ahoz. Ipuinari buruzko iritzia ere emango dute (zergatik gustatzen zaien, adibidez).

- *“Sormena lagun.”* Ipuinak/narrazioak sortuko dituzte ikasleek. Hutsetik ez hasteko, irudimenari hegan egiten laguntzeko, argazkiak erabil ditzakete. Argazki bat hautatu, eta argazki horrek irudika dezakeen istorioa asmatu. Eta, ondoren, asmaturiko istorio horren ahozko irakurketa prestatu, talde aurrean egiteko.

Argazkilari batzuk aukeran (beren gustuko beste batzuk ere aukera ditzakete):

Henri Cartier-Bresson	Dorothea Lange	Sebastiao Salgado	Steve McCurry
Cristina García Rodero	Robert Doisneau	Francesc Català Roca	Chema Madoz
Erik Johansson	Helmut Newton	Robert Frank	Robert Cappa
Elliot Erwitt	Sally Mann	Musin Yohan	Brassaï
Ruth Orkin	Annie Leibovitz	Lee Friedlander	Richard Avedon
Inge Morath	Vivian Maier	Bill Brandt	Juana Biarnés
Sandra Balsells	Annie Griffiths	Cristina de Middel	Stefan Draschan

Margolarien lanak ere erabil ditzakete (ikus Euskal Herriko irudigileen [zerrenda](#): Axi, Eider Eibar, Elena Odriozola, Mattin...).

Beste modu bat objektu bat aukeratzea izan daiteke, eta objektu hori izatea ipuina sortzeko aitzakia, akuilua. Adibide moduan, irakurri Joseba Sarrionandiaren ipuin hau:

ISPILUA

(Antigualeko ipuin txinatarra)

Behin batean laborari batek hiriko azokara joan behar zuen eta emazteari galdetu zion ea zer opari nahi zuen hiritik ekartzea. Emaztea zer aukeratu jakin ez eta arratseko ortzeirantz begira geratu zen, eta laborariak ilargia nahi zuela pentsatu zuen.

Biharamun iluntzean, hiriko zereginak jadanik bukatuta, denda aurreko mahaiian salgai zegoen ispilu batean ilargi ikaragarri eder bat ikusi zuen. Ispilua erosi, eta laboraria pozik itzuli zen etxerantz.

Oparia emandakoan, baina, emaztea negarrez hasi zen:

- Jadanik ez nau maite, beste andere bat ekarri du -esaten zion emazteak bere amari.

Emaztearen ama beste emakumea begiratzearekin batera lasaitu zen:

- Ez arduratu, andere hori zu baino zaharragoa eta itsusiagoa da.

(Egokitua: *Hitzen ondoeza*, Joseba Sarrionandia. 1997, Txalaparta)

Ipuina sortzeko, nahi badute eskema klasikoa erabil dezakete:

- **Hasiera:** pertsonaia batzuk, leku bat eta egoera bat deskribatu
- **Korapiloa:** arazo bat, gertaera batzuk azaldu
- **Bukaera:** istorioa ixteko modu bat (ez dauka amaiera alaia izan beharrik)

Harkaitz Canok proposatzen duenari jarraiki, posible da bukaera hasiera bihurtzea. Esperimentatu!

Sortutako ipuina ozenki irakurtzeko, hartu kontuan honako hauek (irakurketa ozenari buruzko informazio gehiago, aurrerago, *"Bestearen azalean"* proposamenean):

- **Gorputz-adierazpena:** arnasa hartu eta noizbehinka begirada paperetik jaso, publikoari begiratzeko; irribarre egin...
- **Tonua aukeratu:** umorezkoa, tristea, misteriozkoa...
- **Erritmoa:** bizia, motela, aldakorra, isiluneak... Probak egin, eta nola irakurri erabaki.
- **Pertsonaien izaeraren arabera,** haien ahotsa nolakoa izango den pentsatu.

- *"Sormena lagun"*. Gustuko poemak edo narrazio laburrak aukeratu, norberak sortuak edo 'lapurtuak', eta bideo-literatura egitea proposatzen dugu.

- *Poema/narrazio laburra aukeratu*
- *Irudiak eta musika aukeratu*
- *Hitzak errezitatu eta grabatu*
- *Bideoa editatu: audioa, irudiak eta musika elkartu. Testua idatziz ere ipini.*

'Pitxiak' sor ditzakete. Adibiderako:



Beste aukera bat 'book-trailerrak' egitea da, edo kasu honetan 'poema-trailerrak' edo 'ipuin-trailerrak'. Adibiderako, ikusi hau: [Estazioko begiradak](#) ipuin-trailerra (Joseba Sarrionandiaren ipuinean oinarritua).

Ariketa hau talde txikietan egin daiteke (2-3 lagun), eta egindakoa gelakideekin partekatu, ahozko aurkezpen txikiak eginez bideo-emanaldiekin batera.

- *“Bestearen azalean.”* Irakurketa ozena egingo dute, bakarka. Ikasle bakoitzak ipuin bat aukeratuko du, eta ozen irakurri. Ipuina norberak sortua edo beste idazle batena izan daiteke.

Irakurketa ozena egiteko, erritmoa, tonua, isiluneak, begirada... kontuan izan beharko dituzte. Garrantzitsua da testua ondo ezagutzea, barneratzea. Testuan bertan markatu ditzakete isiluneak eta tonu-aldaketak. Ikusi Yolanda Arrietak bere idazketa-tailerretan darabiltzan bide-lerroak: [Irakurketa ozenerako jarraibideak](#) (01:55-04:25). Eta baita Pako Eizagirrereren azalpenak ere ([Aittu.eus](#) webgunearen sortzailea da): [Testua ezagutu eta barneratu](#) (00:30-01:40).

Bakarka egiteko lana izango da. Aukeratutako testua aztertu, eta ikasle bakoitzak zer irakurriko duen erabakitakoan, tonua eta erritmoa erabakiko du, probak eginez: zer tonotan irakurri (umorezkoa, serioa, lasaia...), pertsonaien ahotsak nolakoak izango diren, non egin geldialdiak, zer hitz nabarmendu...

Ozenki irakurriko dute, ikaskideen aurrean. Eta izan dituzten sentsazioen berri eman dezakete:

Gustura sentitu zara? Eroso ala deseroso? Urduri ala lasai?
Disfrutatzen ala bukatzeko irrikitan? Beldurrik piztu al zaizu?
(Gaizki egiteko beldurra, erridukulua egitekoa...)

Gustura geratu ez badira, hobeto prestatu, eta berriz irakur dezakete (adibidez, bakarrik egonda).

Irakurketa grabatu egin daiteke (momentuan bertan edo ondoren), eta horrekin hainbat lanketa egin daitezke. Bi aukera:

a) Audio-ipuina egitea: edizio-programaren bat erabiliz ahotsari musika eta soinuak gehitzea.

b) Bideo-ipuina egitea: edizio-programaren bat erabiliz ipuina bideo bihurtzea, marrazkiak/irudiak, soinuak eta musika ipinita. Adibiderako, ikus Aittu.eus webguneko ipuinak.


Emaitza ikaskideekin partekatu eta, nahi izanez gero, sare sozialen bidez ere bai.

Beste aukera bat ipuin-kontakteta egitea da, paperik gabe. Kontalaritzaren mundua ezagutzeko, ikus [Nola kontatu ipuin bat?](#) eta [Ipuinen transmisioa](#) bideoak (eta proposamenak).

4. Ekoizpena partekatzea. Azken ekoizpenaren emaitza ahoz ematea lehenetsiko da, emaitza dena delakoa dela ere: ikus-entzunezkoa, ipuin-kontakteta, audio-ipuina... eta, ahal dela, bideokamerarekin grabatzea, ahozko jardunen bilakaera ikusteko. Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tarte izango da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea komeni da. Irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: [ahozkoaren ezaugarriak](#) eta [baliabideak](#).

8. Gaiak: Ipuinen transmisioa (Ahozko literatura)

Helbidea: <https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/ipuinen-transmisioa>



Proposamen pedagogikoa

Bideoa ikusi aurretik:

1. Gaiaren aurkezpena egingo dugu. Aurre-ezagutzak aktibatzeko, gisa honetako galderak egin ditzakegu:

- Gustatzen al zaizue ipuinak, istorioak eta anekdotak entzutea? Eta kontatzea?
- Ipuin asko ezagutzen al dituzue? Aipatu zuen gustuko batzuk.
- Etxean kontatu al dizute ipuinik/istoriorik? Nork? Nola? Noiz?
- Ipuinak behar bezala kontatzeko, testuingurua inportantea da. Zuen ustez, zer behar da? (Hartzaile aproposak, isiltasuna, arreta edo entzuteko gogoa, irrika edo kontatzeko gogoa...).
- Zuen ustez, ba al dago ipuinak ondo kontatzeko teknikarik? Zer egin daiteke entzulearen arreta erakartzeko?
- Zer ezaugarri dituzte ipuinek?

Ipuina narrazio mota bat da, fikziozkoa. Ipuina edo istorio laburra: irudimenak sortutako kontakizuna, bereziki alegiazkoa (baina ez beti), denbora tarte batean eta toki batean pertsonaia bati/batzuei gertatutako ekintzak kontatzen dituena.

Bideoa ikusi bitartean:

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak konparatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Ikasleek euren arreta erakarri duten pasarteak gogoan har ditzatela.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Adibidez, euskalkietakoak: *uskun* (zigun), *azen* (zeuden), *auen* (zuen), *gaz* (gaude), *dusku* (digu), *solasten* (hitz egiten), *afixan* (kabian), *botaidek* (bota iezadazu, toka), *utsen* (zion/zizkion), *dustat* (dizut, toka), *itzartu* (esnatu)...

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin gehien ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren:

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- Ezagutzen al zenituzten bi ipuin horiek?
- Zer bertsio gustatu zaizue gehien? Zergatik?
- Musikarekin ala gabe nahiago?
- Ipuinen bukaerak borobilak al dira? Inportantea al da bukaera ematea?
- Testuingurua/egoera bera al da adinekoen kasuan eta kontalarien kasuan? (Nori zuzendu, prestaketa...). Adinekoek berdin kontatuko al lukete aurrean, adibidez, bilobak izanez gero?

Ameli eta Karrere ipuin-kontalariei jatorrizko ipuinak eman zizkieten, eta bertsiio bana egiteko eskatu. Adinekoei, berriz, beren bizimoduari buruzko beste galdera askoren artean, elkarrizketatzaileak “badakizu ipuinik?” galdetu zien. “Bai? Ba kontatu!”. Baina ez zegoen hartzaile egokirik, ez girorik... ipuinak kontatzeko, eta astirik ere ez zuten izan ipuina gogoratzeko.

Zer gehiago izan behar da kontuan ipuin/istorio bat kontatzeko orduan?
(Ahots-tonua, erritmoa, begirada, gorputz-adierazpena...)

3. Interesgarria da kontalaritza eta antzerkia bereiztea, nahiz eta batzuetan muga lausoa izan (era guztietako antzezlanak daudelako). Kontalaritzan:

- Narratzailea norbera da, ez pertsonaia bat: ez du antzestu behar
- Kontalariak inprobisaziorako aukera handiagoa du: istorioa publikoaren, lekuaren eta egoeraren arabera alda dezake (ez dauka gidoi finkorik)
- Ez du ezer behar (atrezzorik, mozorrorik... eszenatokirik ere ez)

Nola kontatu ipuin bat? bideoa ikusi, eta komentatu:

- Bideoko kontaketa-estrategietatik zein da gehien gustatu zaizuena? Zergatik?
- Zuen ustez, zer da egiteko zailena?
- Ikasi al daiteke istorioak/ipuinak ondo kontatzen ala kontalariak berezko dohaina izan behar al du?



Irudia: [Kulturklik](#)

4. Azken ekoizpena. Hainbat ekoizpen gara daitezke. Lau adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezeko bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.

- *"Hitzen arrastoan"*. Bideoa bi ipuinen bertsoak aztertuko ditugu, talde txikietan banatuta: **A.** eta **B.** Talde bakoitzak ipuin bat aztertuko du:

- A.** Hontzarena
- B.** Axelko eta otsoko

Bideoa berriz (nahi beste aldiz) ikusiko dute ikasleek, oraingoan kontalariak darabiltzaten kontaketa-estrategiei erreparatuz. Kontalari bakoitzarekin taula bat bete dezakete, eta, hala, hirurak konparatzeko aukera izango dute:

Tonua		
Erritmoa		
Pertsonaien izaera	Ahotsa	
	Keinuak	
Hizkuntza-baliabideak	Onomatopeiak	
	Esamoldeak	
	Formulak	
	Errepikapenak	
	Exajerazioa	
Kontalariaren gorputz-adierazpena	Keinuak	
	Begiradak	
	Espazioaren erabilera	

Nahi izanez gero, ipuinaren egitura eta edukia ere landu ditzakegu. Ipuinak sortzeko baliagarria gerta dakieke:

<p>Lekua eta denbora</p>	
<p>Pertsonaia(k)</p>	
<p>Egitura</p> <ul style="list-style-type: none"> -Hasiara -Gertaerak: arazoak, ekintzak, konponbideak... -Bukaera 	
<p>Denbora: orainaldia ala lehenaldia?</p> <p>Ordena: kronologikoa ala saltoak denboran?</p>	
<p>Narratzailea: 1. pertsonan ala 3. pertsonan?</p> <p>Orojakilea, protagonista ala lekukoa?</p>	
<p>Ekintzen narrazioa, azalpenak, deskribapenak eta elkarrizketak identifikatu</p>	

Taldetxo bakoitzak ikaskideekin partekatuko du egindako lana, eta ateratako ondorioak azalduko dituzte, ahozko azalpenak emanez.

- *“Jolasten”*. Kontaketa-laboretegia jarriko dugu martxan. Kontalaritza-estrategiak lantzeko, esperimendu batzuk egingo ditugu: esaldi eta testu laburrekin jolastuko dugu, talde txikietan jarrita (2-3 lagun). Hona hemen jolas batzuk, aukeran:

- Asmatutako hizkuntza:** Momentuan asmatutako hizkuntza batean hitz egin, aurrez zer sentimendu transmititu nahi diren pentsatuta (haserrea, poza, lotsa, beldurra... bi aukeratu).
- Tonua:** “Goseak amorratzen nago” esaldia esan, ahotsa aldatuz: otsoa izanda, umea izanda, triste, pozik, gogaituta, haserre, misteriotsu... bururatzen zaizkien aukera guztiak erabilita, txandaka.
- Pertsonaien izaera:** Ahotsa eta keinuak. Aurkezpen txiki bat egin. Adib.: “Txanogorritxo naiz eta amonaren etxera noa”. Pertsonaiak aldatzen joan: gaiztoa, eroa, inuxentea, lotsatia, bihurria, lotia, erretxiña, alaia, tristea, kexatia...
- Espazioa:** “Ikusi, hor/han dago!” eta “Badator, badator...” esaldiak erabili. Egoera: iratxo bat, erraldoi bat, txori bat, mamu bat, erle bat... guregana gerturatzen ari da.
- Inprobisazioa:** Taldeko pertsona bakoitzak hitz bat (edo bi) esango du, eta hitzak paper batean idatziko dituzte. Guztien artean istorio txiki bat asmatuko dute, hitz horiek erabilita. Bat-batean egitekoa, istorioa idatzi gabe. Gero kideei kontatu.

Kontaketa-laboretegitiko jolasak grabatu egingo dituzte, gero bakoitzak bere burua ikusi eta baloratu ahal izateko.

- *“Bestearen azalean”*. Ipuin-kontalari izateko unea iritsi da. Ikasle bakoitzak ipuin bat aukeratu eta kontatu egingo du. Horretarako, prestaketa-lanak binaka egingo dituzte: lehenengo ikaskide baten aurrean kontatuko dute ipuina, eta haren aholkuak eta laguntza jasota, gero ikaskide guztien aurrean.

Publikoaren aurrean zaude: zein da hartzailea? Ez da gauza bera 3 urteko umeei edo helduei kontatzea. Ikusi *Doña Karmenen ipuina* eta Yolanda Arrietaren *Oinutsik jauregian*.

Kontuan izan orain arte ikusitakoa ([Nola kontatu ipuin bat?](#) bideoa berriro ikus daiteke):

- Gorputz-adierazpena: ahotsa bezain inportantea da, edo gehiago! Begiradak, keinuak, espazioaren erabilera, arnasa...
- Tonua eta erritmoa: umorezkoa, tristea, misteriozkoa...
- Erritmoa: bizia, motela, aldakorra, isiluneak...
- Pertsonaien izaera: ahotsak, keinuak...
- Hizkuntza-baliabideak: onomatopeiak, esamoldeak, erregistroak...

Ez duzu paperik behar: ez zara testuan oinarrituko. Istorioaren eskema ezagutzea da garrantzitsua.

Zer ipuin aukeratu? Aukera bat Amelik eta Joxe Mari Karrerek kontatutako ipuinak berriz kontatzea da, baina nor bere erara eta nahi beste gauza aldatuta (egitura nagusia soilik mantenduta). Hau da, beste bertsio bat egitea.

Hona hemen [ipuin gehiago](#), aukeran:

<i>Peru eta Maria</i>	Jatorrizko bertsioa	Ameliren bertsioa	Karrereren bertsioa
<i>Otsoa eta ilargia</i>	Jatorrizkoa	Amelirena	Karrerereña
<i>Kipuliotxu</i>	Jatorrizkoa	Amelirena	Karrerereña
<i>Astakumearen istorioa</i>	Jatorrizkoa	Amelirena	Karrerereña
<i>Katu beltzaren ipuina</i>	Jatorrizkoa	Amelirena	
<i>Sasi guztien gainetik</i>	Jatorrizkoa	Amelirena	

Beste aukera bat: gustuko ipuin bat aukeratzea eta horixe kontatzea. Ez dauka ipuin tradizional bat izan beharrik ere. Oraingo istorio bat edo norberari gertatutako anekdota bat ere izan daiteke.

Ondo legoke kontaketa bidez grabatzea, gero ikusi eta aztertu ahal izateko. Kontaketa egitean nola sentitu diren ere komentatu dezakete (zer zailtasun izan dituzten, disfrutatu duten ala ez...).

- *Bestearen azalean*". Irakurketa ozena egingo dugu, bakarka. Ikasle bakoitzak ipuin bat aukeratuko du, eta ozen irakurri.

Kasu honetan, ikasleak testua izango du aurrean, eta gorputz-adierazpenak ez du kontalaritzan bezainbesteko garrantzia izango. Erritmoa, tonua, isiluneak... horiek bai, kontuan izan beharko ditugu. Testuan bertan markatu daitezke isiluneak eta tonu-aldaketak. Testuari erreparatuko diogu.

Pako Eizagirrereren azalpenak kontuan izan ditzakegu, aditua baita lan horretan (Aittu.eus webgunearen sortzailea da): *Testua ezaqutu eta barneratu* (00:30-01:40). Eta baita Yolanda Arrietarenak ere: *Irakurketa ozenerako jarraibideak* (01:55-04:25).

Irakurgai guztiak ez dira egokiak ahoz kontatzeko. Testu batzuek askoz hobeto funtzionatzen dute paperean. Hona hemen irakurketa ozenerako aporposak izan daitezkeen liburu batzuk:



Aukeratutako testua aztertu eta ikasle bakoitzak zer zati irakurriko duen erabakitakoan, tonoa eta erritmoa erabakiko dute, probak eginez: zer tonotan irakurri (umorezkoa, serioa, lasaia...), pertsonaien ahotsak nolakoak izango diren, non egin geldialdiak, zer hitz nabarmendu...

Testua barneratuta dutenean (markatu egin dezakete, nahi badute):

- ✓ Ozenki irakurriko dute ikaskideen aurrean. Grabatu (audioa edo bideoa graba daiteke. Adibiderako, ikus: *Txirri, Mirri eta Txiribiton oporretan*).
- ✓ Izan dituzten sentazioen berri emango dute:

Gustura sentitu zara? Eroso ala deseroso? Urduri ala lasai? Disfrutatzen ala bukatzeko irrikitan? Beldurrik piztu al zaizu? (Gai izan egiteko beldurra, erridukulua egitekoa...)

- ✓ Gustura geratu ez badira, hobeto prestatu, eta berriz irakurri eta graba dezakete (adibidez, bakarrik egonda).

Ondoren, hainbat lanketa egin daitezke. Bi aukera:


- Audio-ipuina egitea:** edizio-programaren bat erabiliz ahotsari musika eta soinuak gehitzea.
- Bideo-ipuina egitea:** edizio-programaren bat erabiliz ipuina bideo bihurtzea, marrazkiak/irudiak, soinuak eta musika ipinita. Adibiderako, ikus Aittu.eus webguneko ipuinak.

Eraitza ikaskideekin partekatu eta, nahi izanez gero, sare sozialen bidez ere bai.

- Ekoizpena partekatzea.** Azken ekoizpenaren eraitza ahoz ematea lehenetsiko da, eraitza dena delakoa dela ere: ikus-entzunezkoa, ipuin-kontakteta, audio-ipuina... eta, ahal dela, bideokamerarekin grabatzea, ahozko jardunen bilakaera ikusteko. Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tartea izango da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea komeni da. Irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: [ahozkoaren ezaugarriak](#) eta [baliabideak](#).

9. Gaia: Euskarazko prentsaren garapena (Euskararen normalkuntza)

Helbidea: <https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/prentsaren-garapena>



Proposamen pedagogikoa

Bideoa ikusi aurretik:

1. Gaiaren aurkezpena egingo dugu: euskarazko hedabideak izango ditugu hizpide, prentsa bereziki. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.

- Ba al duzue euskarazko prentsa irakurtzeko ohiturarik?
- Euskara hutsezko zenbat egunkari egon dira historian zehar?
- Noiz sortu zen euskarazko lehen egunkaria?
- Zein dira euskarazko aldizkari ezagunenak zuentzat?
- Zuen ustez, euskaraz zerbait falta al da gaur egungo hedabideetan? (Moda, bidaiak, kirola, musika, teknologia, txutxumutxuak...).
- Iritzi-trukea egin.

Bideoa ikusi bitartean:

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak konparatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Ikasleen arreta erakartzen duten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu ditzatela. Adibidez: *Arantzazuko takua* (Arantzazuko fraideek ateratzen zuten egutegia), "*refugium peccatorum*" (latinezko esaera: 'bekatarien babeslekua'), "*ecce homo*" (latinezko esaera: 'hona hemen gizona')...

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazio guztia barneratzeko.

Bideoa ikusi ondoren:

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu.

- Ezagutzen al zenuten euskarazko prentsaren historia?
- Ezagutzen al dituzue bideoan agertzen diren pertsonak? (Elixabete Garmendia, Miren Jone Azurza, "Amatiño", Joxe Mari Iriondo...).
- Eta bideoan aipatzen dituzten izenak? ("*Basarri*", Rikardo Arregi, Joxemi Zumalabe...).
- Euskarazko hedabide gehienak elizaren babespean sortu ziren (baita lehenengo ikastola klandestinoak ere). Zergatik? Zein zen euskararen egoera gerraostean?

Euskarazko hedabideak zapalduak izan direla dio Elixabete Garmendia kazetariak, “susmopekoak” izan direla Espainiako agintarientzat.

- Ados al zaudete?
- Zer beste egunkari eta aldizkari itxi zituzten? (Egin, Ardi Beltza...), Noiz?
- Orain ere “susmopekoa” al da euskal prentsa?
- Gaur egun ba al dago zentsurarik? (Mozal legea...)

Gai honekin lotuta Euskara eta zentsura bideoa ikus daiteke.

3. Euskara batua garrantzitsua izan zen prentsa eta literatura nazionala izateko, guztientzat bakarra:

- Imaginatzen al duzue euskara baturik gabeko garaia? Nola idatziko genuke?
- Zuen ustez, zer abantaila eta desabantaila ditu euskara batuak?

Gai honetan sakontzeko, Euskara batua eta euskalkiak bideoa ikus daiteke.

Bideoan ez dira sasoi bateko euskarazko aldizkari guztiak aipatzen, bakan batzuk baino ez. Besteak beste, tokiko prentsa falta da: herri-aldizkariak. Gaur egun asko daude, herri askotan, baina horiek ere nahiko berriak dira: 80ko hamarkadan sortu ziren lehenengoak (ikus fitxako “Testuingurua” atala; bereziki 80ko hamarkada bitartekoak datoz hor ere, ez guztiak. Gaur egungo asko falta dira).

4. Azken ekoizpena. Hainbat ekoizpen gara daitezke. Lau adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezeko bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.

- *“Historia egiten”.* Euskarazko prentsaren historiaren zatitxo bat ezagutu dugu, oso txikittoa eta mugatua. Eremu zabala dago ikergai, eta horixe proposatuko diegu ikasleei. Talde txikietan banatuta, gai bat aukeratu eta ikerketatxoa egin dezatela. Eraitza ahoz partekatuko dute ikaskideekin, aurkezpen txikiak eginez.

Gai posible batzuk:

Prentsa:

- Gerra aurreko prentsa (Javier Díaz Nocik tesia dauka eginda gai horri buruz: [Euskal kazetaritzaren sorrera eta garapena](#) 1834-1939)
- Sasoi bateko egunkari elebidunetako artikulua aztertu (*El Día*, *Euzkadi*...)
- *Eguna* egunkariko artikulua batzuk aukeratu eta aztertu
- Sasoi bateko euskarazko aldizkarien historia (aldizkari bat aukeratu eta aztertu; ikus [literatura-aldizkariak](#))
- Gaur egungo euskarazko aldizkariak (bat aukeratu: herri-aldizkariak, literatura...)

Irratigintza:

- Irratigintzaren historia: gerra aurreko irratia
- Irratigintzaren historia: gerraosteko irratien historia
- Irrati bat aukeratu eta aztertu (Loiolako herri irratia, Segura irratia, irratia libre bat...)

Telebista:

- EiTB*ren historia (Noiz eta nola sortu zen, garapena...)
- Tokiko telebistak ([Hamaika](#), [GoiTB](#)...)
- Telebista digitalak ([Kanaldude](#), [Berria](#)...)

Ikerketatxoa egiteko, dokumentazio-lana (tesiak, ikerketa-lanak, liburuak...) izango da oinarri nagusia. Hori bai, elkarrizketak ere egin ditzakete (horretarako, ikus hurrengo proposamena: “Zu zeu elkarrizketatzaile”).

Aurkezpenak egitea izango da azken pausoa (Genially bezalako programak erabil ditzakete; adibiderako, ikus [Elbira Zipitriaren ibilbidea](#), [Lizardi eta Lauaxeta](#) eta [Literatura berria](#)).

- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Ikasleak kazetari bihurtuko dira, eta kazetariak elkarrizketatuko dituzte (herrikoak edo eskualdekoak badira hobeto, gertutasunarengatik). Euskarazko hedabideen garapenari buruz eta kazetari moduan izan duten ibilbideaz galde diezaiekete.

2-3 laguneko taldetxoetan egin daiteke. Nor elkarrizketatu erabakitakoan, hurrengo pausoa hitzordua lotzea izango da. Baiezkoa lortzean, galdetegia prestatu: galderen zerrenda. Elkarrizketaren helburua(k) argi izanda, emaitza hobek lortzen dira. Hori bai, inprobisazioari tarte bat uztea ere garrantzitsua da; elkarrizketan bertan galdera berriak sor daitezke, elkarrizketatuak kontatzen duenaren arabera.

Elkarrizketa bideoz grabatzea proposatzen dugu (ikus [jarraibide orokorrak](#)). Adibide gisa, ikusi Jakintza ikastolako ikasleek egiten dutena: [Ordiziako ikasleek egindako elkarrizketak](#).

Ondoren, hainbat lanketa egin ditzakegu grabazioarekin, hedabideen jarduna ezagutzeko eta lantzeko (ikasle taldetxo bakoitzak lanketa desberdina egin dezake):

- Bideo-erreportaje labur bat** prestatu grabatutako irudiekin (horretarako, editatzeko programaren bat erabiltzen erakutsiko diegu, adibideak emanez). Bideo-erreportajea sarean zintzilikatu.
- Elkarrizketa idatziz jarri**, egunkari digital edo blog baterako (titulua, azpititulua, sarrera, galde-erantzunak, argazkia, azgazki-oina...). Bi aukera: elkarrizketa eran jartzea, galdera-erantzunak zuzenean sartuta, edo erreportaje eran, elkarrizketan jasotako esaldiak zeharka sartuta. Adibiderako, ikus Jakintza ikastolako ikasleen lanak.
- Irratsaio baterako erreportajea/elkarrizketa** gertatu, elkarrizketako audioa erabilita. Sarrera prestatu (aurkezpena) eta grabatu; musika ere erabil dezakegu. Gertuko irratiren batera bidali.

Ondo legoke grabazioak [Ahotsak.eus](#)-era, ahozko ondarearen artxibora, bideratzea (adibiderako, ikus Donostiako [San Ignazio ikastetxeko ikasleen proiektua](#)).

Egindako lana gelakideei aurkeztea eta azalpenak ematea izango da azken pausua.

- *"Sormena lagun"*. Kazetari-lanetan aritzeko proposamena da hau ere. Baina elkarrizketaz aparte, badaude beste idazketa-molde batzuk ere.

Kontuan izan behar da 'kazetaria' eta 'idazlea' 'ez direla lanbide bera: kazetariaren langaia informazioa eta objektibotasuna dira. Hori bai, badaude sormenerako tartea uzten duten lanak ere kazetaritzan. Prentsan gehien erabiltzen diren idatziak ezagutuko ditugu, zer ezaugarri dituzten:

- **Artikulua.** Informazio hutsa. Batzuetan ez dago prentsaurrekora joan beharrik ere, prentsa-oharrekin eta agentzietako informazioarekin aski izan daiteke. Ikus [adibidea](#).
- **Erreportajea.** Informazioa da oinarria, baina aberatsagoa da. Kazetariak bere estiloa emateko aukera dauka. Gaiaren enfokea ere berak aukeratzen du. Ikuspegi bat baino gehiago jorratzen ditu eta elkarrizketatuen hitzak zeharka sartzen dira testuan. Bi adibide: [Zoriontsu ezer gutxirekin](#) eta [Trenez kostahala kostahala](#).
- **Elkarrizketa.** Elkarrizketatuaren hitzak bere horretan datoz (elkarrizketa eginda, erreportajea ere egin daiteke, elkarrizketatuaren hitzak zeharka sartuta). Galdera-erantzunak osorik daude. Sarreratxoan dauka kazetariak "luzitzeko" aukera (baita elkarrizketatuari buruzko bere iritzia ematekoa ere; [adibidea](#)). Ikus aurreko atala: "Zu ere elkarrizketatzaile". [Elkarrizketa motak](#) bideoa ere ikusi.
- **Kronika.** Informazioa baino areago doa. Gertaera batzuk kontatzen dira, kazetariaren sentipenetatik abiatuta, eta nabarmendu nahi denaren aukeraketa bat eginez (aukeran dago iritzia eman ala ez). Adibide batzuk: [Bidaia-kronikak](#).
- **Iritzi-artikulua.** Ez da informazio hutsa. Bere iritzia ematen du artikulugileak. Adibidea: [Karmelean Jaio idazlearen artikulua](#).

Bakarka egiteko lana izango da. Ikasle bakoitzak bere gustuko idazmoldea aukeratuko du, eta ariketatxo bat egin, ikusitako ereduak aintzat hartuta. Sormena lantzeko bidea ematen dutenak lehenetsiko ditugu: erreportajeak, kronikak eta iritzi-artikuluak. Ikus [sailkapen hau](#) ere.

Eraitza ikaskideekin partekatuko dute, ozenki irakurrita. Albisterako elkarrizketaren bat egin baldin badute eta bideoan grabatu, bideo-zatitxo bat aukeratu, eta hori ere erakutsi dezakete.

- *"Gaur egunera begira"*. Gaur egungo euskarazko aldizkariak zein diren aztertu, dauden hutsuneak identifikatu, eta ikasleek beren gustuko aldizkari digitala sortzea izango da erronka.

**Zeintzuk dira gaur egungo euskarazko aldizkariak?**

Zerrenda bat osatu dezakete, guztien artean (*Gaztezulo*, *Aizu!*, *Entzun!*, *Gaur8*, *Elhuyar*, *Jakin*, *Thebalde*, *111aldizkaria*, *Hegats*, *Maiatz*, *Behinola*, *Ekaia*, *Hik Hasi*, *Bertsolari*, *Gazteberri*, *Karmel*, *Herria*, *Egan*, herri aldizkariak...). Aldizkari digitalek ere balio dute (*Zut*, *Ttap*, *Sustatu*, *Ikasbil*...). Azaldu dezatela zein diren gehien gustatzen zaizkienak. Ezagutzen ez dituztenak ezagutzeko balio dezake (sarean bilatu edo ale batzuk eraman gelara). Gai honekin lotuta, *Gazteak eta euskarazko hedabideak* bideoa ere ikus daiteke.

112


**Zer falta da gaur egun? Zer irakurriko zenukete gustura?**

Gustuko gai batekin/batzuekin lotutako aldizkari digital bat egitera animatuko ditugu. Adibidez, bidaiak, literatura, moda, teknologia... Ereduak bilatu ditzakete beste hizkuntza batzuetan eta antzeko zerbait egiten saiatu euskaraz. Bideoz/audioz osatutako webgune bat edo Youtubeko kanal bat ere izan daiteke.

- 5. Ekoizpena partekatzea.** Ekoizpena dena delakoa izanda ere, ikasleek beti ahozko aurkezpena/azalpena/kontaketa egitea proposatzen dugu, ahozkotasuna lantzeko, eta, ahal dela, bideokamerarekin grabatzea, ahozko jardunen bilakaera ikusi eta aztertu ahal izateko. Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tartea izango da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea komeni da. Irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: *ahozkoaren ezaugarriak* eta *baliabideak*.

10. Gaia: Iritziak eta argudioak (Ahozko testu-generoak)

Helbidea: <https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/iritziak-eta-argudioak>



113

Proposamen pedagogikoa

Bideoa ikusi aurretik:

1. Gaiaren aurkezpena egingo dugu: argudio-testuak izango ditugu hizpide. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.

- Eguneroko bizitzan etengabe darabiltzagu argudioak: familian, lagunekin, auzokoekin... Oso umetatik gara argudiatzeko gai. Bururatzen al zaizue adibideren bat? (Gurasoei zerbait eskatzeko...)
- Zer da argudiatzea? Bota definizioak!
- Gauza bera al dira iritzia ematea eta argudiatzea (nork bere iritzia defendatzeko arrazoiak ematea)? Eman al dezakegu iritzia argudiatu gabe?
- Argudioa ahozko testu-generoetako bat da. Zer ezaugarri linguistiko ditu? Zer formula erabiltzen dira argudiatzeko?

Ahozko testu-generoak, Adam-en arabera (1987): narrazioa, deskribapena, argudioa, azalpena eta instrukzioa. Argudiozko testuaren barruan iritzia dago. Hori bai, kontuan izan behar da ahozko jarduna genero-nahasketa dela. Narrazioa, argudioak, deskribapenak, azalpenak... nahasten ditugu hitz egiterakoan.

Bideoa ikusi bitartean:

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak konparatu.
2. Ikasleek euren arreta erakartzen duten pasarteak gogoan har ditzatela.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Adibidez: *handicap* (desabantaila, ingelesetik hartutako hitza), *urtegaz* (urterekin), *biziki* (oso), *ainitz* (asko), *ukan* (eduki), *fite* (azkar)...

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazio guztia barneratzeko, eduki zein forma aldetik.

Bideoa ikusi ondoren:

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritzia partekatu.

- Zer iritzi gustatu zaizue gehien? Zergatik? (Gaia, iritzia emateko modua...)
- Argi geratu zaizue bakoitzak zer defendatzen edo kritikatzeko duen? Esaldi batean laburbildu beharko bazenute, zer esango zenukete? Mikelek... Rubenek... Onintzak... Gorkak... Uxuek... (Adibidez, "Ruben A eta B ereduak desagertzearen alde dago; eredu bakarra D eredu izan beharko litzatekeela uste du").
- Konbentzitzeko moduko arrazoiak erabiltzen al dituzte?
- Zer iritzi daukazu agertu diren gaien inguruan? Konforme zaudete? Kontrako iritzirik baldin baduzue, lasai esan pentsatzen duzuenena. Iritzi-trukea egingo dugu.

3. Argumentazioa genero diskurtsibo bat da, berezko estrategia diskurtsiboak eta ezaugarri linguistikoak dituena. Argudiozko testu-generoen barruan iritzia dago.

Iritzia ematean arrazoiak/argudioak eman ditzakegu, iritzi hori justifikatzeko, baina ez dago derrigor norbait konbentzitzen saiatu beharrik (batzuetan hala izaten den arren). Argudiatzea, berriz, bestea konbentzitzeko izaten dugun elkarrizketa izan ohi da, aldeko eta kontrako arrazoiak emanez.

Argudiatze-egoeretan **3 ezaugarri hauek** betetzen dira:

- a. Egoera/gai bati buruzko **ikuspegi kontrajarriak** daude
- b. Argudiatzaileak **jarrera jakin bat** hartzen du
- c. Bestea **konbentzitzen** saiatzen da, **arrazoiak** emanez

Hiru adibide ikusiko ditugu. Argudiatze-egoerak al dira? Zergatik?

- *“Ez dut patata-tortilla nahi. Ez zait patata-tortilla gustatzen, arrautzak kalte egiten didalako. Nahiago dut tostadak jan”.*
- *“Mendira baino hobeto hondartzara baldin bagoaz, ala? Eguraldi honekin bainatu egin gaitzke eta mendian lainotuta egon arren ere berdin-berdin da. Ura oso tenperatura onean dago orain eta mendian bero pasatuko dugu”.*
- *“Liburu hori zoragarria iruditu zait. Irakurtzeko erraza, baina aldi berean sakona eta hunkigarria”.*

Bideoan ikusitako iritzietara bueltatuta:

- Zuen ustez, ikuspegi kontrajarriak dituzten gaiak al dira bideoak?
- Jarrera jakin bat al dute gaiari buruz?
- Ikusi dugun bideoan ba al dago elkarrizketarik? (Ez dakigu elkarrizketatzaileak zer galdetu eta zer erantzun dien)
- Zer tonu darabilte? (Efusiboa, lasaia...). Irudikatzen dituzue eztabaida batean parte hartzen, beren iritzia defendatzen eta kontrako iritzia duena konbentzitzen saiatzen? Egoera hori izango litzateke argudiatze-egoera.
- Konturatu zarete zer estrategia diskurtsibo darabilten iritzia emateko garaian?

Argudiatzeko erabiltzen diren estrategia linguistiko batzuk ikus ditzakegu:

ARGUDIATZEKO TESTU-ANTOLATZAILE ETA ESAMOLDEAK

116

1-Nork bere burua inplikatu/Arrazoitu

Nire iritziz... Nire ustez... Uste dut... Iruditzen zait... -(e)la... Askok uste dugu... Nire ikuspuntutik/esperientziatik... Nik beti esaten dut... Gustatuko litzaidake... Nahi nuke... Ez nuke nahiko... Nik neuk...

-(e)lako... -(e)nez (gero).. Bait-... Kontuan hartuta... -t(z)eagatik/-t(z)earren... -(r)i esker... dela medio/kausa/bide... Bistakoa denez... Honegatik/horregatik/hargatik...

2-Baieztatu/Ezeztatu/Zalantzan jarri

Ziur... Jakina... Bai, noski ... Egia borobila... Bistakoa da... Dudarik/zalantzarik gabe... Ez dago zalantzarik... Eztabaida ezina da... Behar-beharrezkoa da... Konturatzen naiz... Onartzen dut... Ulertzen dut... ...-z konbentziturik nago

Ezinezkoa da... Gezurra galanta... Hori dioena oker dago... Sekula halakorik... Ez nago batere ados... Hori ez da egia... Onartezina da...

Ez dakit ba... Beharbada... Agian... Ez dut argi ikusten... Hori ez da guztiz zuzena... Ez nuke esango... Izan liteke, baina... Badirudi, baina... Zaila da sinestea...

3-Kontrajarri/Kontrastatu/Ñabardurak egin

Dena dela ere... Hala eta guztiz ere... Esanak esan... Edozein modutan... Hori horrela izanik ere... Zernahi gisaz (ere)... Nolanahi/edonola ere... Datorrena datorrela... Hori gorabehera...

Nahiz eta... -n arren... ba-... ere... Baina...

Kontuan hartu, baina... Kontuan izan behar da, bestetik... Ados, baina...

Kasu honetan, ordea... Horren aurka esan... Aurrekoaren kontrara...

Baldin eta... Beti ere... Kasu honetan...

4-Negoziatu/Konbentzitu

Nirekin bat etorriko zara... Ados bazeunde, gustatuko litzaidake... Hala nahi bazenu...

Onartuko bazenu... Gogorarazi nahi dizut... Zera uler dezazun gustatuko litzaidake... Utz

iezadazu azaltzen... Zera ziurtatzen dizut... Egoeraz jabe zaitez... Zure lekuan jarrita... Zu ni

bazina, ulertuko zenuke... Ezin duzu zeure horretan jarraitu... Adostasunera heltzeko... Bion

mesederako... Eskertuko nuke...

5-Harikaldu/Ondorioztatu/Bukaera eman

Ildo horretatik... Hari horri tiraka... -(r)i dagokionez... Jakin badakigu...

Beraz... Honela/horrela/hala... Esanak esan... Kontuan izanik... Honen/horren ondorioz/kausaz... Bada... Ondorioz... Honela/horrela/hala...

Bukatzeko/amaitzeko... Amai dezaguz esanez... Azkenik... Behin honaino iritsita...

(Taulako informazioaren iturri nagusia: '[Konbentzitzeko argudiatu' sekuentzia didaktikoa](#))

Badaude beste estrategia batzuk ere. Adibidez:

- **Galdera erretorikoak**, erantzunik espero ez duten galderak, erabiltzea. *“Eta egoera hori justua al da? Ba ez, ez da justua... honegatik eta honegatik”*.
- **Nork bere esperientzia** edo gertuko batena kontatzea, arrazoiei pisua emateko. *“Amaiari goizeko laurak arte geratzen uzten diote gurasoek”*.
- Gertutasuna erakusteko, *ni* pertsonaz gainera, **zu eta gu pertsonak** erabiltzea. Bestea ere zakuan sartzea, interpelatzea, edo kolektibo baten izenean hitz egitea. *“Askotan sentitzen dugu...”, “Egoera horretan zaudenean...”, “Guk, emakumeok...”*.
- **Adjektiboak erabiltzea**, egoera/jarrera/gertaera hori kalifikatzeko: *“Lotsagarria da...”, “Hori baino gauza ederragorik...”*.
- **Errepikapena**: ideia/argudio bera bi modu diferentetan azaltzea, indarra emateko. *“Ez dago eskubiderik, ez dago eskubiderik hori...”, “Inportantea da, oso inportantea da...”*.

Eta ahozko baliabideak ere oso inportanteak dira, esaten dena indartu edo indargabetu dezaketelako: keinuak, begiradak, erritmoa, ahotsaren tonua, gorputz-jarrera... Adibidez: behera begira hitz eginez gero edo oso baxu edo azkarregi edo sututa edo batere entusiasmorik gabe, esaten dugunak indarra galduko luke. Horri buruz gehiago jakin nahi izanez gero, ikusi bideo hau: [Ahozko baliabideak](#).

4. Azken ekoizpena. Hainbat ekoizpen gara daitezke. Lau adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezeko bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.

- *“Hitzen arrastoan.”* Bideoko iritziak aztertuko ditugu. Edukiari baino (arrazoia duten ala ez) formari erreparatuko diogu gehiago: esaten dutena nola esaten duten, alegia. Ea aipatu ditugun ezaugarriak agertzen diren!

2-3 laguneko taldetxoak osatu. Taldetxo bakoitzak bost iritzietako bat aztertuko du, eta ez talde guztiek bera (adibidez, 10 taldetxo baldin balira, iritzi bakoitza bi taldek aztertuko lukete). Testua banatuko zaie, ezaugarriak errazago ikusteko.

Fitxa posible bat:

Argumentatzailearen izena
Gaia/egoera/arazoa
Iritzia/ikuspegia/jarrera
Darabiltzan argudioak/arrazoiak
- - - - - -
Darabiltzan testu-antolatzaileak eta estrategiak
- - - - - - -

Egindako lana ikaskideei azalduko diete, ahozko aurkezpen txikiak eginez.

- *"Ika-mika"*. Argudiatze-egoera bat aukeratu eta eztabaida egitea proposatzen dugu. Ahozko eztabaida izango da, baina aurretik prestatu egingo dute. Eztabaidatzea arazoak konpontzeko, negoziatzeko eta ikasleen agresibitatea hitzez bideratzeko bitarteko bat izan daiteke. Izan ere, komunikazioa ezinbestekoa da: nor bere sentipenak adieraztea, eta besteen iritzia entzun, ulertu eta errespetatzea. Beraz: ikasleak euren iritzia defendatzen eta besteak konbentzitzen saiatuko dira, bai, baina ondoren adostasun batera iristeko, negoziatuta. Malgutasuna erakutsiko dute.

ZER LANDU?

- a. Zertaz eztabaidatuko dugu? Gaia eta ikuspegi kontrajarriak
- b. Nork defendatuko du ikuspegi bakoitza? Banaka ala taldeka? Taldeak osatu eta ikuspegiak aukeratu
- c. Zein erregistro erabiliko da (formala, informala)?
- d. Zenbat denbora izango du bakoitzak bere iritzia emateko?
- e. Nork gidatuko du eztabaida? Rolak banatu

Gaiek ez dute sakonak eta traszendentalak izan beharrik. Eguneroko bizitzako egoerak izan daitezke, eta oso gai polemikoak ez badira hobeto, gainera (bestela blokeoak sor daitezke).

Adibide moduan, bi egoera:

A egoera: *Eskolako komun guztietako ispiluak margotuta agertu dira: “Babalorea hau irakurtzen duena”, “Munduko itsusiena naiz”, “Hi, izorrai!” eta horrelako idatziekin. Irakasleak esan du: “Zein izan da? Errudunak agertzen ez badira, denak zigortuta. Hori egin duena edo dutenak agertu arte, ez gara klasetik aterako”.*



Ikuspegi kontrajarriak:

- Batzuek uste dute zigorra ez dela justua, egileek aitortzen ez badute guztiak zigortuko dituztelako eta, gainera, ikaskideak salatzeraz bultzatzen dituztelako.
- Besteek diote egileek egin dutena aitortzeko modu bakarra dela, presiorik egin ezean zigorrik gabe geratuko direla eta ez dela justua, ezin dutela nahi dutena egin eta zigorrik gabe geratu.



B egoera: *Ikas-bidaiarako 3 proposamen daude, eta erabaki egin behar da.*

- **Ibiza.** Hondartza eta parranda. Hegazkinez. Astebete. 205 euro.
- **Pirineoak.** Ibilbideak, aterpetxeetan lo eginez. Autobusez. Zortzi egun. 105 euro.
- **Paris-Amsterdam.** Bidaia gastronomiko-kulturala. Autobusez, bidean geldialdia eginez. Sei egun. 155 euro



Ikuspegi kontrajarriak: Denetik dago gelan. Batzuek hondartza nahi dute, beste batzuek mendia, eta badaude bidaia kulturala nahi dutenak ere.

Ahozko baliabideak kontuan hartzea ere komenigarria da, eztabaidarekin hasi aurretik. Denen artean adostu dezakete zein diren tonu, erritmo, bolumen, keinu eta erregistro egokienak gelakideen aurrean iritzia emateko, probak eginda:

PROBATU ETA ADOSTU

- 1- **Tonua.** Ez baxuegia eta ez altuegia, entzule/gelakide guztiek arazorik gabe entzuteko modukoa, baina garrasi egin gabe.
- 2- **Begirada.** Saiatu beste taldeko kideei begiratzen (ez lurrera/sabaira/publikoari).
- 3- **Aurpegierak eta eskuekin egindako keinuak.** Esandakoarekin bat etorri behar dute (ez egon momia baten moduan, ez sartu eskuak poltsikoetan...).
- 4- **Erritmo aldaketak.** Oso azkar hitz egiten badugu, ez gaituzte ulertuko; mantsoegi hitz egiten badugu, berriz, aspertu egingo dira.
- 5- **Intentsitatearekin edo bolumenarekin jokatu,** enfasia emateko, arreta erakartzeko...
- 6- **Erregistro ezberdinekin probak egin** (lagunartekoa, serioagoa...).

(Informazioaren iturri nagusia: [Ahozko eztabaidarako baliabideak](#))

Eztabaidetan, ohiko arrisku batzuk:

KONTUZ HAUEKIN

1-Gure iritziaren aldeko nahikoa argudio ez aurkitzea eta ikuspuntua aldatzea: kontraesanetan erortzea.

2-Norbere ideietan bakarrik zentratzea, bestea konbentzitu behar horretan. Konbentzitu behar dugunaren iritzia ez kontuan hartzea. Ondorioz, akordio batera iristeko zailtasunak izatea.

121

Ondo legoke eztabaidak bideoan grabatzea, gero guztiek batera ikusi eta baloratu ahal izateko (eduki aldetik ez ezik, baita ahozko komunikazioaren ikuspegitik ere): ikasleek erabaki dezatela zer eta nola hobetu dezaketen. Aurre-testu bezala balio dezakete, hurrengo eztabaida egiten dutenean biak konparatu ahal izateko.

- *“Eman iritzia.”* Bakarka egiteko lana izango da hau. Iritzi-artikuluak idatziko dituzte ikasleek, hedabideetan agertu ohi direnen estilokoak.

Badakigu zer testu-antolatzaile erabili ohi diren, ikusi ditugu adibide batzuk. Baina hedabideetako argudio-testuek badituzte ahozko testuek ez dituzten ezaugarri batzuk:

- **Hartzailea.** Ez dakigu hartzailearen ikuspegia zein izango den, artikulua publiko orokorrak irakur dezakeelako. Salbuespena: “Gutuna zuzendariari” ataleko eskutitzak, pertsona/talde jakinei zuzendutakoak.
- **Ikuspegi kontrajarriak kontuan.** Gure ikuspegia argudio sorta baten bidez justifikatu behar dugu, baina kontrako argudio posibleak ere kontuan izanda (eta komeni bada, horiek ere artikuluan aipatuta).
- **Egitura.** Artikuluaren egitura inportantea da: argudioek eta azalpenek ondo lotuta egon behar dute. Hurrenkera inportantea da. Hasiera eta bukaera zaintzea komeni da (azken esaldiak/paragrafoak ideia nagusia laburbil dezake).

Adibide batzuk ikus ditzakegu (ikus “Iritzi-artikuluen ereduak” *dokumentua*). Irakurri eta komentatu. Ondoren, ikasleen txanda izango da. Gai bat eta ikuspegi bat aukeratu, eta iritzi-artikuluak idatziko dute. Nahi izanez gero, pertsona/talde jakin bati zuzendutako kexua ere izan daiteke.

Idatzitako iritzi-artikuluak ozenki irakurriko dute ikaskideen aurrean, egindako lana partekatzeke. Ozen irakurtzeko, garrantzitsua da hitzezkoak ez diren baliabideak ezagutzea edo

gogoraraztea (erritmoa, isiluneak, tonua, bolumena...). Horretarako, Pako Eizagirrenen azalpenak kontuan izan ditzakegu, aditua baita lan horretan (Aittu.eus webgunearen sortzailea da): [*Testua ezaqutu eta barneratu*](#) (00:30-01:40)

Bideo honen bigarren zatian ere ozen irakurtzeari buruz dihardute: [*Idazketa tailer baterako aholkuak*](#) (10:30 minututik aurrera).

- *“Bestearen azalean”*. Antzezlan txikiak egitea proposatuko diegu ikasleei, “Zapalduen antzerkiaren” teknika erabilia.

Gatazka bat izango da antzezlanaren erdigunea: bi ikuspegi kontrajarri. Baina ikuspegi kontrajarriak dituen pertsona bakarra (protagonista) izango da, eta ez du jakingo zer egin. Protagonistak beste bi pertsona izango ditu aldamenean, eta biak ala biak bera konbentzitzen saiatuko dira. Bakoitzak bere ikuspegia izango du, noski. Pertsonaia hauei Aliatua eta Zapaltzailea deitu diezaiekegu.

“Zapalduen antzerkian” zapalkuntza-egoerak lantzen dira, arrazarekin, genero-ikuspegiarekin eta abarrekin lotutakoak.

Adibide bat:

Amaiak Bartzelonara joan nahi du, dantza eskola batera. Hori da bere ametsa txikitatik. Enekok, bere mutil-lagunak, ez du nahi, eta esaten dio joaten bada distantziaren erruz haien arteko harremana bukatu egingo dela. Mireiak, ordea, ametsa betetzera animatzen du. Zer erabakiko du Amaiak?

Gure proposamena inprobisazioa lantzea da. Hiruko taldeak egin, rolak banatu eta egoerak emango dizkiegu, eta elkarrizketak inprobisatu egingo dituzte. Hori bai, lehenengo inprobisazioan amaiera beti bera izango da: protagonistak benetan nahi duena ez egitea erabakiko du, etsaiari/zapaltzaileari kasu eginez.

Jarraian:

Amaiak Bartzelonara ez joatea eta Enekorekin geratzea erabakiko du.

Antzezlantxoa amaitzean, publikoari (gelakideei) galdetuko zaio zer egingo luketen istorioari beste amaiera bat emateko: protagonistak bere benetako nahia bete dezan, alegia. Zer eta nola esan proposatuko diete aktoreei, eta halaxe egingo dute. Bigarren aldiz antzeztuko dute, modu inprobisatuan oraingoan ere, baina beste amaiera batekin.

Amaiak Bartzelonara joatea erabakiko du, eta Enekorekin duen harremanak, sendoa baldin bada, iraungo duela irudituko zaio.

Ikasleek asma ditzakete egoerak. Beste hiru adibide:

- a. Lanean kontratu gabe dagoen etorkina. Protagonista: Langilea. Larunbata jai hartzeko baimena eskatu dio nagusiari, lagun baten ezkontzara joateko, eta hark ezetz esan dio. Zapaltzailea: nagusia. Aliatua: lagun bat.
- b. Ama-alabak. Protagonista: alaba. Lagunekin asteburu-pasa joan nahi du, baina ama adinekoa da eta txantaia emozionala egiten dio, bakarrik utz ez dezan. Zapaltzailea: ama. Aliatua: lagun bat.
- c. Nudismoa egin nahiko lukeen emakumea, baina ausartzen ez dena. Lagun batek (zapaltzailea) lotsarazi egiten du eta besteak (aliatua) animatu. Kasu honetan bi lagunak bere buru barruko eztabaidaren isla besterik ez dira.



Irudia: [Wikipedia](#)

5. **Ekoizpena partekatzea.** Ekoizpena dena delakoa izanda ere, ikasleek beti ahozko aurkezpena/azalpena/kontaketa egitea proposatzen dugu, ahozkotasuna lantzeko, eta, ahal dela, bideokamerarekin grabatzea, ahozko jardunen bilakaera ikusi eta aztertu ahal izateko. Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tartea izango da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea komeni da. Irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: [ahozkoaren ezaugarriak](#) eta [baliabideak](#).

ESPAZIOEN ANTOLAKETA

Proposamen pedagogiko gehienak gelan landuko dira, eta espazioa antolatzeko orduan gertuko giroa sortzen saiatuko gara. Talde-lana sustatuko dugu, eta ikasleen autonomiari garrantzia emango diogu. Espazioa talde-lanerako era egokian antolatuko da betiere (talde txikiak lehenetsiko dira, eta COVID19aren protokoloak beteko dira). Ikasle guztiak parte hartzeko aukera bera dutela eta espazioaren antolaketa ez dela horretarako oztopo ziurtatuko da. Espazioari dagokionez, aintzat hartuko da irakaslearen eta ikasleen arteko harremana ere, irakaslea fisikoki ikasleen gainetik ez jartzeko.

Lanketak hala eskatzen duenean (ikasleek beraien esperientzia pertsonalak kontatzeko, adibidez), gela modu berezian girotuko dugu: mahaiak eta aulkiak albo batera eraman, irakaslea zein ikasleak lurrian eseri, argiztapena zaindu (argi motela erabili)... Kontuan izan behar dugu sutondoan egiten zen transmisioa ikasgelara eramatea dela helburua, eta horretarako giro aproposa sortzea garrantzitsua dela. Testuinguru egokia sortzea, alegia. Ikasleak ez dira epaituak sentitu behar, hitz egiteko eta entzuteko gogoia izan behar dute. Eroso sentitu behar dira, etxean bezala.

Ikasleek euren kabuz informazioa lortzeko edo ekoizpenak prestatzeko egokia izan daiteke IKTrako baliabideak dituen gela, edo liburutegia erabiltzea. Bestalde, ikastetxetik kanpo informazioa biltzea ere bultzatuko da, gertuko errealitatea ezagutzeko: etxean, kalean... Ahozkoatasunean oinarritutako proiektua den heinean, inguru hurbilean testigantzak biltzeari garrantzia emango zaio.

Komeni denean, areto nagusia, liburutegia edo kanpoko eremuren bat ere erabili daiteke lanketa batzuk egiteko (mugimendua eskatzen dutenak, antzezlanak edo jolas girokoak, leku zabalagoa izateko).



Iturria: Donostia.org

DENBORALIZAZIOA

Irakasleak erabakiko du zenbat denbora eskaini lanketari. Izan ere, irakasleak erabakiko du zein jarduera egingo dituen ikasleekin, eta zenbat denbora beharko duen horretarako.

Irakasleak jarduera guztiak bere egitea erabakitzen baldin badu, orduan proposamen pedagogikoak Sekuentzia Didaktiko bihur daitezke. Fitxa Pedagogiko guztiak ez dira berdinak, eta lanketarako denbora ere diferentea izan daiteke, baina jarduera guztiak aurrera eramanez gero, lanketa 4-6 ordukoa izango dela aurreikusten dugu:

125

1. *saioa*. Bideoa ikusi aurretik egingo diren jarduerak. Bideoa ikustea.
2. *saioa*. Bideoa ikusi ondorengo jarduera batzuk (1. saioan ere hasi gaitzke jarduerekin)
3. *saioa*. Bideoa ikusi ondorengo beste jarduera batzuk
4. *saioa*. Ikerketa, informazio bilketa edo lanketa, ekoizpena gauzatzeko (kasuan kasu, saio hau ikastetxetik kanpo egin daiteke)
5. *saioa*. Ekoizpena partekatu eta grabatu
6. *saioa*. Grabazioak ikusi eta ebaluazioa egin

Baliabide teknikoak

- IKTak. Eskola 2.0 egitasmoko baliabideak eskura izango ditugu: arbel digitala gela osorako eta ordenagailu eramangarriak ikasle guztientzat.
- Bideoak pantaila handian ikusiko dira. Pantaila, ordenagailua, Interneterako konexioa, proiektorea eta bozgorailuak beharko dira. Arazo teknikoak izanez gero, posible izango da ikasleek euren ordenagailu eramangarrietan ikustea bideoa. Aurikularrak beharko dituzte.
- Informazioa bilatzeko Internet erabiliko dugu. Konexioa izatea ezinbestekoa izango da.
- Informazioa jasotzeko eta materiala ekoizteko, tabletak, bideokamerak, ordenagailuak etab. erabiliko dira.
- Gaiak aurkezteko, dokumentuak sortzeko eta ekoizpenetarako sarean aurki ditzakegun aplikazio libreak erabiliko ditugu (Google Drive). Zenbaitetan bideoak eta ekoizpenak partekatzeko, proiektorea, bozgorailuak eta ordenagailua beharko dira.

MATERIALAREN EGILEAK

Ikasmaterial hau Badihardugu Euskara Elkarteak sortuko du, www.ahotsak.eus proiektua oinarri hartuta.

- **IDOIA ETXEBERRIA ELORZA.** Edukien diseinuaz eta garapenaz arduratu da. Euskal Filologia ikasketak egin zituen Donostian, Kazetaritza Leioan eta Itzulpengintza Masterra Gasteizen. 4. Hizkuntza Eskakizuna dauka. 2009tik dabil Badihardugun lanean. Elkarteak Hezkuntza arloan dituen proiektuen eta Ikasgelan webgunearen arduraduna da, eta *Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan* ikasmateriala prestatzen jardun du (EIMA 2.0) aurreko urteetan ere. Kazetari eta iritzi-artikulugile moduan ere aritua da (Euskaldunon Egunkaria, Berria, Goiena).
- **AINZANE AGIRREBEÑA UBERA.** Proiektu honetan aholkulari pedagogikoaren ardura izan du. Euskal Filologia ikasketak egin zituen Gasteizen eta irakaskuntzarako gaitasun agiriaren jabe da. Badihardugu elkarteko koordinatzailea da eta Ahotsak proiektuaren sortzaileetako bat. Hainbat herritako hizkera jaso eta aztertu du, tartean, Eibar, Beasain, Zarautz eta Zumaia. *Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan* ikasmateriala (EIMA 2.0) prestatzen jardun du aurreko urteetan ere.
- **HAIZEA ODRIA ESNAL.** Bideoen edizioaz arduratu da. Arte Ederretan lizentziatua, gehienbat ikusentzunezkoen munduan aritu da. Ekoiztetxe eta herri telebistetan bideo-editore, diseinatzaile eta kamerari gisa ibili da. Donostiako Nazioarteko Zinemaldiko bi ediziotan ere parte hartu du, bertako telebista eta web ofizialerako bideoak sortzen. Ahotsak.eus proiektuan bideo-editore eta elkarrizketatzaile moduan dihardu 2009tik. *Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan* ikasmateriala (EIMA 2.0) prestatzen jardun du aurreko urteetan ere.
- **IZASKUN GASTON BALERDI.** Beharrezko izapide administratiboak egiteaz gainera, gida didaktikoaren diseinu eta maketazioaz arduratzen da. Arte Ederretan Lizentziatua da. *Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan* ikasmateriala (EIMA 2.0) maketatzen eta diseinatzen jardun du aurreko urteetan ere.
- **JOSUNE ZABALA ALBERDI.** Aholkularitza eskatu diogu, ahozkotasanari eta ahozko genero-testuei dagokienean bereziki. Euskal Filologian doktore da. EHUn eta HUHEZIn irakasle, ikertzaile, koordinatzaile eta aholkulari moduan ibilia, eta baita Soziolinguistika Klusterreko bulego teknikoan ere. Ahozko testu-generoetan aditua. Hezkuntzan ahozkotasuna lantzeko, ikasmateriala sortzen eta irakasleak trebatzen jardun du.

BIBLIOGRAFIA

- Alonso, Idurre (2008): *Euskal Literaturaren irakaskuntza Hego Euskal Herriko batxilergoan*. Tesia, EHU.
- Amonarriz, Kike (2002). *Hizkuntzaren adierazkortasuna eta sormen ahalmena: gazteak eta euskara mendearen hasieran*. Ikastolen Elkarte: IX. Jardunaldi Pedagogikoak: 417-465.
- Amonarriz, Kike (2012). *Txisteez euskaraz ez dute graziazik*, Campusa 79 zk. 39.or.
- Askoren artean (2013). *Ikasleak hiztun. 2011ko Arrue proiektua*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz.
- Barquín, Amelia (2008). *Euskararen erabilera ez sexista*. Emakunde. Gasteiz.
- Bassols, M. (2003). *Modelos textuales teoría y práctica*, Octaedro ediciones.
- Bronckart, J.P. (2004) *Actividad verbal, textos y discursos. Por un interaccionismo socio-discursivo*. Fundación infancia y aprendizaje. 2004, Madrid.
- De Pietro, J.-F. & Dolz, J. (1997). *L'oral comme texte: comment construire un objet enseignable?*. Education et recherches.
- Dolz, J. & Schneuwly, B. (1997). *Géneros y progresión en expresión oral y escrita. Elementos de reflexión a partir de una experiencia realizada en la Suiza francófona*.
- Dolz, J. & Schneuwly, B. (1998). *Pour un enseignement de l'oral*. Paris, ESF.
- Dolz, J., Noverraz, M. & Schneuwly, B. (2001). *Séquences didactiques pour l'oral et pour l'écrit. Notes méthodologiques* (vol. II, 3^e/4^e). Bruxelles, De Boeck.
- Dolz, Joaquim; Vilá, Montserrat (1997): *L'oral formal*, Articles.
- Dolz, J., Schneuwly (1997). *Géneros y progresión en expresión oral y escrita. Elementos de reflexión a partir de una experiencia realizada en la Suiza francófona. Textos de didáctica de la lengua y literatura*. 11, 77-98.
- Eizmendi, I. (2015). "Eragileen sarea osatzen. Haur eta gazteen hizkuntza-ohituretan eragitera bideratutako eredu baten azalpena", *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 94: 71-91.
- Esnaola, I. (2000). *Gazteak eta erregistro kolokiala*, HIK-HASI, 49.
- Euskararen Aholku Batzordea (2004). *Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz.
- Eusko Jaurlaritza (2013). *V. Inkesta Soziolinguistikoa: Euskal Herria, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa, Iparraldea*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzua.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila (2007). *Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza Curriculumean*. 218. alearen gehigarria.
- Eusko Jaurlaritzako Justizia Saila (1993). *Euskal Autonomi Elkarteko emakumeen oinarrizko eskubideen gidaliburua*. Emakunde, Gasteiz.
- Erriondo L., Bilbao B., Garagorri X., Idiazabal I., Iztueta P (2003). *Euskal Dimentsioa Curriculumean. Oinarrizko irizpideak, norabideak eta lorbideak*. Euskal Eskola Publikoa Gaur bihar. Gasteiz.

- Garcia-Azkoaga, I.M. (2015). Ahozko euskara, ikerketarako unibertso bat, *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*.
- García-Azkoaga, Ines. 2015. *Ahozko euskararen erabilera eta eskola. Zein ahozkotasan irakatsi?* <http://www.euskonews.com/0701zbk/gaia70103eu.html> Euskonews. Eusko Ikaskuntza.
- HEZIBERRI 2020: <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-hezi2020/eu/>
- Ibarra, Orreaga (2011). *Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa*. N.U.P. Iruñea.
- Idiazabal, I. (1990), *Hizkuntzaren psicopedagogía. Testu motak*. Labayru Ikastegia. Bilbo.
- Idiazabal, I. eta Garcia-Azkoaga I.M.: [Ahozko euskara. Azterketak eta irakaskuntza](#). Bilbao, EHU.
- Kagan, S. (1999). *Cooperative Learning. San Clemente: Resources for Teachers*.
- Medgyes, P. (2012). *Laughing Matters: Humour in the Language Classroom*. Cambridge: Handbooks for Language Teachers.
- Lledó, Eulalia (2008). *Hezkuntzan erabiltzeko hizkuntza-jarraibideak*. Emakunde. Gasteiz.
- Pavón Amaia, Zuberogoitia Aitor (2011). *Leintz bailarako nerabeak eta ikus-entzunezko edukien kontsumoa, digitalizazioaren garaian*. Uztaro 78, 31-49 orr. Bilbo.
- Rincón, Ana (1997). [Ikastetxearen hezkidetza-eredua egiteko gida. I tomoa](#) Emakunde. Gasteiz.
- Rincón, Ana (1997). [Ikastetxearen hezkuntza eta curriculum proiektua egiteko baliabideak. II tomoa](#) Emakunde. Gasteiz.
- Rincón, Ana (1998). *Emakumeen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeko konbentzioa eta gomendioak*. Emakunde. Gasteiz.
- Sanchez Carrion, J.M. (1987). *Un futuro para nuestro pasado*. Lizarra.
- Soziolinguistika Klusterra (2011). [Hizkuntzen ahozko kale-erabilera. Euskal Herriko VI. neurketa](#).
- Soziolinguistika Klusterra (2013). Arrue Proiektua. Ebaluazio diagnostikoa 2011: ikasleen hizkuntza erabilerari buruzko datuak (LH4 eta DBH2) <http://www.soziolinguistika.org/es/arrue/2011txostena>.
- Zalbide, Mikel (2002). *Ahuldutako hizkuntza indarberritzea: teoriak zer dio?*. Ikastolen IX. Jardunaldi Pedagogikoak. Ikastolen Elkarte. Donostia.
- Zuazo, Koldo (2008). *Euskalkiak. Euskararen dialektoak*. Elkarlanean. Donostia.



Ikasmaterial honek Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren onespena dauka.
2020/11/03